This special issue concludes with the article “Gender and Conflict in Northern Ireland: Women’s Silenced Portrayal” by Olga Fernández-Vicente. This article begins by analyzing how, in armed conflicts, women are represented as a moral symbol that legitimizes struggle, equating their suffering with that of the nation. Radical nationalism defines women as mothers and cultural guardians, but since 1980, many young Northern Irish women have challenged stereotypes of purity and passivity and demanded instead a political and even militant space within the republican movement. This article questions the notion of an innate feminine pacifism and analyzes, through the principles of affect theory and trauma studies, three Northern Irish novels that reveal how the patriarchal discourse has rendered their active participation in the conflict invisible.

In short, the contributions to this special issue aim to explore the representations of the Basque and Irish post-conflict societies through fiction written by women. The aim is to analyze how literature can generate a social impact through audience participation. Critical analyses identify and explain the creation of emotional and affective worlds in Irish and Basque fiction in post-conflict settings and explore the creation of permeable subjectivities, which can lead society to reflect on familial, social, political, and cultural contexts in post-violence times. In some cases, the very notion of post-violence is questioned, to the extent that the end of the armed conflict allows for an even greater appreciation of the persistence of other longer-term forms of violence, especially gender-based violence. Ultimately, this special issue analyzes fiction that addresses

experiences of trauma and suffering and their overcoming, which can contribute to a more inclusive society where peaceful coexistence is achieved. The monograph also contributes to building a more multifaceted memory of the conflicts to the extent that it pays attention to conflicts other than the armed conflict but intertwined with it, to subjects other than the hegemonic masculine figure, and to other discursive formations on the conflicts which have been configured from marginal positions and even close to subalternity.

Many of the contributions to this special issue emerge from the Summer Course at the UPV/EHU held in July 2023, entitled “**Basque and Irish Women Writers in Times of Post-Violence: Communities in Transformation**”. The course was one of the many activities of the Communication Research Group at the University of Deusto, recognized by the Basque Government. The editors of this issue wish to particularly thank the PI of the group, Dr. María Pilar Rodríguez Pérez, the driving force behind the Summer Course and the very special issue presented here.

Emakume militanteak literaturan: euskal eta Ipar Irlandako gatazken arteko zubiak eraikitzen

Mujeres militantes en la literatura: construyendo puentes entre el conflicto vasco y el norirlandés

Women combatants in literature: building bridges between Basque and Northern Irish conflicts

Lorea Azpeitia Anta
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU
lorea.azpeitia@gmail.com
<https://orcid.org/0009-0008-3326-5511>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv139.2>

Artikulu hau «Ideolit: Literatura como documento histórico. Historia, ideología y texto» (GI 2021-003) UPV/EHU ikerketa-proiektuaren baitan egin da.

Jasotze data: 2024/06/25. Behin behineko onartze data: 2025/01/28. Behin betiko onartze data: 2025/05/22.



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

LABURPENA

Artikulu honetan euskal gatazka armatuan militatutako emakumeen genero-irudikapen literarioak aztertuko dira, Ipar Irlandako gatazka armatuan ekintzaile izandako emakumeen irudikapen literarioen analisiak aintzat harturik, gatazken arteko zubiak eraikiz. Literatur Kritika Feministaz eta Narratologiak baliatuz, bi eleberri aztertuko dira: Uxue Alberdiren *Jenisjoplin* (2017) eta Itxaro Bordaren *Susmaezinak* (2019). Laburbilduz, horietan diskurtso eta praxi feministen zantzurik atzeman bada ere, bi eleberrietan estereotipo patriarkalak erreproduzitu dira, *femme fatale*arena nagusiki, eta horrek erakusten du IRAko emakume militanteen irudikapenen azterketek adierazi dutena gurean ere betetzen dela.

Gako hitzak: gatazka armatua; genero-estereotipoak; agentzia; oroimen historikoa; Literatur Kritika Feminista.

RESUMEN

En este artículo se analizarán las representaciones literarias de mujeres militantes en el conflicto armado vasco, desde una perspectiva de género y entablando un diálogo con investigaciones literarias del conflicto armado norirlandés. A través de la Crítica Literaria Feminista y la Narratología se analizarán dos novelas: *Jenisjoplin* (2017) de Uxue Alberdi y *Susmaezinak* (2019) de Itxaro Borda. Aunque se hayan identificado signos de discursos y praxis feministas, ambas novelas reproducen estereotipos patriarcales, principalmente el de la *femme fatale*, coincidiendo con lo señalado en los análisis de las representaciones de mujeres militantes del IRA.

Palabras clave: conflicto armado; estereotipos de género; agencia; memoria histórica; Crítica Literaria Feminista.

ABSTRACT

This article analyzes the literary representations of women combatants in the Basque armed conflict from a gender perspective, establishing a dialogue with various representations of women activists in the Northern Irish armed conflict. Through Feminist Literary Criticism and Narratology, two novels will be analyzed: *Jenisjoplin* (2017) by Uxue Alberdi and *Susmaezinak* (2019) by Itxaro Borda. To sum up, although signs of feminist discourses and praxis have been identified, both novels reproduce patriarchal stereotypes, primarily that of the *femme fatale*, aligning with what analyses of the representations of IRA women combatants have pointed out.

Keywords: armed conflict; gender stereotypes; agency; historical memory; Feminist Literary Criticism.

1. SARRERA. 2. LEKUKOTZA ERREALEN ANALISI FEMINISTAK: ETA-KO ETA IRA-KO EMAKUMEZKO KIDEEN ARTEKO ZUBIAK ERAIKITZEN. 3. IRA-KO EMAKUMEEN IRUDIKAPEN LITERARIOEN ANALISIEK ADIERAZITAKO ESTEREOTIPOAK. 4. UXUE ALBERDIREN *JENISJOPLIN* (2017). 5. ITXARO BORDAREN *SUSMAEZINAK* (2019). 6. ONDORIOAK. 7. ERREFERENZIAK.

1. SARRERA

Orobat, orriotan proposatzen den ibilbide analitiko-kritikoak lotura estua du oroimen historikoarekin eta literaturak horrekin duen harremanarekin, eta materialismo kulturalak ezarritako premisa nagusietako batean oinarritzen da, alegia, ekoizpen kultural orok elikatzen duela oroimen hori eta, beraz, arreta kritikoa merezi duela (Dollimore & Sinfield, 1985; Williams, 1989)¹. Egun, euskal gatazka armatuaren inguruan ardaztutako literatur lan ugari topa daiteke euskal literaturan, bai eta horiek zinemara egokitu edo serie bilakaturiko bertsioetan ere, nahiz eta Ipar Irlandako gatazka armatuaren inguruko ekoizpen literarioarekin alderatuta kopurua murriztagoa den. Horren adierazle, Patrick Magee IRAko kide ohiak 2001ean argitaratutako *Gangsters or Guerrillas? Representations of Irish Republicans in 'Troubles Fiction'* doktore-tesian «Troubles fiction» izendaturiko alorraren baitan 700 obra identifikatu zituen, hala eleberriak nola ipuin-liburuak. Tracey Icton (2016) ikertzaileak, bestalde, *Troubles Women: Using Creative Writing Practice to Challenge Misrepresentations of IRA Women in Troubles Fiction* doktore-tesia egiteko, hogeita lau emakumezko protagonista baliatu zituen, guztiak ere IRAko kideak. Euskal literaturaren esparrura etorruta, argitalpen-kopurua nekez iristen da ehunera eta, emakume militanteen presentziari

1 Artikulu hau Lorea Azpeitiak 2024ko maiatzaren 3an defendatutako *Gatazka armatuaren oroimena euskarazko narratiba garaikidean genero ikasketen argitan* izeneko doktore-tesi argitaragabea oinarrituta idatzi da.

dagokionez, hamaika emakumezko pertsonaia identifikatu dira 1994tik 2019ra bitarteko ekoizpenetan (Azpeitia, 2024)².

Oroimenaren eta literaturaren inguruko harremanaren gaira etorrita, gatazka armatuen gaia jorratzen duten fikziozko lan horiek bitarteko gisa jarduten dute, besteak beste, oroimenaren igorle gisa eta, era berean, gatazka armatuaren parte izan diren subjektuen irudikapenak transmititzeko bitarteko gisa. Ildo horretatik, ez litzateke okerra pentsatzea irakurle askorentzat fikziozko irudikapen horiek izango direla gatazka armatuaren garaira hurbiltzeko bitartekari aski eskuragarri eta eraginkorrak (Azpeitia, 2024; Icton, 2016; Magee, 2001). Hala, Samara Velte ikerlariak *Euskal gatazkaren memoria mediatuak: gazteek iragan kolektiboarekiko dituzten pertzepzio eta posizionamendu estrategien analisi diskurtsiboa* (2023) doktore-tesian ondorioztatu duena gogoan izanik, kontziente gara literatura oroimenaren eraikuntza narratiboaren ikuspegitik gehien ikertu den eremu mediatiko-kulturaletako bat izanagatik, gaur egun gatazka armatuaren inguruko pertzepzioarekiko duen eragina, ikus-entzunezko elementuekin alderatuta, mugatua dela. Edonola ere, egitate horrek adorea eskaintzen du gatazka armatuaren errepresentazioei kritikoki erreparatzen jarraitzeko. Hain zuzen, Veltek (2023) 1990eko hamarkadaren amaieran eta 2000ko hamarkadaren hasieran jaiotako lekukoak diskurtsoak analizatuz ondorioztatu du gazteek gatazka armatuaren historiari buruz bernarratibizatzen dituzten oroitzapenak ia osoki mediatuak direla, eta besteak beste, dispositiboaren diskurtsoek eragina dutela horretan. Egitate horren, fikziozko irudikapenen eta genero-estereotipoen arteko lotura eginez, ordea, nekez jartzen da zalantzan, oro har, iturri horiek hedaturiko genero-iruditeria, eta gisa horretara, besteak beste, gatazka armatuaren genero-iruditeria hegemoniko eta patriarkala berrelikatu eta betikotzen da. Horrek, halaber, eragin zuzena du euskal gatazka armatuari buruzko literaturan islatzen diren subjektu-posizioen eraikuntzan (Azpeitia, 2024, 51. or.). Gogoeta-ildo horri heltzen dio Susan Lanser (1986, 344. or.) narratologo feministak, eleberriek genero-irudikapenekiko jotzen duten rol erreferentziala azpimarratzen duenean, hori izanik Literatur Kritika Feministaren premisa nagusietako bat.

Ildo horretatik, euskal gatazka armatua fikzioaren bidez maiz irudikatu bada ere, gatazka horretan engaiatutako emakumezko pertsonaiak gutxi dira gizonezko pertsonaien aldean, edozein izanik ere arakaturiko alor artistikoa, eta bereziki gutxi dira militante aktibo eta autonomo gisa irudikatu diren emakumezko pertsonaia literarioak. Gainera, sarri, agentzia horiek desitxuratu egiten dira estereotipo tradizional eta, maiz, faltsuen gainean eraikiak direlako (Azpeitia, 2024). Ordea, gertakizun hori ez da euskal literaturako irudikapen literarioen berezitasuna, besteak beste, Ictonek (2016, 74. or.) ere gauza bera ondorioztatu baitu Ipar Irlandako gatazka armatuaren inguruko fikzioan emakumeek izan duten errepresentazioa aztertu ostean.

2 Orriotan aipatzen diren ikerketek, hala anglosaxoiek nola euskaldunek, helduen literatura narratiboa dute ikergai.

Abiaturtik argitu nahi da orriotan «emakume» eta «gizon» terminoak sozialki hala irakurriak diren gorputzei erreferentzia egiteko baliatuko direla eta hizkuntzaren ekonomian oinarrituz, sarritan etiketa soil horiek baliatuko direla.

Beraz, irudikapen literario horiek genero-ikuspegitik aztertzeak garrantzi handia du, besteak beste, aukera ematen baitu hedatzen duten genero-iruditeria patriarkala seinlatu eta, oroimen kolektiboaren berrelikatzea agerian jarritz, dinamika patriarkalak hausten ahalegintzeko.

Hain zuzen ere, azterlan honen ideia nagusien artean, azken urteotan Euskal Herriko Mugimendu Feministak euskal gatazka armatua birpentsatzeko sustatu duen planteamendu kontzeptuala dago. Oro har, Euskal Herria gatazka armatuan murgilduta bizi izan den heinean, «euskal gatazka» izendatu izan da ETA erakundea sortu, haren proiektu politikoa defendatzeko biolentzia erabiltzea erabaki, ekintza armatuak gauzatu, biolentzia armatuaren bidea uztea ebatzi eta erakundea desegin bitarteko aroa (EHBf/Emagin, 2017). Horretaz gain, Espainiako eta Frantziako estatuen indar errepresiboen eta ETAre biolentziaren arteko elkarreraginetik sortutako bortizkeriarekin lotu izan da «euskal gatazka», dinamika biolento horri izaera unibertsala esleituz eta arreta mediatiko zein soziopolitiko behiena erakarriz (Esteban, 2017). Alabaina, gatazka horri osotasun-izaera eman bazaio ere, garrantzitsua da kontuan izatea, gatazka armatu horrek iraun duen bitartean, gatazka politiko eta sozial gehiago egon direla eta, beraz, «euskal gatazka» hori, ezer izatekotan, gatazka hegemonikoa izan dela, gainerako gatazka politiko, sozial, ekonomiko, kultural eta abarri itzal egin diena (Albizu & Saez de Egilaz, 2022; Atutxa & Retolaza, 2021; Azpeitia, 2021, 2023, 2024; Dañobeitia, 2021; EHBf/Emagin, 2017; Esteban, 2017; Galardi, 2018; Goikoetxea, 2016; Goikoetxea et al., 2020; Hamilton, 2007; Odriozola, 2016; Rodríguez, Z., 2015; Ruiz Torrado, 2016; Ruiz Torrado, et al., 2019). Gogoeta-ildo horri loturik, feminismoaren askotariko erronketako bat da orain arte aintzat hartu ez diren gatazkak, marjinetan utzi direnak edo ikusezinak izan direnak erdigunera ekarri eta horien ondorioez hausnartzea (Goikoetxea, 2016).

Azterlan honen muinari dagokionez, ezinbestekoa da azpimarratzea gatazka armatuaren testuinguruan nahasita egon diren eragileen artean emakumeen partaidetza, oro har, bazterrekotzat jo izan dela eta, gehienbat, eragile pasibo edo biktima gisa irakurriak izan direla. Alabaina, euskal gatazka armatuaren inguruko genero-iruditeria tradizionalan genealogia maskulinoa betikotzen duten kultur elementu tradizionalak aldarrikatutakoaren kontra, Itziarren eta Joxepa Mendizabalen roletik harago doazen esperientziak irudikatu dira euskal literaturan, bai eta aitarena bakarrik ez den etxerik ere. Hori dela eta, ezinbestekoa da euskal gatazka armatuan parte hartu duten emakumeen agentziei erreparatzea, hala errealitatean nola fikziozko irudikapenetan, gatazkaren memoria zintzoki osatzen jarraitu nahi bada. Beren parte-hartzea ikusarazteaz gain, aktore eta eragile gisa izan duten eginkizuna hobeto ulertzen eta ezagutzen lagunduko duten proposamenak behar dira (Gallagher et al., 2001) eta, hain zuzen ere, azterlan honek erronka horri heltzen dio, lehenago euskal antropologia eta soziologia feministaren esparruan egin diren ekarpenei jarraipena emanez (Aretxaga, 1988; Dañobeitia, 2021; Esteban, 2018; Etxebarrieta & Rodríguez, 2016; Hamilton, 2007; Odriozola, 2016; Rodríguez, Z., 2013, 2015, 2017; del Valle et al., 1985), eta euskal literatur kritikaren esparruan berriagoa den ildoari jarraikiz (Atutxa & Retolaza, 2021).

Bide horretan, ordea, Ipar Irlandako gatazka armatuaren isla literarioak aztertu dituzten lanak balio handikoak dira euskal testuinguruari heltzeko³. Izan ere, euskal esparrura etorrita, hizpide dugun ikergaiaren inguruan ardaztutako eleberrien eta bertako pertsonaia batzuen inguruko analisirik egon badago ere, gehienetan, eleberriak hartzen dituzte hizpide, oro har, edota bestelako elementu testualetan jartzen dute arreta, protagonisten agentzia politikoari eta genero-irudikapenari berariaz heldu gabe. Halaber, azpimarragarria da analisi horiek ETako emakumeak irudikatu dituzten lehen-lehenengo eleberriei heltzen dietela nagusiki; alegia, batez ere, Laura Mintegiren *Nerea eta biok* (1994) eta Arantxa Urretabizkaiaren *Koaderno gorria* (1998), eta kasu bakan batzuetan Bernardo Atxagaren *Zeru horiek* (1995) izan ohi dituztela aztergai (Gabilondo, 1999; Lasarte, 2011; Olaziregi & Ayerbe, 2016; Ortiz Ceberio & Rodríguez Pérez, 2020; Retolaza, 2021; Retolaza & Serrano, 2012; White, 2005). Gutxi dira, halaber, aitzindaritzat jotzen diren *Nerea eta biok*, *Koaderno gorria* eta *Zeru horiek* eleberrien ostean ETako zein inguruko mugimendu politikoetan aktiboki parte hartzen duten emakumeak irudikatu dituzten eleberriak eta, are gutxiago, pertsonaien agentzia berariaz aztertu duten lan akademikoak (Azpeitia, 2024; Egaña, 2019a; Retolaza, 2021; Rodríguez, E., 2015).

Egoera, ordea, oso bestelakoa da Ipar Irlandako gatazka armatuaren testuinguruan IRAko kideen parte-hartzeen fikziozko irudikapenen analisei dagokionez, oro har, eta emakumeen parte-hartzeenari dagokionez, zehazki. Testuinguru horretan aurkitu dira azterketa-eredu gisa baliagarri izan diren ikerketa eta monografiko zenbait, bereziki, Mageeren (2001), Steelen (2007) eta Ictonen (2016) ikerketak. Orobat, gogoeta-ildo horiek aintzat hartzeak aukera ematen du, hainbat testuingurutako azterlanen arteko alderaketa eginez, zubi posibleak eraiki eta euskal gatazkaren errepresentazioari buruzko ikerketaren dimentsio unibertsala agerian jartzeko (Azpeitia, 2024, 26.-29. or.). Horretarako, artikulu honetan Uxue Alberdiren *Jenisjoplin* (2017) eta Itxaro Bordaren *Susmaezinak* (2019) aztertuko dira, Literatur Kritika Feministaren eta Narratologiaren argitan.

2. LEKUKOTZA ERREALEN ANALISI FEMINISTAK: ETA-KO ETA IRA-KO EMAKUMEZKO KIDEEN ARTEKO ZUBIAK ERAIKITZEN

Oro har, gerrilla, talde paramilitar eta antzekoen bidez borroka armatuetan parte hartzen duten gizonezkoak, batez ere, dispositiboari loturiko diskurtsoetan, zoro, gaixo, kriminal eta terrorista beldurgarri gisa irudikatzen dira (Atutxa, 2022; Atutxa & Retolaza, 2021; Magee, 2001; Rodríguez, Z., 2013; Steel, 2007; Velte, 2016), eta munstroze hori areagotu egiten da indarkeria arrazoi politikoek bultzatuta darabilten eta emakume gisa irakurtzen diren gorputzen kasuan (Agra Romero, 2012; Bugnon, 2011; Icton, 2016; MacDonald, 1991; Morrissey, 2003; Pérez, 2012; Rodríguez, Z., 2013; Sjöberg & Gentry, 2007; Steel, 2007). Izan ere, horiek automatikoki «emakume

3 Zenbait adibide aipatzearren, hona hemen erreferentzia bibliografiko esanguratsu batzuk, hurrenkera kronologikoan: Rolston (1989), Pelaschiar (1998), St. Peter (2000), Kennedy-Andrews (2003), Kelly (2005), Steel (2007), Grieman (2010), McCann (2012), Icton (2016).

txarren» saldoan sailkatzeko joera dago (Sjoberg & Gentry, 2007). Sjoberg eta Gentry-ren arabera (2007, 13.-14. or.), oso ikertzaile gutxik irudikatzen dituzte biolentzia darabilten emakumeak aktore arrazional gisa, nahiz eta, kontrara, bortizkeria darabilten gizonezkoak arrazionalki edo logikoki deskribatzeko gai izan. Hain zuzen, arrazionalki jokatzeko aukera da, aurreiritzi patriarkaletan oinarrituta, bortizkeria darabilen emakumeari ukatzen zaiona: «The traditional female offender is pictured as either innocent or irrational because of her gender, much like the traditional image of a woman portrays her as unable to think, reason, or work like a man» (Sjoberg & Gentry, 2007, 18. or.).

Edonola ere, emakumeek askotariko parte-hartzeak izan dituzte gatazka armatuen testuinguruetan. Besterik da zein izan den parte-hartze horri eman zaion balio, aitortza eta trataera, eta zer nolako kontakizunak eraiki diren parte-hartze horien inguruan. Ordea, gatazka armatuak beren gorputz eta existentziak modu berezian zeharkatu ditu. Hain zuzen ere, generoa dela eta, beren parte-hartzea problematikoa bihurtu ohi da, bai beren komunitatearen barnean, baita komunitatetik at ere. Problematika horren hedapenean funtsezko rola dute, batez ere, hedabideek eta askotariko ekoizpen kulturelek, gatazkaren inguruko diskurtso hegemoniko patriarkalak betikitzen baitituzte (Azpeitia, 2024, 93.-94. or.).

Orobat, askotariko kasu-azterketek jasotzen dutenaren arabera (Agra Romero, 2012; Juliano, 2009; MacDonald, 1991), emakumeek egindako delituek, proportzioan gizonen egindakoak baino gutxiago izanik ere, arreta mediatiko handia jaso ohi dute eta ikusmin handia bereganatu ohi dute arau sozialekiko apurtzaile diren heinean, eta hiperikusgarri bihurtzen dira (Agra Romero, 2012; O’Keefe, 2013; Rodríguez, Z., 2013; Sjoberg & Gentry, 2007). MacDonaldeen (1991, 15. or.) arabera⁴, egintza horiek oinarri politikoa duten borroka armatuen testuinguruetan jazotzen direnetan, izaera politiko horri erreparatu gabe eta bestelako elementuetan arreta jarritz komunikatu ohi dira albisteak, hala nola subjektuaren sexualitatean, itxura fisikoan edota gizonekiko harreman afektibo kalteberek sortutako alienazioan. Ildo horretatik, ETako emakumeen prentsa-irudikapenak aztertu dituen Zuriñe Rodríguezek (2013) antzeko ondorioetara heldu da, eta joera horren izaera unibertsala agerian gelditzen da.

Bestalde, askotan emakume horiek salbuespen gisa aurkeztu ohi dira eta ustezko salbuespen-izaera horren gainean eraiki da, neurri handi batean, talde armatuetan parte hartu duten emakumeen iruditeriarekiko lilura patriarkala (Bugnon, 2011). Ildo horretatik, hiperikusgarritasun horrek indibidualizatu egiten ditu emakume horien esperientziak, eta gisa horretara fokuari erdigunean jarritako emakume jakin batzuen jarri ohi da arreta. Joera horren bidez, batetik, beren militantzia-ibilbideak alde batera utzi eta bestelako elementuetan jartzen da arreta gehienetan eta, bestetik, gainontze-koen esperientziei itzal egiten zaie. Zuriñe Rodríguezek (2013) azaltzen duen moduan,

4 MacDonaldek (1991) egindako kasu-azterketan hainbat erakunde armatutako hogeit hamar emakume elkarrizketatu zituen, hala nola Alemaniako Armada Gorriaren Frakzioak (RAF/Baader Meinhof), Irlandako Armada Errepublikazalekoak (IRA), Italiako Brigada Gorrietakoak, Palestinaren Askapenerako Herri Frontekoak eta ETakoak.

ETako emakumeen kasuan zenbait izen ezagun badaude ere, apenas jaso da beren militantzia ibilbidearen berri, hain zuzen ere, klandestinitatearekin zerikusia duten kontuez aparte, hedabideek bestelako alderdietan jarri ohi dutelako arreta, hala nola beren bizitza pribatuetan, maitasun gaietan eta bestelako kontu intimoetan.

ETako emakumeen kasuan, historian zehar, beren iruditeria, batetik, amatasunarekin duten harremanetik abiatuta eta, bestetik, gizonekin duten ahaidetasunetik abiatuta eraiki izan da (Dañobeitia, 2021; Hamilton, 2007; Rodríguez, Z., 2013; del Valle et al., 1985), bereziki, hiru ardatz nagusiri erreparatu zaie: lehenik eta behin, ama, emazte, arreba zein neska-lagun gisa duten rolari; bigarrenik, bortizkeriarekin duten harremanari eta, hirugarrenik, beren sexualitateari (Rodríguez, Z., 2013, 166. or.). Bestela esanda, beren inguruan eraikitako diskurtso zein irudietan, sistematikoki, beren genero-erregimenari egin izan zaie erreferentzia. Ez da kasualitatea, ordea, ETako emakumeen inguruko narratibak hiru ardatz nagusi horien gainean eraiki izana, ikerketa zientifikoek adierazten dutenaren arabera, kasuan kasuko ñabardurak gorabehera, horietatik baitira emakumeek biolentzia arrazoi politikoengatik erabiltzeko hautua egitea azaltzeko baliatzen diren hiru narratibarik ohikoenak, hain zuzen ere: ama, gaiztoa eta puta (Agra Romero, 2012; Dañobeitia, 2021; Hamilton, 2007; Macdonald, 1991; O’Keefe, 2013; Rodríguez, Z., 2013; Sjöberg & Gentry, 2007; Steel, 2007). Halaber, ikerketek adierazi dute narratiba horiek historia osoan zehar hedatu direla eta erlijioek, kulturek eta estatuek elikatu izan dituztela, eta diskurtso horiek, itxuraz, emakumeek biolentzia erabiltzeko hautua egin izana azaltzen ahalegintzea helburu badute ere, funtsean, emakumeen agentzia ukatu eta kondenatu besterik ez dutela egiten (Sjöberg & Gentry, 2007). Ildo horretatik, MacDonald (1991) egindako kasu-azterketan, askotariko kasuetako lekukotzak aztertu ostean, ondorioztatu du hamaika direla prentsan emakume horien agentzia deslegitimatze baliatzen diren estrategiak, hala nola fokua beren sexualitatean jartzea eta esplizituki lesbiana gisa aurkeztea hori arbuigarria bailitzan; itsusiegiak izanik arreta emateko erailtzen dutela adieraztea; gizonenganako erakarpen sexualak liluratuta terroristen sareetan ederrak edo inozoak izateagatik erori direla baieztatzea; erotutako feministak direla, eta abar. Irudikapen horien guztien helburua bera da, ordea: gizartean emakume horiekiko sinesgaiztasuna eta izua sortu eta hedatzea eta, halaber, beren generoari ez dagokion zerbait egiten ari direla adieraztea (Azpeitia, 2024, 96. or.; MacDonald, 1991). IRAko emakumeen prentsa-irudikapenak aztertu dituen Talbot (2001) ere antzeko ondorioetara heldu da: prentsan emakume horiek muturreko feminista gisa aurkezteko joera dagoela, gizon batekiko harremanagatik besterik ez direla engaiatu, erakunde armatuan soilik laguntza-zereginetan parte hartzen dutela, mentalki tentelak direla, ez-femeninoak edota aurreko edozein aurreiritziren arteko edozein nahasketa: guztiak ere genero-aurreiritzi eta erregimen patriarkalaren mende sortutako irudikapenak dira (Azpeitia, 2024, 96. or.).

Laburbilduz, euskal gatazka armatuaren kasuan, ETako emakumeen lekukotzek haien gainean eraikitako diskurtsoek sistematikoki hedaturiko argudioez oso bestelako ezinegon politikoak eta militatzeko arrazoiak azaltzen dituzte, eta horixe bera ondorioztatzen dute bestelako nazio-askapenerako borroka armatuetan engaiatu diren emakumeen kasuak aztertu dituzten ikerketek (Aretxaga, 1997; Icton, 2016; MacDonald, 1991; O’Keefe, 2013; Steel, 2007). Are gehiago, bai euskal gatazka armatuko (Alcedo,

1996; Dañobeitia, 2021; Hamilton, 2007; Rodríguez, Z., 2017), bai bestelako gatazka armatuetako lekukotzek (Aretxaga, 1997; Icton, 2016; MacDonald, 1991; O'Keefe, 2013; Steel, 2007) adierazten dute ez dutela bizi izan diskurtso estereotipatu nagusiek adierazten duten genero-desberdinkeriarik, alegia, horiek diotenaren kontra, askotariko motibazio politikoek bultzatuta militatu dutela erakunde armatuetan. Halaber, askotariko lekukotza horiek sistematikoki gezurtatzen dute emakume horien gainean eraikitako estereotiporik hedatuena: gizon batekiko maitasun erromantikoagatik sartu izana erakunde armatuan (Azpeitia, 2024).

3. IRA-KO EMAKUMEEN IRUDIKAPEN LITERARIOEN ANALISIEK ADIERAZITAKO ESTEREOTIPOAK

Jayne Steelek (2007, 22. or.) adierazi du fikziozko pertsonaien egiantzekotasuna konbentzio narratiboekiko atxikimenduaren mende dagoela eta pertsonaiak sinesgarriak izateko ez dela nahikoa pertsona errealak imita ditzaten. Bestela esanda, irudikatutako pertsonaiak sinesgarriak izan daitezen kolektiboki onartu diren fikziozko pertsonaiak eta eredu bat finkatu dutenak imitatu behar dituztela, zeharka bada ere. Horretaz gain, Steelen arabera (2007), idazlanok onartutako konbentzio narratiboak erreproduzitu behar dituzte sinesgarri izatekotan (Azpeitia, 2024, 48. or.). Ordea, Joanna Russ (1971) literatur kritikari feministak, idazleen irudimenaz ari zela, zera adierazi zuen: edozein idazlek irudimena uste baino mugatuagoa duela, hain zuzen, marko eta kultura patriarkalaren baitan sortzeak ikuspegia baldintzatzen duelako eta dagoeneko barneratutako usteetatik abiatzen delako, izan kontzienteki, izan inkontzienteki.

IRako emakumeen irudikapen literarioei dagokienez, Ictonek (2016, 74. or.) ondorioztatu du fikziozko irudikapenek zerikusi gutxi dutela testigantzek adierazitakoarekin. Aituaren arabera (Icton, 2016, iii. or.), IRAko kideen literatur errepresentazioak oro har aintzat hartuz gero, proportzioan gutxi dira irudikatutako emakumezko pertsonaiak eta, sarritan, desitxuratuta irudikatzen dira. Hala, Steelek (2007) adierazi moduan, haien inguruko uste okerretatik eratorritako estereotipoekiko leialtasun zein mendekotasuna agerian gelditzen da. Halaber, Ictonek (2016) baieztatu du ez duela aurkitu IRAko emakume baten historia modu errealista eta sinesgarrian landu duen eleberririk; bestela esanda, ez du identifikatu IRAko emakumeek kontatutako esperientzia errealean oinarrituta dagoen pertsonaiarik, ez argumentuaren kausa-efektuari erreparatuz, ez eta pertsonaia femenino horien karakterizazioari dagokionez: irudikapen ez-errealistak eta estereotipo sexistetan oinarrituak identifikatu ditu, nagusiki.

Hala, estereotipoek askotarikoa den errealtatea azkar hautemateko estrategia gisa segurtasuna eskaintzen dutela jakitun, Mageek⁵ horietatik aldentzen diren irudikapenek irakurleen begietara ez sinesgarri izateko arriskua dutela ohartarazten du,

5 Mageek (2001, 114. or.) nagusiki protagonista maskulinodun eleberririk ikertu baditu ere, egiten du aipamenik bai emakumezko egileen ekarpenen inguruan, bai horiek sortutako irudikapenekiko duten loturaren inguruan ere.

Gopeguik (2011) zein E. Rodriguezek (2011) adierazi moduan. Ordea, besteak beste, emakumezko egileek irudikapen irudimentsuagoentzat bideak zabalduko dituztela iragartzen du Mageek (2001, 144. or.). Aurreikuspen horri jarraikiz, Steelek (2007) aztertutako askotariko ekoizpen-sortan nagusi diren egiletza maskulinodun obretan hedaturiko irudikapenei aurre egiteko, gizonezkoen kontakizun hegemonikoei erresistentzia egiten ote dieten ala ez egiaztatu nahian, emakumeek sortutako testuak aztertzen ditu, hala nola Mary Costello, Jennifer Johnston eta Deidre Maddenak. Besteak beste, estereotipo femeninoak deseraikitze saiakerarik egiten ote duten aztertzen du, lehenago aurreratu den moduan, identifikatutako estereotipo nagusiak izanik batetik, «Mother Ireland» edota *femme fatale* gisa irudikatutako terrorista, bai eta etxeko esparruaren politizazioa ere, eta irudikapen horiei aurre egiteko itxaropen-iturritzat jotzen ditu etorkizunean emakume-posiziotik egingo diren literatur ekarpenak.

Laburbilduz, Mageeren (2001), Steelen (2007) zein Ictonen (2016) gogoetak aintzat hartzeak aukera emango du, azterlan honen eta horien arteko alderaketa eginez, zubi posibleak eraiki eta euskal gatazkaren errepresentazioari buruzko ikerketa honen dimentsio unibertsala agerian jartzeko.

4. UXUE ALBERDIREN *JENISJOPLIN* (2017)

Jenisjoplin (2017) Uxue Alberdi euskal idazle eta bertsolariak argitaratutako bigarren eleberria da⁶. Alberdik, idazle gisa, 2005ean ekin zion bere ibilbideari, Igartza beka eskuratzearekin batera. Honela, *Aulki bat elurretan* (2007) ipuin-liburua argitaratu zuen 2007an, eta bi urte geroago, *Aulki-jokoa* (2009) izeneko lehen eleberria. 2013an *Euli-giro* (2013) ipuin-liburua argitaratu zuen eta 2017an, bestalde, hizpide izango den *Jenisjoplin* (2017). Eleberriak sona handia izan zuen euskal irakurleen artean, eta horren adibide da, besteak beste, 2017ko 111 Akademiaren Saria jaso izana (Aldekoa, 2022; Azpeitia, 2021, 2023, 2024). Bidenabar, eleberria gaztelaniara eta ingelesera itzuli da. Horretaz gain, Alberdik 2019. urtean *Kontrako eztarritik* saiakera plazaratu zuen eta lan horrekin Euskadi Saria irabazi zuen. Ondoren, 2020an, *Dendaostekoak* (2020) kronika literarioa argitaratu zuen⁷.

Alberdik ibilbide literario horretan askotariko gatazka sozial eta politikoei heldu die: *Aulki bat elurretan* eta *Euli-giro* ipuin-liburuetan, bikote-harremanen baitako gatazkak eta norberaren baitakoak jorratu zituen, hurrenez hurren; *Aulki-jokoa* eleberrian, ordea, 1936ko Gerra Zibilari eta horren inguruko oroimenaren gaiari heldu zion. Bestalde, artikulu honetan aztertuko den *Jenisjoplin* eleberrira hiesaren eta haren inguruko gizarte-asalduraren oroimena ekarri zituen, baita euskal gatazka armatuaren eta

6 Alberdi, idazle eta bertsolari izateaz gain, itzultzaile, literatur tailerren irakasle, iritzi artikulugile eta letragile ere bada. Kazetaritzan lizentziatu zen eta, besteak beste, Euskadi Irratian eta *Berria* egunkarian aritu da lanean.

7 Helduentzako literatura idazteaz gain, 2011n haur-literatura ere idazten hasi zen. Urte hartan *Ezin dut eta zer?* ipuina argitaratu zuen eta geroztik haurrentzako beste hainbat liburu idatzi ditu. 2016an Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria irabazi zuen *Besarkada* (2015) izeneko lanarekin.

horrekin lotutako ilegalizazio-prozesuen oroimena ere (Azpeitia, 2021, 2023, 2024). Laburbilduz, June Fernándezek (2020) nabarmendutakoaren ildotik, Alberdiren literatur ekoizpenen ardatzean, besteak beste, mundua kontatzeko zilegitasunaren inguruko kezka, heroien kultura zalantzan jartzeko grina eta bazterrekotzat jotzen diren errebeldeak ikusarazteko asmoa antzeman daitezke. Baieztapen hori nabarmena da, esate baterako, *Aulki-jokoa* eta *Jenisjoplin* eleberrietan. *Aulki-jokoa* eleberrian 1936ko Gerra Zibilaren oroimena da gai nagusia eta, Amaia Serrano (2019) ikerlariak baieztatu duenez, Alberdi da helduen literaturan gerra horri buruzko oroimen-idazketan murgildu den lehen emakume eleberrigilea. Eleberri horretan, gainera, emakumezko protagonistei ahotsa emateko hautu kontzientea egin zuen Alberdik, 1936ko gerraren oroimenari buruzko ikuspegi literarioa zabaltzeko. Orobat, ekarpen literario horrekin Alberdik agerian jarri zuen gerra testuinguruetan ohikoa den hegemonia maskulinoa eta, era berean, horri aurre egiteko nahia antzematen zaio, batetik, emakumezko egile gisa gai hori landu duten euskal idazleen generoa arrakalatzen duelako eta, bestalde, emakumeen testigantzei ahotsa, protagonismoa eta zilegitasuna ematen dielako (Azpeitia, 2021, 2023, 2024).

Aulki-jokoa eleberriarekin ekindako bideari jarraitzen dio Alberdik *Jenisjoplin*⁸ eleberrian, 1980ko hamarkadako berunezko urteetatik aro garaikidera bitarteko euskal gatazka armatuaren testuinguruan girotu du bere azken eleberria. Horretaz gain, heroinaren eta hiesaren gatazka ere presente daude, Euskal Herriaren historian berebiziko eragina izan duten eta izaera hegemonikorik izan ez duten gatazkek eleberrira ekarriz (Azpeitia, 2021, 2023, 2024). Eleberriaren hastapenetan deskribatzen den testuinguru soziopolitiko eta historikoak protagonistarenganako lehen hurbilketa baldintzatzen du; izan ere, Nagore irrati libre bateko kudeatzaile izateagatik atxilotzeko arriskuan dago, atxilotze hori Euskal Herriko gatazka armatuaren testuinguruan kokatzen den sarekada baten ondorio izanik. Bestela esanda, protagonista militantzia politikoagatik jazarria da. Horretaz gain, eleberrian zehar etengabe azpimarratzen da euskal gatazka armatuarekin duen lotura, eta azterlan honetan aintzat hartzeko beta eskaintzen du.

Eleberriaren argumentuari dagokionez, 1980ko hamarkadan Euskal Herriko langile-auzo batean jaiotako emakumearen istorioa du kontagai, haurtzaro eta nerabezaroko giro sozial eta politiko gatazkatsuak eta, batez ere, aitaren partetik jasotako langile-klasearen kontzientziak pertsonaiaren egitura eta eraikuntza emozionalean eragin handia du. 2010. urtean, ordea, hiesa diagnostikatzen diote eta horrek ordura arte bizitzari aurre egiteko baliatutako mekanismoak eraisten dizkio, bere burua berrasmatzera derrigortuz. Testuan zehar, halaber, gaixotasunari buruz egindako gogoetek eta euskal gatazka armatuari buruzkoek elkar elikatzen dute etengabe, eta protagonistaren berrasmatzeko-prozesua euskal gatazkaren aro armatuak euskal gizartean izan duen eraginarekin harremanetan irakurtzera bultzatzen du irakurlea⁹.

8 Eleberriaren izenburuak eleberriko protagonistaren ezizenari egiten dio erreferentzia, aitaren abeslari kuttun Janis Joplinen omenez jarritakoa. Protagonistak, egiatan, Nagore Vargas du izena.

9 Lotura horren adierazle metaforikotzat jotzen da eleberriaren amaieran, Nagore eta Luka bikotekidea Geta-rian atseden hartzen daudela, ageri den otarrainaren metafora (Azpeitia, 2021, 2023, 2024).

Eleberriak hiru hamarkada biltzen ditu, eta garai-aldaketa horiek lotura estua dute protagonistak subjektu gisa egiten duen ibilbidearekin, identitate-krisiarekin eta haren berrasmatze-prozesuarekin, nahiz eta ibilbide hori ez den hurrenkera kronologikoan deskribatzen. Batetik, 1980ko hamarkada gorabeheratsua azaltzen da, euskal gatazkaren berunezko urteak eta heroinaren kontsumoak sortutako krisia zein horrekin batera azaldu zen hiesarena; bigarrenik, 1990eko hamarkadaren amaierako eta 2000koaren hasierako urteetan protagonistaren kontzientzia politikoa ernatzen den giroa azaltzen da (gaztetxe-giroa, Ikasle Abertzaleak eta Segi); eta, azkenik, 2010. urte inguruko garaia deskribatzen da, hiesaren diagnostikoaren aroa, diagnostiko hori izanik narrazioaren gertaerarik garrantzitsuena eta eleberriaren ildo narratiboa baldintzatzen duena. Diagnostiko horrek denbora-lerroan, gutxi gorabehera, bat egiten du euskal gatazka armatuaren historian inflexio-puntua izan denarekin; alegia, 2011. urtean ETak armak behin betiko utziko zituela adierazi zuen une historikoarekin. Gertakizun hori, halaber, jasota dago eleberrian eta leku esanguratsua hartzen du bertan (Azpeitia, 2021, 2023, 2024).

Eleberriaren egiturari dagokionez, hiru atal nagusitan banatuta dago eta bi narratzio-ildo nabarmen daude: batetik, orainaldian narratutakoa, 2010eko irailaren amaieran hasi eta 2014ko uda hasierara artekoa eta, bestalde, protagonistaren identitatearen eta izaeraren eraikuntza ulertzeko lagungarri diren iraganeko pasarteak biltzen dituen, 1978an Nagoreren izeba Karmen hamaika urterekin heroinaren mende erortzen denetik 2006ko otsailera bitarteko tarte kontagai duena (Azpeitia, 2024).

Nagore pertsonaiaren karakterizazioari dagokionez, haren izaera lau ardatz nagusik gurutzatzen dute: lehenik eta behin, euskal gatazka armatuak; bigarrenik, hiesaren eta horren kontrako gatazkaren genealogiak; hirugarrenik, langile-klasearen borrokak eta kontzientziak eta, azkenik, kontzientzia eta borroka feministak zein horrekin loturiko sexualitateak. Ildo horretatik, garrantzitsua da azpimarratzea eleberrian esplizituki adierazten dela zapalkuntza-alderdi horien intersekzioaren kontzientzia (Azpeitia, 2024, 389. or.).

Protagonistaren militantzia politikoari dagokionez, Nagorek Bilboko Txurdinagako institutuan hasten denean ekiten dio, Ikasle Abertzaleak taldearen baitan, zehazki, ibilbideari (167. or.). Nagore ezker abertzalearen giroan murgilduz doan heinean¹⁰, Segiko gazteekin hasten da harremanetan eta giro horretan murgilduta egiten ditu kazetaritzako ikasketak. 2005ean, eleberriaren orainaldian atxilotzeko arriskuan jartzten duen Libre izeneko irrati librea sortu zuen beste kide batzuekin batera. Ildo horretatik, eleberriaren lehenengo orrialdeetan argitzen da, irrati horren bidez ETarekin kolaboratzea eta terrorismoari gorazarre egitea leporatu dietelako daudela Nagore eta

10 Nagore Vargas Ikasle Abertzaleak-en parte den garaian, hots, 2000ko hamarkadaren hasieran, talde horrek harreman estua zuen ezker abertzalearekin eta mugimendu horren inguruko giro politikoarekin. Ordea, jakitun gara, egun, bi ildo politiko bereizi direla eta, hortaz, alde aurretik argitu nahi genuke, bata bestearen luzapen gisa deskribatzen dugun kasuetan, une historiko jakin hartan zuten loturaz ariko garela.

haren kideak atxilotzeko arriskuan (Azpeitia, 2024). Hain zuzen, 2002an Espainiako Auzitegi Nazionalak, Baltasar Garzón epailearen aginduz, Segi gazte-erakundea legez kanpo utzi zuen Hego Euskal Herrian eta 2007an, berriz, erakunde terroristatzat jo zuen (Agirretxe, 2016).

Nagoreren militantziaren inguruan eraikitako genero-iruditeriari dagokionez, azpimarragarria da bere burua, diskurtsiboki, zaintzaile-roletik eta pasibotasunetik urrun eta militante/borrokalariaren figuratik gertu autokarakterizatzen duela. Esate baterako, eleberriaren hasieran amatasunari uko egiten dio eta, sexualitatea, erreproduzio biologikoarekin baino gehiago, adiskidetasunarekin lotzen du esplizituki (Azpeitia, 2024, 393. or.). Halaber, Nagoreren gaixotasunaren harira, gorputz gaixoaren zaintza banatu egiten da eleberriko pertsonaien artean (aita, ama, Irantzu, Luka), bakoitzak bere modura zaintzaile-rola hartuz eta elkar osatuz. Laburbilduz, eleberri honetan ardura hori ez da, inondik ere, amaren figuren gain osoki eta eksklusiboki geratzen. Dagoeneko adierazgarria da Nagorek «neba-arreben» (Alberdi, 2017, 11. or.) sarean eta zaintzan jartzen duen enfasia eta babes-sare hori, hain zuzen, familia nuklearretik kanpo kokatzea, neba-arreben ahaidetasunarekin lotzen baititu ohaide dituen lagunak. Protagonistak babes-sare trinkoa du eta hori esanguratsua begitantzen zaigu, batez ere, emakume militante isolatuaren estereotipoa gainditzen duelako nabarmen (Azpeitia, 2024, 395. or.). Ordea, Nagore ETako kidea ez bada ere, interesgarria da ETaren inguruko genero-iruditeriaren harremanean nola eraikitzen den, batetik, estatuak terroristatzat jo duen Segi mugimendu politikoaren ingurumariaren parte delako eta, bestalde, gatazka armatuaren iruditeriak pertsonaiaren identitatea zeharkatu duela sarritan azpimarratzen delako. Ildo horretatik, bere burua borrokalari gisa deskribatzen du, garaiko testuinguru historiko eta soziopolitikoari loturik:

80ko eta 90eko hamarkadetako krispazio-giroak guztiz egiten zuen bat nire egitura emozionalarekin: justizia-grina, biolentziarako predisposizioa, autoritatearen kontrako jarrera, gainezka egindako amorrua, territorioaren defentsa hil edo bizikoa, arbasoak menderatzeko premia, ausardiaren gorazarre soziala eta gatazkak zuzenean eta pertsonalki interpelatua sentitzea hain zen naturala nire kasuan, barne- eta kanpo- pultsioen arteko sintoniak normalitate-sentsazio ia etxekoia sortzen baitzidan (Alberdi, 2017, 178.-179. or.).

Militantzia-eredu tradizionalarekin lotutako estereotipoekin jarraituz, ordea, Nagorek atxilotzeko arriskuan dagoela, eraketak egitetik bueltan, polizia zelatan duela somatzen du, eta haien aurrean proiektatzen duen etxeko-andre ezinduaren irudiak eszenari «domestikotasun erridikulua» (Alberdi, 2017, 16. or.) gehitzen diola adierazten du protagonistak. Bestela esanda, militante politiko izateagatik poliziaren jomugan dagoen subjektuak tradizionalki genero femeninoari lotzen zaion jarduera egiten ikusteak etsaiaren aurrean epikotasun oro galarazten diola eta, funtsean, subjektu politikoaren izaera lausotzen diola iradokitzen du Nagorek. Irudi horrek, laburbilduz, zerikusi gutxi du *femme fatale*aren estereotipoarekin, halaxe autokarakterizatzen bada ere Nagore, aurrerago (Alberdi, 2017, 116. or.). Bestalde, Karrik atxilotuta dagoenean entzuten duenez, poliziak Nagore gutxietsi egiten du hiesa diagnostikatu diotela jakitean (Azpeitia, 2024): barre egiten diote, batetik, gaixotasun horrekin lotu izan den

estigma mahai gainean jarritz, «Claro, con la enfermedad de las putas y los yonquis...» eta, bestalde, puta gisa irainduz: «Ya tiene lo que se merece la muy zorra» (Alberdi, 2017, 80. or.)¹¹.

Azkenik, ordea, munstroaren narratibari ere keinu egiten dio Alberdik eleberrian, zapalkuntza-egoera irauliz. *Vagina dentata* aipatzen da (Alberdi, 2017, 150. or.), tradizionalki emakumeak arriskutsu gisa aurkezteko baliatu izan den irudi mitologikoa. Alberdik, ordea, irudikapen patriarkal hori emakumearen botere-sinbolo gisa irudikatzen du eleberrian, hiesaren diagnostikoak protagonistaren sexualitatean sorturiko ezintasunari umoretik heltzen dionean: gisa horretara, jatorriz elementu mitologiko patriarkala dena bereganatzen du (Azpeitia, 2024, 396. or.): «– Entzuten al dion heurre buruari? “Izter artean munstro bat zaukaat”. Irribarre etsi bat atera zidan. – *Vagina dentata* –egin nion txistea» (Alberdi, 2017, 150. or.).

Nagoreren militantzia politikoari dagokionez, gainerako kideekin atxilotua izateko arriskuan dagoenean, halakorik jazoz gero gerta dakiokenea kalkulatu du, eta balizko atxiloteta 2000ko hamarkadaren amaierako testuinguru politikoan kokatu eta dispositibo errepresiboek horren lekuko izandakoek salatutako jokabidea islatzen da testuan (Dañobeitia, 2021; Esteban, 2018): «Ez zegoen sosegurako arrazoi objektiborik batere; azken boladan atxilo eraman zituztenen ehuneko handi batek salatu zituen torturak; irratan bertan lekukotza lazgarriak jaso genituen birrin-birrin egindako gazteen ahotik. Jipoiak. Bortxaketak. Umiliazioak» (Alberdi, 2017, 12. or.). Alabaina, eleberrri honetan, diskurtsiboki, emakumeen militantzia azpimarratzen bada ere, Alberdik eraikitako fikzio literario horren praxian subjektu maskulinoa da kartzelaratu eta, beraz, zentzu horretan behintzat, militantearen irudi hegemonikoa erreproduzitzen da (Azpeitia, 2024).

Horretaz gain, Nagorek gizonekiko harreman afektiboen bidez eskuratzen du homologo soziala, gisa horretara militantzia politikoaren esparruko hegemonia maskulinoa, botere-harremanak eta genero-arrakala agerian utziz. Ildo horretatik, Nagoreren militatzeko motibazioen atzean arrazoi politikoak badaude ere, deskribatzen diren dinamikak estuki loturik daude sexualizazioarekin eta patriarkatuarekin, horixe izanik, nagusiki, pertsonaiak subjektu gisa ahalduzteko eta agentzia politikoa eskuratzeko baliatzen duen bidea. Hala, partzialki betetzen da askotariko lekukotzek eta ikerketek salatutako militatzeko motibazioen inguruko estereotiporik hedatuena; alegia, gizon batenganako harreman heteronormatiboaren bidez murgiltzen dela militantzia politikoan.

Alabaina, Nagorek behin baino gehiagotan azpimarratzen du ETako iruditeria nagusiki maskulinoa, gizonezkoen bileretara doala dioenean (Alberdi, 2017, 248. or.) zein atentatu-saiakera batean harrapatu dituzten «“mutilei”» atxilotetak ekarriko dizkien

11 Artikulu honetan gai hori lantzeko espaziorik ez badugu ere, interesgarria da ohartzea polizien dialogoak gazteleraz plasmatu direla eleberrian. Joera hori ohikoa da euskal gatazka armatuari buruzko testuetan, hala nola Pako Aristiren *Rosa itzuli da* (2018) eleberrian. Hizkuntzaren erabileraren hautu jakin horren gaineko gogoetak irakurtzeko ikus Retolaza (2021) eta Azpeitia (2024).

ondorioen gainean hausnartzen duenean (Alberdi, 2017, 165. or.). Sarritan iruditeria hegemoniko maskulinoa erreproduzitzen bada ere, zenbait puntualizaziok eta iruzkinak egileak iruditeria horri begirada kritikoz erreparatzen diola susmarazten dute. Horren adibide da, esate baterako, aipatu berri den pasartean «“mutilei”» komatxo artean agertzea, hain zuzen ere, salatuz ETako militanteei erreferentzia egitean jorarik ohikoena izan dela, eskusiboki, termino maskulinoetan mintzatzea, itzal eginez talde horren parte izan diren emakumeen presentziari (Dañobeitia, 2021). Horretaz gain, Nagoreren honako adierazpide honek azken baieztapen hori berresten du: «Gauza bera gertatzen zuan goraetaka aritzen ziren matxoekin: sekula arma bat ukitu gabeak denak» (Alberdi, 2017, 187. or.). Kasu horretan, estereotipo maskulino biolentoari egiten zaio erreferentzia, hain zuzen, diskurtsoaren eta praxiaren arteko arrakala seinatzen da, euskal gatazka armatuaren iruditeria hegemoniko maskulinoa eta biolentoa nabarmentzeaz batera (Azpeitia, 2024). Aski esanguratsuak dira protagonistak ETaren behin betiko su-etena iragartzen duen komunikatuaren harira egindako hausnarketak, hain zuzen, genero-iruditeria tradizionalaren kontzientzia eta horren gaineko ikuspegi kritikoa, biak islatzen baitira bertan: «2011ko urriaren 20ko arratsaldeko 19:00etan [...]. Hari musikalean sintonizatuta neukan irratiko albistegian ETak jardun armatua behin betiko uztea erabaki zuela entzun nuen. Adierazpenak emakume ahotsa zeukan. Harritu egin ninduen, eta ez: armak uztearen ideia feminitateari lotua» (Alberdi, 2017, 176. or.).

Iruditeria kolektiboan hedaturiko ETako militantziaren genero-aurreiritzien ondorioz, Nagoreri harridura sortzen dio tradizionalki maskulinotzat jotzen den armen munduan emakumeen presentzia sumatzeak; presentzia hori, gainera, ahotsaren bidez identifikatzen du. Horrenbestez, deigarria da Nagore bera, beste emakume batzuekin batera (Irantzu, kasu), euskal gatazka armatuaren testuinguruan militantea izanik ere, emakume-ahotsa entzuteak harridura sortzea. Bestetik, ordea, «harritu egin ninduen, eta ez» esakunearen bidez, Nagore emakumea hitzari eta ez armari lotzearen ideiaz ari dela susma daiteke. Alegia, horrek protagonistarentzat hautu hori ez dela ausazkoa izan adierazi nahi du eta, hortaz, auzi hori kontraesankor gisa bizi badu ere, kontziente da gatazka armatuetako testuinguruetan hedatu ohi den genero-estereotipo patriarkalez. Orobat, Nagorerentzat ez da kasualitatea emakumeari, bakerantz bidean, hitzaren edo elkarrizketaren bidez lehen adreilua ezartzeko eginkizuna esleitu izana, eta, batez ere, barkamena eskatzekoa, hurrengo pasarte honetan adierazten den moduan: «Berehala hasi zen erreakzio-soka: “aspaldi zen beranduegi”-ren bariazioak. Aurrez prestatuturiko esaldiekin mintzo ziren beren buruaz seguruegi zeuden gizonezko ahotsak. Errendizio femeninoaren aldeko pultsio maskulinoak bete zituen uhinak. Bortxaren aurkako bortxak. Damu emeak, herra arrak» (Alberdi, 2017, 180. or.).

Laburbilduz, eleberriko hainbat pasartek agerian uzten du protagonistak baduela ETaren genero-iruditeria tradizionalaren eta horrek dakarren duen arrakalaren berri, azken pasarte horretan kasu. Bertan, emakumeak bakearekin eta gizonak bortxarekin lotzea auzi patriarkala dela adierazten du esplizituki, ikerketa zientifiko ugarik baieztatutako dutena testura ekarriz (Alcedo, 1996; Aretxaga, 1997; Dañobeitia, 2021; Etxebarrieta & Rodríguez, Z., 2016; Hamilton, 2007; Odriozola, 2016; Poloni-Staudinger & Ortals, 2013; Yuval-Davis, 1997; West, 1997).

Orobat, Alberdik eleberri honetan, hein handi batean, maskulinitatean eta indarkerian oinarrituta eraikitako tradizio kultural eta politikoari kritika egiten dio, funtsean, epikaren kulturari, eta aldi berean zaurgarritasunari lekua egiten dio. Estebanek (2015) egindako gogoetetan oinarrituta, joera horrek gaur egungo egoera soziopolitikoarekin harreman estua du, XX. mende amaierako eta XXI. mende hasierako subjektu politikoaren krisiarekin; alegia, Alberdiren egitasmo literarioak bat egiten du Estebanen honako aurreikuspen hauekin: «una de las características del País Vasco actual parece ser el descentramiento, la desestabilización de los modelos y sujetos políticos clásicos y las identidades, que están dejando de ser identidades y modelos consistentes, compactos, coherentes» (Esteban, 2015, 83. or.). Proposamen berri-tzaile, ez-estatiko eta ez-koherente horiek egiteko, ordea, gorputzaren dimentsioak berebiziko garrantzia du pertsonaiaren karakterizazioan, eta Nagoreren gorputza eleberriko ardatz nagusietako bat da. Dimentsio horrek, halaber, lekukotza errealean isla literario sinesgarrira hurbiltzen du pertsonaia, gorputzasunak sekulako garrantzia eskuratzen baitu. Ildo horretatik, gorputzaren presentzia eta horrek espazioarekin eta, era berean, emozioekin duen harremana azpimarratzen da. Hain zuzen ere, Estebanek (2015, 80. or.), gorputzasunaren eta emozioen arteko harremanari dagokionez, Franco Berardi filosofo italiarraren proposamen teorikoetan oinarrituta adierazten du mugimendu sozialak eta ekintza politikoak, funtsean, fenomeno fisiko, emozional eta erotikoak direla edo, behintzat, hala irakur daitezkeela. Are gehiago, Estebanek artikulua horretan mahai gainean jartzen duen «presentziaren krisia»¹² guztiz presente dago Alberdiren eleberrian, eta Nagoreren kasuan horren eragiletzat jotzen da hiesaren diagnostikoa: protagonistaren bizitzan inflexio-puntu bat ezarri eta bere identitatea eta bizimodua berrasmatzera derrigortzen du. Preseski, presentziaren krisiak berrasmatzeko ematen duen aukera horretan jartzen du enfasia Fernández-Savater filosofoak (apud Esteban, 2015). Beraz, azpimarragarria da Nagoreren presentziaren krisiak denbora-ardatzean bat egiten duela ETArekin behin betiko su-etenaren iragarpenarekin eta hori ere deskribatzen dela protagonistaren presentziaren krisiaren eragile (Azpeitia, 2024).

5. ITXARO BORDAREN SUSMAEZINAK (2019B)

Itxaro Borda (Baiona, 1959) euskal idazle emankorrenetarikoa da. Hainbat arrazoi-rengatik, bere burua bazterreko edo periferiako idazletzat du (Urkiza, 2006), besteak beste, Ipar Euskal Herrikoa izateagatik eta idazteko bertako euskalkiak baliatzeagatik, batez ere, ikuspuntu ez-burgesetik Ipar Euskal Herriko gizarte katolikoaren eta aber-tzalearen moral eta sinesmen hegemonikoei kritika egiteagatik eta begirada feministatik eta *queer*etik eraikitako proposamen literarioak plazaratzeagatik. Hain zuzen ere, azken bi ikerketa-ildoko horiek jorratzen dituzten literatur kritikarien artean interes handia piztu duen idazlea da Borda (Atutxa, 2008, 2010, 2011, 2014; Gabilondo, 2000, 2006; Lasarte, 2011, 2015; Núñez-Betelu, 2001; Retolaza, 2010). Ordea, Gabilondok

12 Laburbilduz, subjektu jakin baten agentzia murriztea dakarren gertakari garrantzitsu batek eragingo luke «presentziaren krisia».

(2006, 259. or.) baieztatu zuen moduan, paradoxikoki, Borda, euskal literaturako egilerik oparoenetariko bat izanagatik, hein batean marjinala izaten jarraitzen du harreari eta kritikari dagokienez. Horren adibide argia da, hain zuzen, artikulu honetan aztertuko den *Susmaezinak* (2019b) eleberriaren harrera kritiko eskasa, prentsako hiru kritika eta kritika akademikorik jaso ez baitu duela gutxi arte (Azpeitia, 2024). Irakurleei dagokienez ere eleberriaren inguruko isiltasuna izan da nagusi.

Euskal gatazka armatuaren gaiari dagokionez, Bordak sarri landu duen gaia da, *Hiruko* (2003) literatur lan hibridoan, *Boga boga* (2012) eleberrian, *Odolak su gabe diraki* (2019a) antzezlanean eta aztergai izango den *Susmaezinak* (2019b) eleberrian, azkenik. Alabaina, horien artean *Susmaezinak* izanik ETako emakume bat protagonista gisa irudikatu duena, azterlan hau eleberri horren analisisan zentratuko da.

Eleberriari dagokionez, Bordak aurretik argitaratutako obretan euskal gatazka armatuaren ikuspegi kritikoa azaldu eta landu badu ere, *Susmaezinak* eleberrian sartu da, estreinakoz, ETako komando baten larruan, bai eta ETako biktimenean ere¹³. Ildo horretatik, Bordaren arabera (Borda apud Lizarralde, 2019), eleberriak ekarpena egiten dio Saizarbitoriak *Martutene* (2012) eleberriarekin ekindako bideari, hots, alde bateko eta besteko istorioak biltzen dituen gatazkari buruzko kontakizunen multzoari. Haatik, oro har Bordaren eleberriak jaso dituen iritzi kritiko apurretan ausardia goraiatu bazaio ere, ausardia hori ez da beti gai horrekin lotu (Egaña, 2019b; Ezkerra, 2019; Lizarralde, 2019)¹⁴.

Eleberriaren egiturari dagokionez, hogeita bost atal laburretan egituratuta dago, eta lehenengo eta azken ataletan gainerakoetan somatzen ez den narratzailea mintzo da: bi atal horiek hitzaurre eta epilogo forma hartzen dute. Narratzaile horrek lehenengo pertsona darabil eta, besteak beste, Bordak Lizarralderi egindako baieztapenek figura hori liburuaren egilearengandik gertu kokatzera garamatza: «bi atal horiek erakusten dute nobela hau nola idatzia izan den» (Borda apud Lizarralde, 2019). Hipotesi hori indartzen du bi atal horietan identifikatutako elementu autoerreferentzialen presentziak, besteak beste, Carmen izeneko lagunaren agerpenak zein eleberrian Otsabide herria agertzeak, biak ala biak Bordaren literatur ekoizpenean presentzia handiko elementuak (Azpeitia, 2024). Gainerako atalak hirugarren pertsona darabilen narratzaile orojakile eta sumagaitzak narratzen ditu, eta fokalizazio-aldaketen bidez Eraunsi komandoko kideen eta beren biktimen ikuspegiak erakusten.

Hortaz, nobelaren barruko nobelagileak jakin berri du Felix Sutarregi ETako Eraunsi komando ibiltariko buru ohia, kartzelan urte luzez egon ostean, libre gelditu dela eta, horren harira, euskal gatazka armatuaren gaineko eleberri bat idaztearen ideia

13 Hain zuzen ere, biktimen larruan jarri izana azpimarratu dute bai Bordak berak eta baita Jorge Giménez editoreak ere, egilearen aburuz horixe izanik eleberriarekin egindako ekarpenik neketsu eta baliotsuena (Borda apud Lizarralde, 2019).

14 Giménezek bere ofizioarekiko ausardia azpimarratu dio (Giménez apud Lizarralde, 2019); Ezkerrak (2019), aldiz, ETako biktimen testigantzak etakideen bizipenekin tartekatzeagatik, bata besteari itzalik egin gabe. Ordea, Ibon Egaña (2019b) ETako komando baten larruan sartzeko ahalegina lotu du ausardiarekin.

ernaltzen zaio. Ideia hori, ordea, Carmen lagunarekin partekatzen du, eta nobela hori idazteak sortzen dion bertigoaz, beldurraz eta eginbehar moralaz hausnartzen du. Azken atalean ere eleberria idazten amaitu ostean dituen arrangurez mintzo da egile hori, euskal gatazka armatua ardatz duen eleberri bat idazteak dantzan jartzen dituen mamuez oroitzuz, eta eleberria argitaratzeak ekar diezazkiokeen ondorioez gogoeta eginez. Bidenabar, azpimarragarria da bai nobelaren barruko nobelagileari dagozkion ataletan, bai gainerakoetan, *Jenisjoplin* eleberrian jazo bezala, ETA esplizituki aipatzen dela eleberri guztian zehar. Ez da hala jazotzen emakumezko militanteak irudikatu dituzten obrarik aztertuenetan; alegia, Laura Mintegiren *Nerea eta biok* (1994), Bernardo Atxagaren *Zeru horiek* (1995) eta Arantxa Urretabizkaiaaren *Koaderno gorria* (1998) eleberrietan¹⁵.

Funtsean, metanarratibaz baliatzen da Borda *Susmaezinak* idazteko, eta joera hori aski hedatua da gatazka armatuaren gaia lantzean, lehenago beste idazle batzuek, nagusiki kanonikoek, halaxe egin baitute: Ramon Saizarbitoriak *Hamaika pauso* (1995) eleberrian, Joseba Sarrionandiak *Lagun izoztua* (2001) eleberrian, Bernardo Atxagak *Soinujolearen semea* (2003) eleberrian eta Harkaitz Canok *Twist* (2011) eleberrian, aipatuenak soilik izendatzeagatik. Ildo horretatik, garrantzitsua da azpimarratzea Borda dela euskal gatazka armatuaren oroimenari buruzko eleberri bat idazteko teknika hori darabilen lehen egile ez maskulino-hegemonikoa (Azpeitia, 2024, 448. or.)¹⁶.

Bestalde, gaia jorratzeko baliatutako azpi-genero narratiboak ere badu bere garrantzia; izan ere, gaiaren konplexutasuna gogoan izanik eta, hein batean, istorioaren gordintasun eta gertutasunetik distantzia hartzeko, Bordak thriller amerikarraren kutsua eman nahi dio (Borda apud Lizarralde, 2019). Ibon Egañak ere (2019b) atzeman du hizpide dugun idazmolde horren zantzurik, eta thrillerraren konbentzioek eleberriaren sinesgarritasunari kalte egin ahal izan diotela iradoki du. Alabaina, thrillerretan ohikoak diren elementuen presentziak euskal gatazka armatuan girotutako eleberriaren errealismoaz zalantzarik sor badezake ere, garrantzitsua da azpimarratzea Ipar Irlandako gatazka armatuaren isla literarioa aztertu duten analisietan ondorioztatu dutela thrillerra dela gaia islatzeko gehien baliaturiko azpi-genero narratiboa (Iceton, 2016; Magee, 2001; Steel, 2007).

Eleberriaren argumentuari dagokionez, Bordak bete-betean murgiltzen gaitu 1980eko hamarkadan Ipar Euskal Herrian bizi zen giro nahasian, garaiko motibazio politikoak, eztabaidak eta diskurtso nagusiak irudikatuz: GALEk euskal errefuxiatuen aurka abiatutako errepresio-kanpaina, Iparretarrak taldearen presentzia, euskal komunitateen bizimodua hiriburuan, landa-eremuko bizimodua... Halaber, euskal gatazka armatuaren genealogia maskulinoa gailentzen da testuan, erreferente oro, aipaturiko pertsonalitate zein kultur elementu, maskulinoa baita. Honako pasarte honek transmisio-kate

15 Aldaketa horren inguruko hipotesiak jorratu dira artikuluaaren egilearen doktore-tesian. Ikus Azpeitia (2024).

16 Euskal literaturaren eta gatazka armatuaren oroimenaren idazketan metaidazkuntzak duen esanahi eta pisuaren inguruan genero-ikuspegitik egindako hausnarketak irakurtzeko ikus Azpeitia (2024).

hori bikain laburbiltzen du: «[...] euskal mundua. Sakonetik ezagutzen zuena. Aitatik semera harilkatzen zen hura. Herritarrak iraultzara bultzatzen zituen» (Borda, 2019b, 145. or.), beste toki batean erakutsi bezala (Azpeitia, 2024, 451. or.).

Erauntsi komandoari dagokionez, eskusiboki Ipar Euskal Herriko lau kidek osatzen dute, Felixek, Patxik, Pierrek eta Marianek, alegia. Eleberriaren izenburuak, bidenabar, komando horri egiten dio erreferentzia eta fikziozko komandoa egiatan existitu zen ETako Argala izeneko komandoan oinarritua da. Hamabi urtez jardun zuen, 1978tik 1990era arte, harik eta komandoko buru Henri Parot Sevillara zihoala Guardia Zibilen ohiko kontrol batean harrapatu eta atxilotu zuten arte (Casanova, 2007). Gisa horretara, Bordak, hamarkada batez klandestinitatean eta susmo-izpirik altxa gabe jardun zuen taldearen larruan sartzeko ariketa egin du, partaideen bizi-pen eta gogoetetan sakonduz: zerk bultzatu zituen borroka armatuarekin engaiatzera, zer-nolako harrotasun eta kontraesanak sortzen zizkien gauzatzen zituzten ekintzek, zer-nolako bizimodu paraleloak zituzten atentatuak prestatzen eta egiten ari ez zirenean, nola sentitzen ziren beren errealtatea senide eta lagunei ezkutatzuz, atseginik sentitzen al zuten bizitza bikoitz horiek eramaten eta abar. Alabaina, errealtatean existitu zen komandoan ez zegoen emakumerik, nahiz eta, inoiz, batek edo bestek kolaboratu. Hortaz, Marian pertsonaia Erauntsi komandoko kide izatea Bordak propio hartutako erabakia da, genero-ikuspegitik esanguratsua. Are gehiago kontuan izanik autoreak dagoeneko 2006an euskal gatazkaren iruditeria maskulinoa eta testuinguru horretan nagusi den matxismoa esplizituki salatu zituela, hautu horren atzean ikuspegi feministatik egindako aldarri bat ere badagoelakoan gaude (Azpeitia, 2024, 451.-452. or.).

Marian pertsonaiari dagokionez, Erauntsi komandoko emakume bakarra da, euskal literaturaren baitan gatazka armatuan engaiaturik irudikatu diren pertsonaia femenino guztien artean modurik agerikoenean aktiboki parte hartzen duena. Eleberrian zehar haren komandokideek borroka armatuari gizonen afera irizten badiote ere, akaburako beren onespina lortzen du. Ordea, aurreiritzi horiek hasiera-hasieratik azaleratzen dira, kasu honetan, Felixen fokalizazioaren bidez: «[...] dudak bazituen emazteak borroka armatuan sartzeari zegokionez. Denborak halakoxeak ziren: emakumeen lekua haurren eta adinekoen aldamenean zetzan, erizaintzan, idazkaritzan, irakaskuntzan eta kultura zereginetan, orokorrean. Politika, gauza zikina zen. Are gehiago armak ahurrean eramaten zena» (Borda, 2019b, 49. or.).

Besteak beste, bonba-autoak prestatzen eta leherrarazten, autoak lapurtzen, ziztu bizian gidatzen eta zizpa eskuetan ageri zaigun etakidea da Marian. Militantzia-aroa, gainera, lehen plano narratiboan deskribatzen da. Beraz, gatazka armatuan bete-betean murgildutako pertsonaia dugu, uste osoz jarduten duena: «Bederatzi urte bazen jadanik Erauntsi komandoko kidea zela. [...] Ez zuen damurik. Bere sinesteen arabera gauzetan baze-bilen» (Borda, 2019b, 94. or.). Are gehiago, bizitza bikoitz hori izatea korapilatsua suertatzen bazaio ere, genero-aurreiritzien aurka, bere militantzia ororen ginetik jartzen du: «Zintzotasuna eta egiatasunaren premia aldarrikatu arren, bere egunerokoa partekatzen zuen gizonari gezur galanta sakatzen zion aldi oroz. [...] Baze-kien. Amodioa horrelakoxea zen, onarpena eta galdera gabetasuna. Baina, oinarrian,

Marianek, oroz gain jartzen zuen borroka» (Borda, 2019b, 91. or.). Gainontzeko hiru kideen moduan, bizitza bikoitza du, eta ekintza klandestinoak, familia (Fantxoa bikoitea eta Jesika alaba) eta irakasle-lanarekin uztartzen ditu.

Marianen genero-irudikapenari dagokionez, lehenik eta behin, azpimarragarria da hura dela komandoko eta aipatzen diren gainontzeko ETako militanteen arteko emakume bakarra eta kide maskulino orok, sistematikoki, bere generoa azpimarratzen duela hari erreferentzia egin orduko. Izan ere, eleberrian irudikatzen den euskal gatazka armatuaren genero-iruditeria patriarkala da. Ildo horretatik, behin eta berriro gelditzen dira militante maskulinoen emakumeenganako aurreiritziak agerian. Halaxe ezartzen dio Mariani Kulunka kupulako kideak *Potxola* (Borda, 2019b, 40. or.) ezizena, izen hori bere generoari eta itxura fisikoari lotzen zaiola esplizituki adierazten (Borda, 2019b, 96. or.). Alabaina, Marian ez dago ezizen horrekin konforme, jakin baitaki borroka-gune horren baitako genero-erregimen patriarkalari dagokiola. Are gehiago, ezizenak sortzen dion amorrua esplizituki adierazten du narratzaileak, Marianengan fokalizatuz: «Zer zuten bada testosteronez hanturiko gudari horiek neska guztiak *potxola* deitzeko? Potxola eta txotxola eleen arteko parekotasunak gohaina hazi zion» (Borda, 2019b, 98. or.). Pasarte horrek, bidenabar, Alcedoren (1996, 217. or.) zein Z. Rodríguezen (2017, 435. or.) ikerketetako lekukoek erakunde barruko genero-arrakala arbuizatzeko baliatzen zuten *el imperio del cojonímetro*¹⁷ terminoa oroitarazten du. Ildo horretatik, ETako buruetako bat, Zemai, lau komandokideei armen erabilerari buruzko azalpenak ematen ari zaizkienean, soilik Mariani zuzentzen zaio adierazita-koaz jabetu den egiaztatzeko. Pertsonaiak armen erabilera genero-aurreiritzien baitan ulertzen duela agerian gelditzen da: «Hau da zuen bizi-segurantz. Lanerako tresna. Ez erabili debaldetan. Ulertu dun Potxola?» (Borda, 2019b, 103. or.). Hain zuzen, Zemaik eman beharreko oharra eta manuak argitu ostean, zereginen ardura banaketa sexista berresten du, erakunde armatuetako lanen banaketa sexista irudikatuz. Ildo horretatik, eleberrian zehar behin baino gehiagotan aipatzen da komando barruan Mariani esleitzen zaiola kozinatze zeregina (Borda, 2019b, 101.-102. or., 110. or.), ETako hainbat lekukok salatutakoa erreproduzituz (Alcedo, 1996; Hamilton, 2007; Odriozola, 2016; Rodríguez, Z., 2017).

Haatik, Erauntsi komandoko kideek zein erakundeko agintariak denbora igaro ahala Marian burkide gisa miresten badute ere, beti dago presente bere genero-gatik gutziespen, trufa edo mesfidantzaren inguruko oharrik, honako pasartean kasu: «ETaren antolakuntza xehean, emazte bat baizik ez zatekeen, baina urteak joan ahala, [...] ohartuak ziren balio handiko uzta zitekeela: ez zuen beldurrik, ez zuen dudatzen, ez zuen gibelera nehoiz egiten. Burdinazko zainak zituen» (Borda, 2019b, 104. or.). Bertan egiten den deskribapenak badu munstroaren narratibaren trazarik: berunezko zainak dituen emakumearen gogortasuna azpimarratzen da.

17 Hala definitzen du terminoa Alcedok: «Se mide la valía de un ser humano por la valentía que demuestre. Valentía que, a veces, se confunde con temeridad. Es un concepto sexista, que marca diferencias entre los géneros; el mismo vocablo empleado alude a la genitalidad masculina e indica que a las mujeres no se les exige ese tipo de demostraciones» (1996, 217. or.).

Alabaina, genero-aurreiritzien aferari jarraikiz, Marianen militante-ibilbidearen has-tapenak eta erakundean sartzeko prozesuan gizonen izandako rola esanguratsuak dira. Izan ere, Baionako giro politikoan Aines lagunaren eskutik murgildu bazen ere, militantzia-ibilbidea gizonen eskutik eskura egiten du, erakunde armatuan sar-tzeko moduaren inguruko genero-aurreiritziak bete-betean konplutuz (Alcedo, 1996; Dañobeitia, 2021; Hamilton, 2007; MacDonald, 1991; O'Keefe, 2013; Odriozola, 2016; Rodríguez, Z., 2017; del Valle et al., 1985). Hain zuzen, Mikel izeneko militan-tearekiko harreman afektibo-sexualaren bidez murgildu zen, lehenik Iparretarrak eta, ondoren ETAn (Borda, 2019b, 94. or.). Mikel, ordea, atxilotu egiten dute eta espetxean dagoela jabetzen da Marian, ia ustekabea, mutilak engainatu egin duela, beste emakume batekin harreman paralelo bat baitauka (Borda, 2019b, 95. or.). Han-dik gutxira, ordea, Hego Euskal Herriko mutil batekin ibiltzen hasten da. Konturatu orduko, ordea, gizon hori ere bat-batean desagertzen da, eta Marian engainatua sen-titzen da ostera. Joseba hori, aurrerago jakingo duenez, ETAn hurbiltzaile bat zen (Borda, 2019b, 97. or.).

Finean, egitate horrek *Jenisjoplin* eleberriaren oihartzuna dakar, Marianekin jazotzen den moduan, gizonen harreman afektibo-sexualen bidez eskuratzen baitu Nagorek militantzia politikorako sarbidea. Gisa horretara, kasu honetan ETAn militantzia-gi-roko hegemonia maskulinoa, botere-harremanak eta genero-arrakala agerian gelditzen dira, eta, hein batean, protagonistaren agentzia zalantzan jartzen da. Alabaina, des-berdintasuna nabarmena da bi pertsonaien kasuen artean; izan ere, Nagore Vargasek berak hautatzen du mundu horretan murgiltzea, eta Marian engainatua da. Hortaz, lehenengoak murgiltze-prozesu horretan, hein batean behintzat, badu agentzia; biga-rrenak ez horrenbeste, ordea (Azpeitia, 2024).

Hala ere, Marianek militante gisa agentzia eskuratzen du eleberrian zehar. Nagore eta Marianen arteko antzekotasunei erreparatuz, deigarria da bai bata eta bai bes-teak botere-harreman patriarkaletan oinarritutako harreman afektibo-sozialak atzean utzi eta beren borroka babesten dituzten baina euren aktiboki parte hartzen ez duten gizonen amaitzen dutela: Nagorek Lukarekin eta Marianek, aldiz, Fantxoarekin. Lukak Nagore kontzienteki babesten du hiesaren aurkako borrokan. Fantxoak, aldiz, Marianen ETArekiko inplikazioaren berri izan gabe babesten du bere jarduna, eta borroka armatua familiarekin eta lanarekin uztartzen laguntzen dio (Azpeitia, 2024). Azken kasuan nabarmen iraultzen dira euskal gatazka armatuaren genero-iruditeria tradizionalaren arabeko aurreiritziak; izan ere, Marian gatazka armatuan engaiatzen da, gizona da etxeaz eta alabaren zaintzaz arduratzen dena. Halako rol-trukerik ikusi gabeak ginen oraino euskal gatazka armatuari buruzko literaturan, eta planteamendu hori esanguratsua da ikuspegi feministatik.

Mariani bizitza klandestinoaren eta bizitza arruntaren arteko talkak, batez ere, ama eta emazte-rolean eragiten dio, militante idealaren eta ama idealaren ideiek presentzia hartzen dute. Erakundeko militante maskulinoek emakumeek borroka armatuan duten lekuaz hausnartzen dutenean, besteak beste, militantzia eta amatasuna bateraezinak direla ondorioztatzen dute, euskal gatazka armatuaren genero-iruditeriarik hedatuena-ren oihartzuna erreproduzituz (Borda, 2019b, 49.-50. or.).

Ordea, azpimarragarria da Marianen kasuan ez dela amatasuna eta militantzia uztartzeak sortzen duen talkaren ondorioz bestelako literatur errepresentazioetan¹⁸ identifikatutako antsietate, agonia zein sufrimendurik topatu. Batetik, pentsatzekoa da diskurtso agonikoaren ausentzia seme-alaben zaintza partekatuari zor zaiola, bai eta bikotekidearen partetik militantziaren arbuiorik ez egoteari ere. Laburbilduz, oro har, euskal gatazka armatuaren genero-iruditerian eta, orokorki, gatazka armatuen testuinguruetan bateraezintzat jo ohi diren bi rolak nahiko modu orekatuan deskribatzen dira Bordaren eleberrian.

Marianen militante-alderdiaren analisiarekin amaitzeko, erakundeko militantziari eta ekintza armatuen exekuzioari dagokionez, aurrekaririk gabeko agentzia duen pertsonaia baten aurrean gaude. Bonba-autoak zartarazten (Borda, 2019b, 122. or.) eta, ostean, autoz zein motoz ihes egiten (Borda, 2019b, 124. or.) deskribatzen da, bai eta, inoiz, poliziaren aurrean genero-estereotipo patriarkalek eskaintzen dioten abantailez baliatzen ere, askotariko gatazka armatuetan parte hartutako emakumezkoek aipaturiko agentzia eskuratzeko estrategia bere eginez: «Alibia galanta zen emakumea, mugak pasatzeko orduan. Kontroletan, irri distiratsuekin ateratzen zituen pasapor-teak. Polita zen eta panpoxa» (Borda, 2019b, 49. or.). Marianen gidatzeko abileziari dagokionez ere, komandoko kideek trufa eginagatik, gidatzeko duen trebezia miresten dute eta horrek askatasuna zein agentzia eskaintzen dizkio pertsonaiari, hainbat lekukok adierazi dutena irudikatuz (Dañobeitia, 2021).

6. ONDORIOAK

Euskal Herrian, gatazka armatua ofizialki amaitu eta urte batzuetara, Mugimendu Feministak eskuratu duen eraginak Euskal Herrian mobilizazio-gaitasun handienetarikoa duen mugimendu soziopolitikoa izatera eramán du, eta bertatik eratorritako diskurtso eta praxi feministak literaturara iristen ari direla nabari da aztertu ditugun Uxue Alberdiren *Jenisjoplin* (2017) eta Itxaro Bordaren *Susmaezinak* (2019) eleberrietan. Orobat, eleberri horietako protagonistei subjektu-izaera eta agentzia zein diskurtso politikoa eskaini zaizkie, euskal narratiba garaikidean emakumezko militante politiko gisa aurrekaririk gabeko karakterizazio-komplexutasuna duten pertsonaiak izanik.

Gatazka armatuaren genero-iruditeria hegemonikoari erreparatuz gero, nahiz eta aztertu diren protagonistek, berez, iruditeria hori arrakalatu, oro har, aztertutako eleberrietan deskribatzen den gatazka armatuaren genealogia nagusiki maskulinoa da. Bada, deigarria da eleberrietan irudikatutako pertsonaien militatzeko motibazioen artean Gerra Zibilaren memoriak ez duela apenas eraginik, nahiz eta Nagore Vargasek kontzientziaren pizgarri gisa «arbasoak mendekatzeko premia» aipatzen duen, zeharka (Alberdi, 2017, 178.-179. or.). Gudarien gerra galduaren memoria familiarraren zama emakumei ez heltzea, euskal literaturaren kasuan, joera zabalago baten parte da

18 Nagusiki, Laura Mintegiren *Nerea eta bioken*, Arantxa Urretabizkaiairen *Koaderno gorrian* eta Yoseba Peñaren *Hariaken* (2018). Ikus Azpeitia (2024).

(Azpeitia, 2024). Ordea, lekukotzek adierazi dute jarauntsi horrek garrantzi handia izan duela gatazka armatuan engaiatzeko arrazoi gisa (Dañobeitia, 2024).

Genero-estereotipoei dagokienez, aztertutako bi eleberrietan estereotipo patriarkalak erreproduzitu dira, nagusiki, *femme fatale*arena. Azpimarragarria da Magee (2001), Steel (2007) eta Ictonek (2016) nabarmendu dutela irudikapen eredu hori aski hedatua dela IRAko emakume militanteei dagokienez. Horrek iradokitzen digu genero-zapalkuntza zehar lerro unibertsala dela gatazka armatuetan gorputza jartzen duten emakumeen inguruko irudikapen literarioetan. Testuok genero-zapalkuntza espezifiko eta hedatuenak erreproduzitu izanak, ordea, Ictonek (2016) adierazitakoaren bidetik, zerikusia du esperientzia errealean inguruko informazio-iturri fidagarrien eskasiarekin eta existitzen direnen hedapen faltarekin. Hori dela eta, batetik, eta konbentzio sozial eta literarioek ezarritako sinesgarritasunaren bila (Gopegui, 2011; Rodriguez, E., 2011; Steel, 2007), existitzen diren diskurtso estereotipatueta jotzen dute idazleek beren pertsonaiak irudikatzeke, batzuetan fikziozko bestelako iturrietara eta hedabideetara, bestetan genero-zapalkuntzaren aldagaia aintzat hartzen ez duten bestelako iturri bibliografiko-historikoetara. Finean, estereotipoek segurtasuna eskaintzen dute askotarikoa den errealtatea azkar hautemateko estrategia gisa, eta beste horrenbeste gertatzen da fikziozko literatur lanetan. Eleberriak arrakasta izan nahi izatekotan, idazlea harrapatuta dago, Gopeguik (2011) esan bezala, hori lortzeko funtsezkoa zaion sinesgarritasuna bahituta baitauka dispositiboak. ETAko emakumeen fikziozko irudikapenez ari garela, ordea, ez da dispositiboa emakume horien inguruko istorioa preso daukana, baizik eta gizartea, oro har. Hain zuzen ere, biolentzia armatua dabilen erakundeko kide izateak bere arau-hauste soziala areagotzen duenez, gizarte osoa zeharkatzen duen sistema patriarkala urratzen du eta problematiko bihurtzen da, edozein izanik ere euskal gatazka armatuaren inguruko posizionamendu ideologikoa. Ondorio bertsuetara heldu dira Ipar Irlandako gatazka armatuan parte hartu duten emakumezko militanteen errealtateak eta irudikapen literarioak genero-ikuspegitik aztertu dituzten ikerketak ere (Icton, 2016; Magee, 2001; Steel, 2007), eta eskuartean dugun auziaren unibertsaltasuna agerian gelditzen da.

7. ERREFERENTZIAK

- Agirretxe, A. (2016). *Topagunez topagune, euskal gazte mugimendu independentistaren bilakaera* [Gradu Amaierako Lana, UPV/EHU]. ADDI. <https://addi.ehu.es/handle/10810/19703>
- Agra Romero, M.X. (2012). Con armas, como armas: la violencia de las mujeres. *Isegoría: Revista de Filosofía Moral y Política*, 46, 49-74. <https://doi.org/10.3989/isegoria.2012.046.02>
- Alberdi, U. (2007). *Aulki bat elurretan*. Elkar.
- Alberdi, U. (2009). *Aulki-jokoa*. Elkar.
- Alberdi, U. (2011). *Ezin dut, eta zer?*. Elkar.
- Alberdi, U. (2013). *Euli-giro*. Susa.
- Alberdi, U. (2015). *Besarkada*. Elkar.
- Alberdi, U. (2017). *Jenisjoplin*. Susa.

- Alberdi, U. (2019). *Kontrako eztarritik*. Susa.
- Alberdi, U. (2020). *Dendaostekoak*. Susa.
- Albizu, L. & Saez de Egilaz, E. (2022). *Gureak ere badira: desira, boterea, epika*. Txalaparta.
- Alcedo, M. (1996). *Militar en ETA: historias de vida y muerte*. Haranburu.
- Aldekoa, I. (2022). La memoria (literaria) de nuestro pasado reciente. Un diálogo intergeneracional. In A. Arcocha & H. Le Bihan (arg.), *Territoires, langues, littératures & cultures: confrontations, lectures, translations* (383.-393. or.). T.I.R.
- Aretxaga, B. (1988). *Los funerales en el nacionalismo radical vasco*. Baroja.
- Aretxaga, B. (1997). *Shattering silence: women, nationalism, and political subjectivity in Northern Ireland*. Princeton University Press.
- Aristi, P. (2018). *Rosa itzuli da*. Erein.
- Atutxa, I. (2008). Itxaro Borda bestaldetik: mugako identitate baten sorrera. *Egan*, 3-4, 5-19.
- Atutxa, I. (2010). Itxaro Borda bestaldetik: mugako identitate baten sorrera. In I. Egaña (arg.), *Desira desordenatuak: queer irakurketak (euskal) literaturaz* (231.-248. or.). Utriusque Vasconiae.
- Atutxa, I. (2011). Hacia una «queer Basque nation» desde la poesía de Itxaro Borda. *Lectora: Revista de Dones i Textualitat*, 17, 199-220.
- Atutxa, I. (2014). *Sabotajes de la cultura vasca. Acerca de la nación encima del canon y hacia una nación-otra bajo tachadura* [Doktore-tesia, Universitat de Valencia]. Roderic. <http://hdl.handle.net/10550/41403>
- Atutxa, I. (2022). *Barbaroak eta zibilizatuak: euskal gatazken eskuliburu materialista*. Txalaparta.
- Atutxa, I. & Retolaza, I. (arg.). (2021). *Indarkeriak dantzatzera behartzen gaituzte: gatazka armatuaren irakurketa feministak*. UEU.
- Atxaga, B. (1995). *Zeru horiek*. Erein.
- Atxaga, B. (2003). *Soinujolearen semea*. Pamiela.
- Azpeitia, L. (2021). *Jenisjoplin: gatazka politikoek zeharkatutako nortasun-eraldaketa bat*. In I. Atutxa & I. Retolaza (arg.), *Indarkeriak dantzatzera behartzen gaituzte. Gatazka armatuaren irakurketa feministak* (211.-229 or.). UEU.
- Azpeitia, L. (2023). *Jenisjoplin: conflictos políticos que atraviesan la identidad de un personaje literario*. In T. Fernández, F.J. Santiago-Guervós & M. Soler (arg.), *Cine, literatura y otras artes al servicio de las ideologías* (25.-34. or.). Peter Lang.
- Azpeitia, L. (2024). *Gatazka armatuaren oroimena euskarazko narratiba garaikidean genero ikasketen argitan* [Doktore-tesia, UPV/EHU]. ADDI. <https://addi.ehu.es/handle/10810/69550>
- Borda, I. (2003). *Hiruko*. Alberdania.
- Borda, I. (2012). *Boga boga*. Susa.
- Borda, I. (2019a) *Odolak su gabe diraki*. Maiatz.
- Borda, I. (2019b) *Susmaezinak*. Alberdania.
- Bugnon, F. (2011). *La violence politique au prisme du genre à travers la presse française (1970-1994)* [Doktore-tesia, Université d'Angers]. HAL. <https://theses.hal.science/tel-00641911>

- Cano, H. (2011). *Twist*. Susa.
- Casanova, I. (2007). *ETA 1958-2008: medio siglo de historia*. Txalaparta.
- Dañobeitia, O. (2021). 90eko hamarkadako Ezker Abertzaleko emakumeen bizipenak: genero-erregimen ezberdinen arteko dantza(n). In I. Atutxa & I. Retolaza (arg.), *Indarkeriak dantzatzera behartzen gaituzte: gatazka armatuaren irakurketa feministak* (45.-102. or.). UEU.
- Dañobeitia, O. (2024). *Militantzia eta errepresio politikoaren azterketa feminista bat. 90eko Ezker Abertzaleko emakumeen kasua* [Doktore-tesia, UPV/EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/68567>
- Dollimore, J. & Sinfield, A. (1985). *Political Shakespeare: essays in cultural materialism*. Manchester University Press.
- Egaña, I. (2019a). Heridas que hablan: sujeto, género y trauma en la narrativa vasca. *Journal of Catalan Studies, Extra* 21, 54-71.
- Egaña, I. (2019b, urriak 26). B aldeak. *Deia*. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=7835>
- EHBF & Emagin. (2017). *Hau ez da gure bakea. Euskal Herriko gatazka eta emakume preso politikoaren inguruko irakurketa feministak*. EHBF; Emagin.
- Esteban, M.L. (2015). La reformulación de la política, el activismo y la etnografía. Esbozo de una antropología somática y vulnerable. *Ankulegi*, 19, 75-93.
- Esteban, M.L. (2017). *Feminismoa eta politikaren eraldaketak*. Susa.
- Esteban, M.L. (2018). Herida de política y cárcel. El relato encarnado de una activista. *Revista de Dialectología y Tradiciones Populares*, 73(2), 343-363. <https://doi.org/10.3989/rdtp.2018.02.004>
- Etxebarrieta, O. & Rodríguez, Z. (2016). *Borroka armatua eta kartzelak*. Susa.
- Ezkerra, E. (2019, azaroak 16). Bi aldeetatik begiratuta. *Gara*. <https://kritikak.armiarma.eus/?p=7877>
- Fernández, J. (2020, azaroak 4). «Badirudi autoritatea ematen zaigula soilik feminismoari buruz idazten badugu». *Pikara Magazine*. <https://www.pikaramagazine.com/2020/11/badirudi-autoritatea-ematen-zaigula-soilik-feminismoari-buruz-idazten-badugu/>
- Gabilondo, J. (1999). Travestismo y novela terrorista: masoquismo femenino y deseo en la literatura vasca postnacional. *La Balsa de la Medusa*, 49, 45-76.
- Gabilondo, J. (2000). Itxaro Borda: melancholic migrancy and the writing of a national lesbian self. *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*, 34(2), 291-314.
- Gabilondo, J. (2006). *Nazioaren hondarrak*. UPV/EHU.
- Galardi, M. (2018). *Euskal gatazk(ar)en ertzetako biolentziak: 80-90ko hamarkadetan senide eta lagunak gatazkaren erdigunean izan zituzten andreen memoriaren eta praktika erresistenteen bilketa feminista* [Master Amaierako Lana, UPV/EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/29623>
- Gallagher, A.M, Lubelska, C. & Ryan, L. (2001). *Re-presenting the past: women and history*. Pearson.
- Goikoetxea, J. (2016). Hitzaurrea. In O. Etxebarrieta & Z. Rodríguez, *Borroka armatua eta kartzelak* (9.-11. or.). Susa.
- Goikoetxea, J., Lujanbio, L., Rodríguez, Z. & Garai, E. (2020). *Euskal demokrazia patriarkala*. Elkar.

- Gopegui, B. (2011). *Tiroa kontzertuaren erdian: eleberrietan politikaz aritzeari buruz*. Txalaparta.
- Grieman, P. (2010). *Representing the unnarratable: «Feminist terrorism» and the problem of realism in the novel* [Doktore-tesia, University of Southern California]. USC. <https://doi.org/10.25549/usctheses-m2859>
- Hamilton, C. (2007). *Women and ETA: the gender politics of radical Basque nationalism*. Manchester University Press.
- Iceton, T. (2016). *Troubles women: using creative writing practice to challenge misrepresentations of IRA women in troubles fiction* [Argitaratu gabeko doktore-tesia]. University of Northumbria.
- Juliano, D. (2009). Delito y pecado. La transgresión en femenino. *Política y Sociedad*, 46(1-2), 79-95.
- Kelly, A. (2005). *The thriller and Northern Ireland since 1969: utterly resigned to terror*. Ashgate.
- Kennedy-Andrews, E. (2003). *(De)constructing the North: fiction and the Northern Ireland Troubles since 1969*. Four Courts.
- Lanser, S. (1986). Toward a feminist narratology. *Style*, 20(3), 341-363. https://doi.org/10.1007/978-1-349-14428-0_39
- Lasarte, G. (2011). *Pertsonaia protagonista femeninoen ezaugarriak eta bilakaera euskaral narratiba garaikidean* [Doktore-tesia, UPV/EHU]. ADDI. <https://addi.ehu.es/handle/10810/7847>
- Lasarte, G. (2015). La novela criminal vasca y el lesbianismo: Amaia Ezpeldoi, detective *queer*. In E. Losada & K. Paszkiewicz (arg.), *Tras la pista: narrativa criminal escrita por mujeres* (147.-160. or.). Icaria.
- Lizarralde, M. (2019, urriak 9). Errealitateari so dagoen fikzioa. *Berria*. <https://www.berria.eus/paperekoa/1872/022/001/2019-10-09/errealitateari-so-dagoen-fikzioa.htm>
- MacDonald, E. (1991). *Shoot the women first*. Random House.
- Magee, P. (2001). *Gangsters or guerrillas? Representations of Irish republicans in 'Troubles fiction'*. Beyond the Pale.
- McCann, F. (2012). The good terrorist(s)? Interrogating gender and violence in Ann Devlin's 'Naming the Names' and Anna Burns' No Bones. *Estudios Irlandeses*, 7, 69-78. <https://doi.org/10.24162/ei2012-1839>
- Mintegi, L. (1994). *Nerea eta biok*. Txalaparta.
- Morrissey, B. (2003). *When women kill: questions of agency and subjectivity*. Routledge. <https://doi.org/10.4324/9780203422830>
- Núñez-Betelu, M. (2001). *Género y construcción nacional en las escritoras vascas* [Argitaratu gabeko doktore-tesia]. University of Missouri.
- Odriozola, O. (2016). *Erakunde bat baino gehiago: ETA herri mugimendu gisa (1958-1968)* [Doktore-tesia, UPV/EHU]. ADDI. <https://addi.ehu.es/handle/10810/25190>
- O'Keefe, T. (2013). *Feminist identity development and activism in revolutionary movements*. Palgrave Macmillan.
- Olaziregi, M.J. & Ayerbe, M. (2016). El conflicto de la escritura y la rescritura de la identidad: análisis de la narrativa de escritoras vascas que abordan el conflicto vasco. In K. Moszczyńska-Dürst, K. Kumor, A. Garrido & A. Calderón

- (arg.), *Identidad, género y nuevas subjetividades en las literaturas hispánicas* (45.-66. or.). Instituto de Estudios Ibéricos e Iberoamericanos de la Universidad de Varsovia.
- Ortiz Ceberio, C. & Rodríguez Pérez, M.P. (2020). *Ellas cuentan: representaciones artísticas de la violencia en el País Vasco desde la perspectiva de género*. Dykinson.
- Pelaschiar, L. (1998). *Writing the North: the contemporary novel in Northern Ireland*. Edizioni Parnaso.
- Peña, Y. (2018). *Hariak*. Susa.
- Pérez, E. (2012). Terrorismo y estereotipos de género. *Isegoría: Revista de Filosofía Moral y Política*, 46, 233-247. <https://doi.org/10.3989/isegoria.2012.046.10>
- Poloni-Staudinger, L. & Ortals, C.D. (2013). *Terrorism and violent conflict: women's agency, leadership and responses*. Springer.
- Retolaza, I. (2010). Begirada lesbiarrak Itxaro Bordaren nobelagintzan. In I. Egaña (arg.), *Desira desordenatuak: queer irakurketak (euskal) literaturaz* (125.-137. or.). Utriusque Vasconiae.
- Retolaza, I. (2021). Genero-desplazamenduak euskal nobelagintzan: espetxeari saiheska begiratzeko kokapen literarioak. In I. Atutxa & I. Retolaza (arg.), *Indarkeriak dantzatzera behartzen gaituzte: gatazka armatuaren irakurketa feministak* (129.-186. or.). UEU.
- Retolaza, I. & Serrano, A. (2012). *Koaderno gorria, aitortza baten bidaia*. *Euskera*, 57(3), 705-733. <https://doi.org/10.59866/eia.v57i3.180>
- Rodríguez, Z. (2013). Las mujeres de ETA en la prensa escrita. *Mediatika*, 14, 151-167.
- Rodríguez, Z. (2015). Gatazka, normalizazioa eta feminismoa. *Jakin*, 209, 83-99.
- Rodríguez, Z. (2017). Motivaciones, ingreso y experiencias participativas de las mujeres en ETA. *Política y Sociedad*, 54(2), 421-441. <https://doi.org/10.5209/poso.52741>
- Rodríguez, E. (2011). Hitzaurrea. In B. Gopegui, *Tiroa kontzertuaren erdian: eleberrietan politikaz aritzeari buruz* (7.-23. or.). Txalaparta.
- Rodríguez, E. (2015). Emakumezkoen irudikapena Joseba Sarrionandiaren 1981-2001 bitarteko poesia- eta prosa-lanetan. *Uztaro*, 94, 49-67. <https://doi.org/10.26876/uztaro.94.2015.3>
- Rolston, B. (1989). Mothers, whores and villains: images of women in novels of the Northern Ireland conflict. *Race & Class*, 31, 41-57. <https://doi.org/10.1177/030639688903100104>
- Ruiz Torrado, M. (2016). *Kartzela genero-erakunde bezala: genero-bereizkeriak, erresistentzia-praktikak eta agentzia Euskal Herrian espetxeratutako emakumeen artean* [Doktore-tesia, UPV/EHU]. ADDI. <https://addi.ehu.es/handle/10810/21849>
- Ruiz Torrado, M., Etxebarrieta, O. & Vara, L. (arg.). (2019). *Argi-izpiak txarrantxen artean. 14 begirada kartzela feminismotik birpentsatzeko*. UEU.
- Russ, J. (1971). What can a heroine do? Or why women can't write. In S. Koppelman (arg.), *Images of women in fiction: feminist perspectives* (79.-93. or.). Bowling Green University Popular Press.
- Saizarbitoria, R. (1995). *Hamaika pauso*. Erein.
- Saizarbitoria, R. (2012). *Martutene*. Erein.

- Sarrionandia, J. (2001). *Lagun izoztua*. Elkar.
- Serrano, A. (2019). *1936ko gerra euskal nobelagintzan: memoria ikerketak narratologia kulturalaren ikuspegitik* [Doktore-tesia, UPV/EHU]. ADDI. <https://addi.ehu.es/handle/10810/38590>
- Sjoberg, L. & Gentry, C.E. (2007). *Mothers, monsters, whores: women's violence in global politics*. Zed Books.
- Steel, J. (2007). *Demons, hamlets and femmes fatales: representations of Irish republicanism in popular fiction*. Peter Lang.
- St. Peter, C. (2000). *Changing Ireland: strategies in contemporary women's fiction*. Macmillan.
- Talbot, R. (2001). Myths in the representation of women terrorists. *Éire-Ireland*, 35, 165-186. <https://doi.org/10.1353/eir.2000.0032>
- Urkiza, A. (2006). *Zortzi unibertso, zortzi idazle*. Alberdania.
- Urretabizkaia, A. (1998). *Koaderno gorria*. Erein.
- del Valle, T., Apalategi, J.M., Aretxaga, B., Arregi, B., Babace, I., Díez, M.C., Díez, C., Larrañaga, C., Oiarzabal, A., Pérez, C. & Zuriarrain, I. (1985). *Mujer vasca: imagen y realidad*. Anthropos.
- Velte, S. (2016). La representación de los presos políticos vascos en la prensa española (2011- 2016). *Discurso & Sociedad*, 10(3), 491-544.
- Velte, S. (2023). *Euskal gatazkaren memoria mediatuak: gazteek iragan kolektiboarekiko dituzten pertzepzio eta posizionamendu estrategien analisi diskurtsiboa* [Doktore-tesia, UPV/EHU]. ADDI. <https://addi.ehu.es/handle/10810/62571>
- West, L. (1997). Introduction: feminism constructs nationalism. In L. West (arg.), *Feminist nationalism* (xi.-xxxvi. or.). Routledge.
- White, L. (2005). Introduction. In L. Mintegi, *Nerea and I* (1.-83. or.). Peter Lang.
- Williams, R. (1989). Culture is ordinary. In R. Gable (arg.), *Resources of hope: culture, democracy, socialism* (3.-14. or.). Verso.
- Yuval-Davis, N. (1997). *Gender and nation*. Sage.

Euskal gatazka armatuari buruzko fikzio feministak

La ficción feminista vasca sobre el conflicto armado vasco

Basque feminist fictions on the Basque armed conflict

Mari Jose Olaziregi Alustiza
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU
mj.olaziregi@ehu.eus
<https://orcid.org/0000-0002-2375-8274>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv139.3>

Artikulu hau UPV/EHUko MHLI (Memoria Historikoa Literatura Iberiarretan; mhli.net) ikertalde kontsolidatua egiten ari den IT 1579-22 (Eusko Jaurlaritza) eta PID2021-125952NB-I00 (MICIU/AEI /10.13039/501100011033 & FEDER, EB) ikerketa-proiektuen baitan gauzatu da.

Jasotze data: 2024/09/12. Behin behineko onartze data: 2025/01/28. Behin betiko onartze data: 2025/05/06.



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

LABURPENA

Gure iragan politiko gatazkatsuaren irudikapenek hogeita batgarren mendeko euskal narratiban izan dituzten berezitasunak laburbildu ostean, emakumezko euskal idazle garaikideek gatazka armatuaren errepresentazioari egindako ekarpenaz egiten da hausnarketa artikulua honetan. Zehazki, fikzio feministetan nagusitu den genero-politika nahiz testuen ezaugarri tematiko eta formalak aztertzen dira. Arantxa Urretabizkaia, Itxaro Borda, Karmele Jaio eta Katixa Agirreren eleberrietan barneratuz, maskulinitate eta feminitate berrien aldeko apustua nola bideratzen den aztertzen da, besteak beste.

Gako hitzak: euskal literatura; memoria historikoa; ETA.

RESUMEN

Tras un breve análisis de las características de la narrativa vasca del siglo veintiuno sobre el conflicto armado, este artículo reflexiona sobre la aportación que las escritoras vascas contemporáneas están realizando a la misma. En particular, se analizan la política de género predominante en las ficciones feministas y las peculiaridades temático-formales de las novelas. Las lecturas críticas de las obras de Arantxa Urretabizkaia, Itxaro Borda, Karmele Jaio y Katixa Agirre sirven para ahondar, entre otras cuestiones, en las nuevas masculinidades y feminidades que proponen.

Palabras clave: literatura vasca; memoria histórica; ETA.

ABSTRACT

After a brief analysis of the characteristics of twenty-first century Basque narrative on the armed conflict, this article reflects on the contribution that contemporary Basque women writers are making to it. In particular, it analyses the predominant gender politics in feminist fiction and the thematic-formal peculiarities of the novels. Critical readings of the works of Arantxa Urretabizkaia, Itxaro Borda, Karmele Jaio and Katixa Agirre serve to delve, among other issues, into the new masculinities and femininities they propose.

Keywords: Basque literature; historical memory; ETA.

1. SARRERA. 2. GATAZKA KONTATU XXI. MENDEAN. 3. BIKTIMEN GARAIA. 4. AMATASUNAK. 5. ETXEA DEFENDITZETIK ETXE BIZIGARRIA ERAIKITZERA. 6. ONDORIO LABUR GISA. 7. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

Gauza jakina da nostalgiak blaitzen dituela, maiz, iraganari buruz ditugun oroitzapenak, eta, ezbairik gabe, galdutakoaren eta jada gure eskura ez dagoenaren mira izan ohi dugula. Ez da halako oroimen nostalgikorik izaten, noski, gerren edo gatazka armatuen osteko memoria historikoaz ari garenean. ETaren jardun armatuaren hasierari edo iragan mendean izan zuen garapenari buruzko saiakera batzuk irakurrita berehala konturatzen gara errealitateok lazgarriak izan zirela egiaz, baina, hala eta guztiz ere, ez ditugula ahaztu behar. Idoia Estornés Lasak (1940-), esate baterako, *¿Cómo pudo pasarnos esto?* (2017) galdetzen du bere saiakera sarituan, non frankismo-garaiaren bigarren zatia berreraikitzen baitu; besteak beste, ETaren gorakadari eta horren ondorioei erreparatzen die egileak. Edurne Portelak (1974-), bestalde, bere haurtzaroa eta gaztaroa kontatu dizkigu: garai horien ezaugarri izan ziren ETaren indarkeriaren arorik gogorrena eta estatu espainiarreko segurtasun-indarren errepresioa (Portela, 2016, 17. or.). Dударik gabe, tiro-hotsek durundi egiten dute memoria horietan, eta nekez blaituko ditu nostalgiak baikortasunez.

Euskal gatazka armatuari buruzko memoria-literatura da artikulu honen muina, eta nire asmoa ez da izango gaiak euskal literaturan izan duen garapenaren panorama orokorra aurkeztea –auzi hori beste zenbait argitalpenetan landu baitut dagoeneko (Olaziregi, 2017, 2019)–, baizik eta honako alderdi honetan sakontzea: euskal literatura feminista garaikideak zer ekarpen egin duen gatazkari buruzko fikzioan. Eta *feminista* diot, agerikoa baita artikulu honetan aipatuko ditudan egile eta lanek beste helburu politiko bati ere erantzun diotela: *euskal gatazka armatua* deritzon horretan nagusitu den genero-politika sexista salatzeke helburuari, hain justu.

Alde horretatik, ezer bada azpimarragarria azken urteotan gurean hurbilpen feministatik gatazkaz/gatazkez argitaratu diren ikerlan eta analisisien kopurua da (Atutxa & Retolaza, 2021; Jakin, 2024; Ortiz de Ceberio & Rodríguez, 2020, besteak beste). Ane Villagran Arrastoak ezin hobekiago adierazi du ugaritze hori: «Azken hamarkadan ugaltu egin dira *euskal gatazkaren* inguruko irakurketa kritikoak, ikertzaile feminista askok aldarrikatu baitute azken urteetan genero ikuspegitik egindako *euskal gatazka*-ren eta *bake prozesuaren* inguruko gogoeta baten beharra. Mari Luz Esteban antropologo feministak dioten eran, gizarte-eragile desberdinek testuinguru soziopolitiko berria gatazka hauen lanketarako abagunetzat dute» (Villagran Arrastoa, 2021, 234. or.).

Gatazka politiko armatuaren irakurketa feministen sendotze hori mugimendu feministek Euskal Herrian duten indar eta ahalmenaren erakusle ere badela aitortuz (Villagran Arrastoa, 2021, 235. or.), azken hamarkadako ekimen eta jarduera ugaritan (topaketak, ikastaroak, plataformak, etab.) gatazken (pluralean) analisiaren beharraren aldeko aldarririk azaleratu dira, euskal gatazka politikoak monopolizatu duen arretak gure gizartearen indarrean dauden beste gatazka eta gizarte-desberdintasunak ezkutatu dituela salatuz.

2. GATAZKA KONTATU XXI. MENDEAN

Baldin eta, Maurice Halbwachsek (1968) esan bezala, iraganari buruzko memoria oro, baita memoria indibiduala ere, sozialki eraikitzen bada, argi dago borroka armatuari buruzko euskal literatura euskal gizarteak berak izandako debateak barneratuz garatu dela. Aurreko lanetan esandakoaren ildotik (Olaziregi, 2017, 2019, besteak beste), aipa nezake, esate baterako, bortizkeria armatuaren biktimek protagonismo gero eta handiagoa aldarrikatu dutela, eta, halaber, euskal erakundeek memoria eraikitzeko politika publikoen alde egin dutela, horretarako sortuz joan diren erakundeen bitartez (Gogora Institutua, Nafarroako Memoria Institutua...), eta dekretuak eta deialdiak argitaratu dituztela eragindako kaltearen aitortza egin eta hori osatzeko (Olaziregi, 2017). Bistakoa da ibilbide hori ez dela, inondik ere, erraza izan, gatazka armatuarekin zerikusia duten zehaztasunak, hala nola, biktima-kopurua¹ edo gatazka bera izendatzeko terminologia²

1 Ikerketen eta argitalpenen ugaritasuna deigarria da. Eusko Jaurlaritzak 2013an sustatutako *Euskal kasuan gertaturiko giza eskubideen urraketek buruzko oinarritzko txostena (1960-2013)* delakoak, esaterako, hainbat txostenetatik ateratako ondorioak jasotzen ditu, besteren artean, ETAk, poliziak edo eskuin muturreko talde paramilitarrek eragindako hilen eta zaurituen kopuruak eskainiz. Eusko Jaurlaritzaren eta UPV/EHUko Euskal Kriminologia Institutuaren artean egindakoa da, bestalde, 2017ko «1960tik 2014ra bitartean Euskadin izandako torturaren ikerketa proiektua» (Elizalde, 2024, 248. or.).

2 *Gatazka* terminoa izan da euskal literatur kritikan erabiliena, edo *Gatazka* (G maiuskulaz) (Gabilondo, 2013, 65. or.). Terminoren sorrera eta eragindako kritikei buruzko argudioak eskaini zizkiguten historialariek (Olaziregi, 2019b), baina oraindik ere onarpen zabala duen terminoa dela esan daiteke. Hitzak literaturan duen hedaduraz jabetzeko, begiratu besterik ez dago, kasu, UPV/EHUren Euskara Institutuaren webgunean eskura dauden Ereduzko Prosa Gaur (Sarasola et al., 2009) eta Ereduzko Prosa Dinamikoa (Sarasola et al., 2025) bezalako corpusetan. *Gatazka* hitzarekin batera, *terrorista* edo *terrorismo* hitzak gero eta maizago azaldu dira liburutetan 2001etik aurrera. Bere aldetik, *ETA*, *borroka*, *terrorismoa*, *Gauza*, edo *La Cosa* erabili direla aipatzen du, esaterako, Gabilondok (2013, 65. or.) eta zerrenda hori erraz luza genezake euskal literaturari buruzko gaztelaniazko edo ingelesezko argitalpenak ere kontuan hartuko bagenitu: *ETA terrorism, conflict* (Olaziregi, 2017), *armed conflict of ETA*, *armed struggle of ETA*, *armed struggle, terrorist act* (Kortazar, 2016), etab.

eztabaida eta desadostasun-iturri izan baitira. Desadostasun horiek ospakizun, omenaldi eta bestelakoetan ere azaleratzen dira. Adibide bakar bat jartzekotan, hortxe daude azaroaren 10ean ospatzen den Memoriaren Egunak urtero eragiten dituen desadostasunak.

XXI. mendearen hasierako urteek eztabaida interesgarria ekarri zuen euskal idazleek gatazkaren aurrean izan behar zuten jarreraz eta funtzioaz. Are gehiago, baieztatu zen gatazkari buruz idaztea betebeharra zela haientzat, euskal literaturako gai erabat esportagarri bat izateaz aparte (Egaña & Zelaieta, 2006; Zaldua, 2012). Urteekin, gaiari buruzko fikzio-ekoizpena handituz joan zen eta euskal instituzio literarioaren bermea jasotzen, besteren artean, bere saririk sonatuenetako batek, Euskadi Literatura Sariak, memoria historikoa berreskuratzen zuten lanei egindako aitormenarengatik. 2000. urtetik aurrera sari hori irabazi duten idazleen zerrendari erreparatzen badiogu, argi geratzen da memoria historikoaz diharduten lanek, batez ere 1936ko Gerraz edo euskal gatazka armatuaz mintzo direnek, izandako arrakasta. Halaxe izaten jarraitzen du azken urteotan ere, eta 2022ko deialdian, esaterako, kategoria guztietan emakumezkoak izan ziren irabazle, memoria historikoa eta feminismoa bezalako gaiak presente zeuden sorkuntza-lanekin³.

Esandakoaz bat, gatazkari buruzko eleberrigintzaren bilakaera kontuan hartuz gero, argi dago 1990eko hamarkadan ugaritzen hasten den eleberri-mota honek genero-politika jakin bati erantzun diola. Halaxe dio Eider Rodriguezek:

Laburbilduz, 2000. urtera arte argitaratutako gatazka armatuaren inguruko euskal narratibak erakusten du etakidea dela euskal subjektua, positiboki zein negatiboki identifikatua, eta subjektu horrek maskulinitate hegemonikoa erakusten duela, aipatutako kasuetan izan ezik. Gizonezkoak berak dira kontakizunaren protagonista eta idazle. Bestalde, pertsonaia femeninoak, oro har, ekintzatik eta kontakizunetik kanpo dauden amak, maitaleak edo emazteak dira, pertsonaia pasiboak, subjektu protagonisten laguntzaileak edo apaingarri hutsak, eta ondorioz, gatazka armatuaren kontakizunaren eraikuntzatik kanpo geratzen dira (Rodriguez, 2021, 194. or.).

Horren aurrean, gatazkari buruzko XXI. mendeko euskal narratibak ikuspuntu-aldaketa argia dakar gehiago sakontzen baita indarkeria hamarraldien ondorioetan. Ibon Egañak egoki baieztatu bezala (2015, 4. or.), ekoizpen horretan istorioaren atzealdea osatzen du gatazkak: errealitate konplexu bat da, oinordetzan jaso, eta tramako pertsonaien bizitza baldintzatzen du oraindik ere, tangentialki. Esandakoaz bat, XXI. mendeko gatazkari buruzko euskal literaturak eta, bereziki, su-etenaren ondorengoak, honako ezaugarriok lituzke: «desplaza el foco hacia la periferia, adoptando como perspectiva y/o tema a mujeres, las identidades sexuales no normativas y los niños y adolescentes. Así, el rango de ángulos se amplía al mismo tiempo que se aprecia cierta

3 Honako esteka honetan eskuragai dago sarien webgunea: <https://www.euskadi.eus/euskadi-literatura-sariak-2022/web01-a2kulsus/eu/>. Ikus, esate baterako, 1982tik 2008ra 37 Euskadi sari eman zirela, eta emakumeek horietako 3 baino ez zituztela jaso. 2009tik aurrera, berriz, modalitate gehiago sortu ziren, eta XXI. mendeko literatur kanona ere berritzen joan zen pixkanaka, artikulua honetan aipatu ditugun autoreetako asko barnean hartuz; hala, sarituen zerrenda nabarmen aldatu da ordutik.

inclinación por temas relacionados con la genealogía del conflicto, es decir, los distintos eslabones de su devenir histórico, la (no)transmisión del mismo y la autocrítica y el reparto de responsabilidades» (Elizalde, 2024, 249. or.).

3. BIKTIMEN GARAIA

Esan bezala, XXI. mendean gatazkari buruzko fikzio feministak gora egin du hala kopuruz nola kalitatez. Biktimak erdigunean jarri dira, bai gizartean, bai literaturan, eta, gainera, euskarazko fikzioak helburu berri bat ezarri dio bere buruari: gatazka armatuak ekarritako kalte zuzenen zein albo-kalteen gainean gogoeta egitea. Emakumezkoen argitalpen gehienetan *modus* autobiografikoa nagusitzen da oraindik ere, baina gero eta proposamen gehiagok eskaintzen dute hausnarketa metanarratibo bat tramaren garapenean.

Aipatutako bi elementuok, biktimen protagonismoa eta egitura metanarratiboen erabilera, barneratzen ditu Itxaro Borda (1959-) idazlearen azken urteetako nobelagintzak. Duela gutxi, euskaltzain oso izendatzeko sarrera-hitzaldian (Borda, 2022), baieztatu zuen euskal emakume idazleen belaunaldi jakin bateko kide sentitzen zela: de Beauvoir eta Wittigen diskurtso feministen abaroan 1980ko hamarraldian bere ibilbide literarioa abiatu zuten idazleen belaunaldiko kide, hain zuzen.

«Bortizkeria, idazlea eta zenbait gai oraino» (2006) artikulua ezagunean aurkeztu zigun Bordak gatazkari buruzko literaturak bere ustez izan beharko zukeen funtzioa: «[euskaldunok] biktima gisa aurkezten gaituen 200 urteko historia tragikoaren anbigotasunak salatzea» (Borda, 2006, 32.-33. or.). Helburu horren harira, egileak salatu egin zuen gatazka armatua babesten zutenek ez zutela aitortu nolako kaltea eragin duten (18. or.), eta orobat salatu zuen kontrol soziala eta uniformizazio ideologikoa, ideologia totalitarioak –hala nola gatazka armatua babesten omen zuenak– berekin dakartena (20.-21. or.). Bordak, bestalde, beste bi elementu hauek aipatzen ditu: borrokalariaren rolean nagusitzen den matxismoa (21. or.) eta 1990eko hamarraldian gertatzen den lexiko-aldaketa, hots, *gudari* hitza erabiltzeari utzi eta *terrorista* esaten has-teari dagokiona (22.-23. or.).

Baieztapen horiek kaleratu baino urte batzuk lehenago argitaratua zuen *Hiruko* (2003) obrak helburu argia zuen: hausnarketa hauspotu eta modu horretan euskal gazteriak borroka armatua baztertzeko bidea erraztu (Borda, 2006, 32. or.). Zaila da *Hiruko* genero bakar batean sailkatzen, hiru testu biltzen baititu (nobela labur bat, saiakera bat eta elkarrizketa sokratiko bat), bai eta epilogo bat ere, non autoreak hizpidera ekartzen baititu zenbait erreferentzia teoriko, bere gogoeta gidatu duten aldetik –Arendt (2007), Derridaren *Spectres of Marx* (1994)–. Indarkeria armatuaren iraupe-naren gaineko erantzukizun soziala da liburuiko ideia nagusietako bat, eta bere ustez gatazka armatuak Euskal Herri osoan izan dituen ondorioak jorratzen dira (biktimak, kalte materialak eta immaterialak, pentsamendu kritikoaren desagerpena, atzerapen morala, etab.). Kritika gordina da, eta horren adibide dira nobelaren protagonistaren –ezizenez, *Txoko*– ekintzak inguratzen dituen indarkeria-espinala eta haren atentatuen

ondorio tristeak. Eleberriak erakundeko kideen artean nagusitzen den genero-politika salatzen du, politika horrek emakumeak sexualizatzen dituela azpimarratuz, eta guda-rien «premiak» asetzeko erabiltzen, andreek nahi ez izanda ere.

Susmaezinak (2019) eleberria dugu gatazka armatua erdigunean jartzen duen Bordaren azken urteotako eleberri interesgarriena. Hausnarketa metanarratibo batek ematen dio hasiera eta amaiera nobelari, eta lehenengo lerroetatik adierazten digu narratzaile autofikzionalak biktimen nahiz biktimagileen «egiazko historia» azaltzera deliberatuta dagoela (12. or.). Argi adierazten du bere jardunak ez duela ezabatuko 1980eko hamarkadan Euskal Herria hondatu zuten ekintza bortitzen odol- eta oina-ze-ubera, baina hala ere ezinbestekotzat jotzen duela literatura «noiz ala noiz gogoe-taren labakiak hitzen, elkartasunaren eta jendetasunaren haziz ereiten berriz hasteko. Hori, zerotik abiatuz» (290. or.). Nobelak, bada, Felix, Pierre, Patxi eta Marianek osatzen duten Ipar Euskal Herriko *Erauntsi* komando ibiltari fikzionalaren ibilbidea kontatzen du eta berau idazteko ideia komandoko burua, Felix Sutarregi ETako ekin-tzaile ohia, 30 urteren buruan kartzelarik ateratzen denean sortzen zaio narratzaileari (8. or.). Hasieratik argi adierazten da hamabi urtez «gizon-emazte sozialak» (12. or.) izan zirela komandoko kideak, hau da, inongo susmorik eragiten ez zutenak bizitza bikoitza baitzuten, bata familiaren eta lanaren ingurukoa, eta klandestino ETan, bestea. Idazlearen lana litzateke, beraz, «gera garai haietako tematikak eta gertaka-riak ahalik eta lasterren» (12. or.) birziklatzea. Horretarako, *Susmaezinaken* gatazka armatuak bere gain hartu dituen alderdi askotarikoak jartzen dira testuinguruan: ahotsa ematen die hala biktimei (guardia zibil, militar, atentatuetako biktimak...), nola biktimagileei, «susmaezinak» diren komandokideen bizitza bikoitza islatuz. Bor-tizkeriak blaitzen du eleberriko istorio guztia, esandakoez gain, GALEk egindako tris-kantza- eta terrorismo-ekintza bortitzak, edo Felixek jasten dituen tortura latzak ere azaltzen baitira.

Ibon Egañak (2019) eleberri honetako *Erauntsi* komandoaren hurbileko komandoa aipatu zuen, Henri Parotek eta bestek 1978tik 1990era osatu zuten *Argala* komando itinerantea. Genero-politikaren ikuspuntutik azpimarratzekoa da Marian komando-kideari buruzko zehaztapenak eskaintzen diguten informazioa. Eguneroko bizitzan gaztelania irakasten du lizeo batean, eta Fantxoarekin alaba bat du. Urretabizkaiaren *Koaderno gorriako* (1998) ama militanteari haurrak bahitu eta amatasuna bera uka-tzen bazitzaion, erakundearen logika militar matxista eta misoginoa jarraikiz (Olazi-regi, 2021), Bordaren eleberri honetan pertsonaia femenino hau gai da amatasuna eta militantzia aktiboa uztartzeko. Hala ere, esanguratsuak dira Marianek komandoan dituen ardurak: «afaria eta garbiketa egiteko erabiltzen zuten» (101. or.), «kirolaren pare, borroka armatua gizonezkoan lana zen» (35. or.); edo esleitzen dioten ezinena, «*Potxola*» (98. or.), emakume militanteei esleitutako rol eta irudiekin bat datozenak (Rodríguez & Etxebarrieta, 2016). Orobat, pertsonaia honen karakterizazioak argi erakusten du ETaren antolamendu militarrean (63. or.) «maskota» bat dela (155. or.), gatazka moralik ez duten soldaduen parean (213. or.), emozio eta sentimenduz beteriko izaki ahultzat hartzen dutela, eta bide hori, sentimenduena, baliatu zutela «erakun-dearen sareetara erakartzeko» (97. or.), amu gisara jokatu zuen Joseba senargaiaren bitartez.

Orokorrean, deigarria da biktimagileek hoztasuna azaltzen dutela beren xedeei dagokienez, eta beren ekintzak justifikatzen dituztela; horren kontrakarrean, beren biktimei eta senideei eragiten dieten beldurra eta mina adierazten da etengabe eleberrian. Afektuez eta euren eraginkortasun politikoaz diharduen Laurent Berlanten (2011) liburu ezagunaren izenburua geure eginez, euskal nazioaren bihotzean hamarkadaz hamarkada gorroto eta min kolektiboa nagusi izan direla esango genuke (Berlant, 2011, 23. or.) eta horretaz hausnarketa egitera datorkigula Bordaren *Susmaezinak*. Eta minaren aitortzak eta erreparazioak batzuetan bizitza justuagoa ez dakarrela onartuz ere (Berlant, 2011, 58. or.), bizikidetzarako beharrezko izan daitekeela uste dute Borda bezalako idazleek.

Biktimen minaz dihardu, halaber, labur aipatuko dudan Irati Goikoetxearen (1984-) *Herriak ez du barkatuko* (2021) eleberriak; kasu honetan, ordea, ETako biktima baten alabaren mina deskribatzen zaigu. Goikoetxearen eleberrian Oihanaren istorioa kontatzen da: arte-irakaslea da, bi haur ditu, eta ETak bere aita hil zuen 22 urte lehenago. Nobela, egiaz, Oihanak oraindik ere pairatzen duen minaz mintzo da, min fisikoa, psikikoa eta soziala, eta orobat hitz egiten digu biktimen bakardadeaz, itxi gabeko doluaz eta aitaren presentzia mingarri eta mamuzkoaz. Oihanak ahaleginak egiten ditu arte-sorkuntzaren bitartez min hori bideratzeko eta osatzeko, eta behin eta berriro aipatzen du arteak baduela trauma gainditzeko ahalmen terapeutikoa (*working through* edo elaborazioaren bitartez; La Capra, 2005). Elkarrizketa bat egiten dion Santi antropologoarekin ere biltzen da, eta horri esker bere mina partekatu ahal du ETaren edo GALen indarkeria armatuaren biktimekin. Dakusagunez, mina bere gordintasunean erakustea da eleberri honen xede nagusietakoa, bai eta min horren transmisioaz gogoeta egitea ere. Nola helarazi hurrengo belaunaldiari urtetan metatutako min guztia? Horra eleberriak mahaigaineratzen duen galdera. Goikoetxea, gaur egun, Nafarroako Gobernuko Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Zerbitzuaren zuzendaria da; beraz, nobelaren helburu etikoa bat dator autorearen ardura politikoarekin. Eleberriaren izenburua, berriz, ETako kideen aldeko manifestazioetako kontsigna ezaguna dugu: «Herriak ez du barkatuko». Subjektu *implikatuak* (*implicated subject*) deritze Rothbergekin (2019) biktima eta biktimagile izan gabe rol horiek eragiten/babesten dituzten historia edo gizataldeei.

4. AMATASUNAK

Jakina denez, *amatasuna(k)* hausnarketarako kontzeptu giltzarri bilakatu d(ir)a ikasketak feministen baitan, bai eta, noski, fikzio feminista garaikidean ere. Hala, Elizabeth Podnieks eta Andrea O'Reilly (2010, 5. or.) ikertzaileek ametan zentratzen diren narraitiben xedeaz egin dute galde. Euren aburuz, amen rola eta subjektibotasunak ezagutaraztea eta berriro definitzea litzateke fikzio-lan hauen helburu behinena. Penintsulako literaturan orobat, amatasunaren gaineko hausnarketak modu agerikoan areagotu eta berriro dira iragan mendeko azken hamarralditik aurrera (Ramblado, 2006), eta oinarri gisa hartu dituzte, besteak beste, Adrienne Richen lan teorikoak, hala nola 1979an lehen aldiz agerturiko *Of Woman Born* ezaguna, zeinak amatasuna bizikizun gisara eta instituzio gisara bereizi baitzituen, eta azken honek emakumeak menderatzeko baliatzen dituen mekanismoak azaldu (Rich, 1986). Sara Rudickek (1989), berriz, amen

jokamoldearen eta pentsamenduaren hainbat ezaugarri deskribatu zizkigun zehaztasunez, edo *queer* teoretatik, Elixabete Imaz (2015) bezalako adituek genero-rolen izaera performatiboak familia eredu berriez hausnartzea ahalbidetzen digula azpimarratu dute, amatasunak gizarte instituzioak markatutako zereginei dien zorra azpimarratuz.

Birritan azpimarratu dugu amatasunak euskal literaturan izan duen eta oraindik duen zentraltasuna. Hala erakutsi zuen, orobat, Gema Lasarteren doktore-tesiak (2011): 1979tik 2009ra emakumeek idatzitako eta protagonista femeninoak zituzten 27 euskal nobelen artean, % 90en gaia amatasuna izan zen. Gainera, liburuen % 80k amatasunaren alderdi negatiboak azpimarratzen zituen. Urte batzuen buruan, Lasartek berak *Ultrasounds: Basque Women Writers on Motherhood* (2014) antologia editatu zuen; argitalpen horretan 17 euskal emakumezko idazleren ipuinak biltzen ziren, eta argi geratu zen amatasunak eztabaida feministaren erdigunean jarraitzen zuela. Esandakoaz bat, azken urteotako zenbait ikerketatan, hala nola Ane Villagran Arrastoaren lanean (2021, 265. or.), amatasunaren kontrako diskurtsoak aztertzen dira 2000-2012 artean argitara emandako euskal emakumezko idazleen poesia-bildumetan eta ondorio interesgarriak eskaintzen zaizkigu:

«Familiaren dekonstrukzioa eta *amerri* zapartatua» deitu dugun azken atalean corpuseko olerkietako amatasunaren eta familia-egituraketaren irakurketa-proposamena egin dugu, eta ondorioztatu dugu emakume-ama binomio horren deseirakuntza-nahia ardatz amankomuna dela irakurketara ekarritako olerkietan. Emakumezko ahots poetiko horiek amatasuna eraikuntza soziala dela salatzen dute, are amatasuna zama gisa irudikatzeraino. Hein berean, *amerriaren* mitoak desakralizatzeko nahia ere irakurri dugu olerkietan, familia konfigurazio nuklearra zalantzan jartzearekin batean.

Dakusagunez, amatasunaren kontrako iritzi eta irudi ezkorrek blaitzen dituzte euskal emakumezko idazleen lan ugari, eta bada ezaugarri honen ifrentzua euskal gizartearen jaiotza-tasa baxuan ikusi duenik⁴. Errealitate horrek eragiten duen larritasuna erakundeek azken urteetan abiatu dituzten hainbat ekimenekin konpondu nahi izan da, esate baterako, Eusko Jaurlaritzaren 2018ko *Familia eta haurtzaroaren aldeko euskal ituna* delakoarekin.

Lehenagoko argitalpen batzuetan (Olaziregi, 2021, 2023) aztertu dut zer-nolako garrantzia izan duen amatasunak euskal gatazka armatuaren irakurketa literarioari heltzeko garaian. Zehazki, XX. mendearen amaieran argitaratutako nobela zenbait aipatzen nituen, bereziki Arantxa Urretabizkaiaren *Koaderno gorria* (1998) lan arrakastatsua, eta gure literaturan azken hamarkadetan izan den proposamenik probokatzaileentzat eta berritzaileentzat hartu nuen. Urretabizkaiak, lehenago, *Zergatik panpox* (1979) nobela laburra eskaini zigun; liburu horretako protagonista femeninoa

4 Euskal Autonomia Erkidegoko jaiotze-tasak behera egin du azken hamarraldietan. 1975ean, bada, 19,1 jaiotza izaten ziren mila herritarreko; 2023an, berriz, zenbaki hori 6,1era jaitsi zen: EBko tasarik baxuenetakoa bat da (Eusko Jaurlaritza, 2018).

ere –euskal nobelagintzako lehendabizikoa– ama zen, senarrak hainbat urte lehenago abandonatua, eta bere egunerokoa kontatzen zigun, amultsuki *Panpox* deitzen zuen bere 8 urteko haurrarekin zuen harremana ere testuratzuz. Barne-bakarrizketa luze baten bidez kontatua, emakumearen gorputza bilakatzen zen, Desberdintasunaren Feminismo frantsesaren ildotik, narrazioaren erdigunea. Gorputzetik eta gorputzaz mintzo zen emakumezko horrek, besteren artean, Freuden psikoanalisi falozentrikoa kritikatzeko zuen eta gure eleberrigintzan ezezagunak ziren bizikizunak azaleratzen.

Gerora etorri zen Urretabizkaiaren *Koaderno gorria* nobela, beste ama baten istorioa kontatu ziguna. Kasu horretan, ama hori erakunde armatu bateko militantea zen, luzaro erbestean egondakoa, eta senarrak haurrak bahituak zizkion hainbat urte lehenago. Seme-alabak berreskuratzea erabakitzen duenean hasten da eleberria eta, horretarako, Venezuelara abokatu bat bidaltzen du, haurrak aurki ditzan eta eurentzat idatzi duen gutuna eman diezaien. Deigarriena, oraingoan ere, *Ama* maiuskulaz idazten zuen protagonista honen izena ezezaguna zitzaigula. Esan daiteke amaren rola bera zela auzigai, ez militantzia politikoa. Haurrak berreskuratu nahi ditu, eta euren ama dela frogatu, idazketaren bidez deseraikitzen doan amatasun-bizipena eurei transmitituz. Esandakoaz bat, *Koaderno gorriak* salatu egin zuen estreinako aldiz euskal abertzaletasunak –tradizionalak zein ezkerrekoak– emakumeei atxikitako rola, hots, aberriari dena emango zioten etorkizuneko gudarien amaren rola. Teresa del Valle antropologoari zor diogu genero-politika horren deskribapenik egokienetakoa:

El rol de esposa, compañera, tanto en el primer nacionalismo como en el nacionalismo radical, queda diluido bajo la imagen de ama a la que se asocia con los valores más sagrados aberria, lurra, birjiña. [...] En la «Carta a los intelectuales vascos», publicada por ETA en 1965, es posible establecer una línea de continuidad con el primer nacionalismo en lo que a la visión de la mujer se refiere (del Valle et al., 1985, 253. or.).

Beste modu batera esanda, militante aktiboa izanik ezinezkoa da amatasuna aldarrikatzea, izan ere, «[La ética del héroe redentor] plantea problemas en términos de identificación femenina, porque el héroe mártir es hijo y hermano» (Aretxaga, 2009, 29. or.). Azpimarratzekoa da azken urteotako zenbait narrazio-liburutan, hala nola Goiatz Labandibarren (1985-) *Amez* ipuin-bilduman (2022), amatasuna ulertzeko modu askotarikoetan sakontzen dela berriro ere, baina oraingo honetan, Svetlana Aleksievitxen *Gerrak ez du emakume aurpegirik* (2017) gisako liburu entzutetsuen ildotik, beste alderdi batzuk nabarmentzen dira; esate baterako, emakume borrokalariek gure gertuko historian izan duten ikusgarritasunik eza eta eroritako soldaduen (aiten, senarren, semen) «ama dolutu» gisa esleitu zaien rola. Harago joan gintezke eta esan, adibidez, *Frames of war* (Butler, 2009) azterlanean baieztatzen denaren ildotik, gudu zelaian eroritako emakumeen gorputzak ez direla dolugarriak, zerengatik, emakumeok *mater dolorosa* izatea dute patu: eroritakoengatik negar egitea –eta eroritakoak gizonak dira beti–.

Amatasunari buruzko eleberri garaikideen artean interesgarrienetako bat –zeinak, bidenabar, euskal gatazka armatuaren idazketari buruzko hausnarketa metanarratibo labor interesgarria ere aurkeztzen baitu–, Katixa Agirreren (1981-) bigarren eleberria

da: *Amek ez dute* (2018). Bi planotan dago antolatua. Batek bere haurtxo bikiak hil dituen amaren historia kontatzen du, hilketaren ondoko atxiloketa, epaiketa eta jasotzen duen zigorra. Eleberriaren plano nagusian, berriz, nobelako narratzaile eta protagonista den idazle eta hilabete gutxiko haur baten amak aipatutako infantizidioa narratzen du. Thriller baten gisara, ama batek halako krimen bat zergatik egin lezakeen galderari erantzun nahian abiatzen da narratzailea, baina hori bakarrik ez: amatasunak menderik mende izan duen bilakaeran sakontzeaz gainera, patriarkatuak emakumeen gorputzetan ezartzen duen kontrolaz dihardu, besteren artean haurdunaldiaren eta erditzearen medikalizazioa salatuz. Amatasunaren eta idazketa literarioaren arteko harremana da *Amek ez dute* erdigunean jarri nahi duen hausnarketagaia. Eta horretarako, eleberri honek *entziklopedia* deigarria baliatzen du. Bertan aipatzen dira, esaterako, Assia Esther Wevillen suizidioa eta infantizidioa, bere buruaz beste egin zuten ama idazleen bizitzak (Sylvia Plath), haurrak abandonatu zituztenenak (Muriel Spark), mitoak (*La Llorona*, Medea...); esandakoaz bat, amen «sakrifizioak» (Agirre, 2018, 188. or.) gogoratzen dira, eta *check-list* originalak ere baliatzen, argudio nagusiak laburbiltzeko: «ama gaiztoak vs idazle onak» (175.-176. or.). Narratzailea bere jardunaren balizko hartzaileari zuzentzen zaio: «zu ere eraman izan zaitudalako lurralde lokaztu horretara» (209. or.). Eta narrazioari aitortza tonu deigarria emanez, metairuzkinak egiten ditu etengabe testuaren idazketari buruz: «Baina horretaz gero hitz egingo dut» (83. or.). Horiek guztiek zedarritzen dute infantizidioa den tabuari buruzko kontakizun hori, fikzioak bakarrik eskain dezakeen «egia» (107. or.) irrikatuz. Helburua: «nonbaiten suntsitutako neure izatearen hondarrak» (33. or.) berreraikitzea, hots, narratzailearen identitate literarioa berregitea.

Esandakoaz bat, Agirreren eleberri horrek euskal gatazka armatuaren idazketari buruzko hausnarketa interesgarria ere eskaintzen du Susan Suleimanen aipu sonatuarekin hasten den «Erabakia» izeneko atalean: «Amek ez dute idazten, idatzita daude» (27. or.). Bertan azaltzen zaigunez, eleberri horretako protagonistak Euskadi Saria jaso du *Inbentarioa* izeneko euskal gatazkari buruzko nobela batengatik eta, sariaren ordain ekonomikoa baliatzea erabaki du bere haur txikiaren zainketak uzten dizkion orduak eleberri bat idazten erabiltzeko, hau da, bere sortzaile-nortasuna berreskuratzeko, haurraren sortzaile ez ezik literatur lanen sortzaile izaten jarraitzen duela erakutsi nahi baitio bere buruari. Egiaz, atal horrek ironia handiko testu parodikoan kontatzen digu euskal idazleek gatazka kontatzeari esker eskuratzen omen duten kanonikotasuna. Gainera, *Inbentarioa* eleberrian erabilitako estilo hiperrealista eta itogarria kritikatzeko dira: narrazio hori, hain zuzen, egiazko atentatu batean oinarrituta dagoela jakiten dugu, ETaren Madril komandoak 1985eko irailaren 19an Argentina plazan egindakoa, Eugene Kenneth Brown estatubatuarra hil zuena. Atentatuaren xedea autobus bat zen, zeinetan 24 guardia zibil baitzihoazen: haietako 16 zauritu ziren. Ama izan berri den eleberriaren narratzaile eta protagonistak «urrun» sentitzen du *Inbentarioa*, eta lotsatu egiten da liburu sarituak eta horren osteko promozio-zurrunbiloak hartu zuelako bere bizitzaren erdigunea. Amatasunak aldatu egin du, birrindu egin ditu bere aurreko identitate guztiak: idazlea, langilea, emaztea, alaba, laguna... (33. or.). Sariak dakartzan hemezortzi mila euroak tarteko, kaltetutako identitate horien puska bat behintzat berregiteko aukera izango du, eta, batez ere, literaturaren alkimiari esker (207. or.), beste norbaiten azalean jarriko da berrira.

Ikusten denez, hausnarketa eta kritika interesgarria planteatzen digu *Amek ez dute* eleberriak gatazkari buruzko euskal fikzioaz eta euskal literatura-instituzioak horri ematen dion babesaz. Beste poetika eta helburuei erantzungo dien fikzio baten alde egiten du narratzaileak, eta agian Agirreren lehen eleberria, *Atertu arte itxaron* (2015), genuke kritikatzeko duen poetika «hiperrealistari» ihes egiten dion eleberriaren adibidea. Egileak *road novel* gisara izendatua, bidaia batek egituratzen du trama: 2011ko udan, ETAre su-etenen ostean, Euskadin zehar dabilta liburuaren protagonista Ulia –gasteiztarra, mezzosopranoa eta Musikologiako doktoregaia, Britteni eta pazifismoari buruzko tesia egiten diharduena– eta bere bikotekidea, Gustavo. Egiaz, hiru istorio txirikordatzeko dira eleberrian, eta bakoitzak gatazka bat du erdigunean. Bate-tik, bikote protagonistaren harremana martxoaren 11n Madrilén izandako atentatu islamisten ondoren abiatu zela jakiten dugu: aipamen horri esker, «norabide anitzeko memoria» (*multidirectional memory*) (Rothberg, 2009) baliatzen da euskal gatazka armatuaren irudikapena beste memorien itzalean ere irakurtzeko; bestalde, Uliaren familia-genealogiaren historiak haren gurasoen harremana jartzen digu aurrez aurre: 1976ko martxoaren 3an Gasteizen izandako gertaera dramatikoetan abiatu zen, eta, aitaren kasuan, beste bide bat hartu zuen: ibilbide lazgarri bat egin zuen ETAn eta espetxeratua izan zen. Azkenik, badago hirugarren plano narratibo bat, zeinak modu metanarratiboan aipatzen baitu protagonistaren doktore-tesia, Benjamin Brittenen bizitzari eta Bigarren Mundu Gerran adierazi zuen pazifismoari buruzkoa; hala, sor-kuntza literarioari eta konpromiso politikoari buruzko hausnarketak zabaldu egiten ditu eleberriak. Esan bezala, hiru istorio biltzen dira obran, eta hartzaile testuala nor den argi eta garbi zehaztuta dago: Gustavo. Gainera, esanguratsua da Uliaren aitaren identitatearen aurkikuntza: ETAkidea da eta 980 urteko espetxe-zigorra betetzen ari da atentatu lazgarrietan parte hartzeagatik (atentatu errealek), hala nola Madrilgo Guzmán el Bueno kalean gertatutakoetan.

«Atertu arte itxarotea proposatu duzu; barre egin dizut, inuzente halakoa» (Agirre, 2015, 41. or.). Horra hor narratzaileak bere bikotekideari zuzentzen dion ahots ironi-koa; ederki laburbil lezake nobelaren mezuetakoa bat: atertu arte itxarotea, hots, arazo bati heltzeko une egokiagoa noiz iritsiko zain geratzea, ez da, egiaz, irtenbidea. Eta Uliaren letra larrizko arazoa, ezbaierik gabe, bere bizitza markatu duen «aita absentea» (141. or.) da: «Alabaren karga. Nire aitaren errua leporatuko dut» (186. or.), horra hor eleberriak zer hausnarketa dakarren herentzia politiko bortitzez.

Dakusagunez, *Atertu arte itxaron* eleberriak, mende honetan argitara emandako beste narratiba lan ezagun batzuen antzera (ikus *Martutene*, «Politika albisteak», besteak beste), gatazkaren transmisioaz ere gogoeta interesgarria egiten du eta euren seme-alabei gatazkarekin lotutako iragana transmititu nahi ez dieten amak aurkezten dizkigu. Memoria horren transmisioari uko eginez, Uliaren amak ez dio alabari aitari buruzko egia kontatzen: «Su madre le dijo desde pequeña que su padre murió antes de que naciera, pero más tarde le cuenta la verdad, que resulta para Ulia complicada de asimilar» (Elizalde, 2024, 258. or.). Batez ere, 2010az geroztikako euskal literaturak erakusten du, Elizalderen iritziz, transmisioari buruzko kezka hori, gatazka kontatu / ez kontatzeak izango lituzkeen ondorioak gogoetagai bilakatuz: «Parece que, en definitiva, los escritores vascos han decidido contar: imaginar y narrar qué podría ocurrir

por no contar, qué no podría pasar, cómo quizás daría lo mismo o cómo quizás no es solo cuestión de contar» (Elizalde, 2024, 262. or.).

Esandakoaz gain, zinez da interesgarria hedabideek «euskal arazoa» delakoan izan duten eta duten protagonismoaz egiten den hausnarketa. Uliak, bada, kritikatu egiten ditu komunikabideak, gorpu suntsituen irudiak erakusteagatik atentatu islamisten ostean (55. or.), sentsazionalistak izateagatik eta «terrorearen erreinu» gisako terminoak etengabe darabiltzatelako (87. or.); gainera, eleberrian esaten denez, prentsak, su-etenaren adierazpenaren ostean, jarrera «baikorregia» erakutsi du euskaldunen aldera, eta euskaldunok prentsan izan dugun «gain-esposizioaren ondorioa» dela baieztatzen du Gustavok (96. or.). Are gehiago, honakoa gehituz jarraitzen du: «Ez duzu inoiz pentsatu ETAgatik ez balitz munduan inork ez zuela ezer jakingo *Basque* xarmagarriei buruz?» (97. or.). Bistakoa da izu handiz bizi duela errealtate mediatiko hori Uliak, beldur baita bere aitaren identitateak ez ote dion interes morbosorik sortuko Sarari, Euskadiko «terrore-eszenatokiak (sic) korrituz» dabilen kazetariari (180. or.).

Laburbilduz, *Atertu arte itxaron* eleberriak bide ematen du hamarkadetan luzatu den euskal gatazka armatuak oinordetzan utzitako erantzukizun kolektiboaren inguruan gogoeta egiteko, eta besteren ekintzei dagokien erruduntasuna zamatzat hartzearen injustiziaz pentsatzeko. Izan ere, Hannah Arendtek argudiatu zuen moduan, «Existe una responsabilidad por las cosas que uno no ha hecho, a uno le pueden pedir cuentas por ello. Pero no existe algo así como el sentirse culpable por cosas que han ocurrido sin que uno participase activamente en ellas» (Arendt, 2007, 151. or.).

5. ETXEA DEFENDITZETIK ETXE BIZIGARRIA ERAIKITZERA

Jakina denez, «Nire aitaren etxea defendatuko dut»⁵, dio Gabriel Arestiren (1933-1975) poema famatuak. Etxea defendatzea orobat izan daiteke aberria defendatzea, eta esanahi horri tiraka jaio dira hamaika artelan, hala nola Eduardo Chillidaren eskultura famatua, Gernikan kokatua, eta beste film eta telesail ezagunak, non (gizonezko) gudariak aberriaren alde bizitza emateko gertu ikusi ditugun. Erreferentzia ezagun hori baliatu du Karmele Jaiok (1970-) Euskadi Saria merezi izan zuen *Aitaren etxea* (2019) bere hirugarren eleberraren paratestua osatzeko. Eta zinez asmatu duela esango nuke, etxe horren gainbehera irudikatzen duen fikzio horrek asmatu egiten baitu irudi/sinbolo horren oinarrian dauden adiera politiko nahiz generozkoen gogoeta egiten. Hirugarren eleberria, beraz, lehenago argitaratu zuen *Amaren eskuak* (2006) nobelarekin hainbat gai partekatzen dituen.

Azken eleberri horretan, bigarren mailan agertzen zen euskal gatazkaren gaia (Olaziregi, 2022). Bertan, Nerea protagonistak krisi latza bizi du, bere ama Luisak memoria galdu eta erietxean sartzen dutenean. Apurka-apurka, amaren oroitzapen eskasen

5 *Amaren eskuak* eta *Aitaren etxea* eleberriei buruzko hausnarketa horiek, funtsean, lehenagoko nire artikulubatean esandakoa jasotzen dute (Olaziregi, 2022).

bitartez, Nereak jakingo du amak maitasun-istorio bat izan zuela gaztaroan Germanekin. Bat egiten dute amak eta alabak iraganeko ezkutuko maitasun baten existentzian, Nereak ere ezkutuan gorde baitu ETako militante zen Karlosekin izan zuen harremana. Herrira itzuli da Karlos, justu Nerearen amak krisia duen garaian, eta deigarria da bi emakumeak indarkeriaren biktima direla: amak, batetik, genero-indarkeria jasan zuen bere mutil-lagun zen Germanen aldetik; Nereak, berriz, indarkeria politikoaren albo kalteak pairatu ditu. Baina, funtsean, biak dira gizarte heteropatriarkal baten biktimak, egokitu zaien rol banaketa pairatzen baitute.

Amaren eskuak eleberriak, Mireia Gabilondoren (1965-) zinema-egokitzapenaren aldean, gehiago nabarmentzen du zer-nolako trauma eragin zion Nereari Karlos desagertu izanak. Trauma horrek isiltasunera eramango du, eta senarrari ere ez dio kontatuko Karlosen berri. Euskal gatazka armatuaren bigarren mailako biktimatzat dakusa bere burua Nereak: «Karlos desagertu zenetik, ezin ditut albiste horiek entzun. [ETaren atentatuak] Zauri ireki bat balira bezala sentitzen ditut. Uhin hedakorra urdaileraino iritsiko balitzait bezala» (Jaio, 2006, 75. or.). Eta Karlosen kontzientziaz galdetzen du (Jaio, 2006, 76. or.); biktinek saminik eragiten dioten jakin nahi du, eta urteetako gatazkaren pisua sentitzen duela dio: «Nik ez dut zerikusirik, baina, hala ere, zama handia sentitzen dut nire bizkarrean [...]. Lasaitu ederra, Murtzian edo Oxforden jaiotzea» (Jaio, 2006, 77. or.). Horregatik dio Karlos oroitzean: «Gera zaitez hilobian, Lazaro, gera zaitez» (Jaio, 2006, 94. or.).

Dakusagunez, bi pertsonaia desagertu ditu erdigunean *Amaren eskuak* eleberriak: German eta Karlos, nobelako bi protagonisten maitale ohiak. Eta, desagertuoz aritzeko, poetika fantastikoak baliatzen ditu narratzaileak, euren izaera espektrala eta mamu izaera nabarmenduz. Harkaitz Canoren (1975-) *Twist* (2011) gogoangarrian bezala, fantasmaren bat-bateko agerpenek, *haunting* direlakoek, interpelatu egiten digute, iraganean gertatutakoak oroitarazten baitizkigu bere etorrerarekin. Horregatik da artetagarria Karlosen mamua Nerearentzat, kolpatua sentitzen delako, kaputxadun batek kalean eraso egin izan balio bezala. Poetika fantastikoak, bada, *Aliceren abenturak lurralde miresgarrian* lanari egiten zaizkion etengabeko aipamenen bidez, errealitatea desegonkortzeko balio du, bai eta, Rosemary Jacksonek (1981) literatura fantastikoaren ahalmen iraultzaileari buruz esandakoaren harira, gatazka armatuaren bigarren mailako biktimak ikusgarri egiteko. Kontua ez da 1990eko hamarkadan argitaratutako euskal eleberri ezagunetan bezala gatazkaren zergatiaz galde egitea, bere ondorioez hausnarketa etikoa egitea baizik, biktimagilearen kontzientzia interpelatzea. Nereak bizkarrean daraman «zama» hori gauzatu ez ditugun baina hala ere erruduntasuna sentiarazten diguten delituengatiko erantzukizun politikoari dagokio argiki (Arendt, 2007, 151. or.). Dakusagunez, Agirreren *Atertu arte itxaron* eleberrian kausitzen genuen kezka bera mahaigaineratzen du Jaiok.

Bestelakoak dira *Aitaren etxea* nobelak egiten dizkigun galderak, kasu honetan genero-rolak gure bizitzetan daukaten eraginari buruzko gogoeta baita abiapuntua. Horretarako, pertsonaia gutxi batzuen inguruan egituratzen da istorioa, eta txandakatur doazen hirugarren eta bigarren pertsonako narratzaileen bitartez kontaktzen. Ismael da protagonista nagusietako bat, Jasone emaztearekin batera; idazlea da eta krisian dago

duela pare bat urtetik, ez baita gai euskal gatazkari buruz idatzi behar duen eleberrirako ahots egokia aurkitzeko. Egoerak okerrera egingo du gurasoen etxean amari ezbeharra gertatzen zaionean eta erietxera eraman behar dutenean. Ismaelek etxean bakarrik geratu den aita zaindu beharko du eta egoera horretan familia-bizitzako oroitzapen traumatikoak piztuko zaizkio. Jasone dugu bigarren protagonista nagusia, Ismaelen emazte eta haren nobelen lehen irakurle/zuzentzailea. Alde batera utzi behar izan zituen bere gaitasun eta anbizio literarioak, haurrak izan eta familia zaintzea erabaki zuenean. Horregatik esaten du urtetan hibernatu egin zuela (Jaio, 2019, 87. or.), bere bizitza baldintzatu duten usainak «platano eta gailetena, zapi hezeena, bizkotxoak egiten dituen amarena» (85. or.) izan baitira. Azken hilabeteetan eleberri bat idazten ibili da, ezkutuan. Azkenik, bere adiskide eta koinata, Libe, dugu eleberriko hirugarren pertsonaia nagusia: Berlinen bizi da baina ama zaintzeko itzuli da etxera. Gaztaroko giro politiko itogarriaren ondorioz, eta jakinik bere identitate lesbikoa ez zetorrela bat euskal ezker abertzalearen etika maskulinizatzailearekin, Alemaniako hiriburura erbestera zen. «Herriak heroiak behar zituen, ez tortillerak» (97. or.) dio Libek. Bere izaera bat etorri arren Sabino Aranaren *Libe* (1903) melodrama historikoko protagonistaren ezaugarri ugarirekin (ausardia, abertzaletasuna, kemenak), ez du bere konpromiso politikoarekin aurrera jarraituko, euskal emakumezkoei abertzaletasunak esleitutako rola, hots, gudariaren euskarri izatearena, ez datorrelako bat berarekin.

Liberen kontrakarrean, Aitorrek, bigarren mailako pertsonaiak, zeina Ismaelen lehengusua den eta bat datorren familiaburuaren gustuekin, borroka abertzalearen «egiazko» heroia ordezkatzeko du: mendizale eta ehiztari iaioa, trebea armekin, ez du beldurrik, eta, oroz gain, ez da koldarra, Ismael bezalaxe. Aitorrek eta Ismaelen aitak maskulinitate hegemonikoa ordezkatzeko lukete eleberrian, indar fisikoan, ausardian eta segurtasunean gorpuztua; gainera, ehiza-zaleak dira biak, eta San Inazioaren mar-txa dute gustuko, non jesuiten ordenaren sortzailea deabruaren aurka altxatzen baita armatan. Maskulinitate-modu hori, Pierre Bourdieuk adierazi bezala, femeninoa denarekiko beldurrean oinarritzen da (Bourdieu, 2002, 71. or.). *Aitaren etxeak* hegemonikoak ez diren beste maskulinitateen alde egiten du eta horregatik da deigarria nobelaren paratestuan ageri den eskaintza, hots, «Iñigo Muguruzari. Gizon berri guztiei» (7. or.).

Generoaren ikuspegi arautzaileak agintzen du pertsonaiok guztiok bizi eta mugitzen diren espazio sozial zein pribatuetan: etxean, mendian, gizartean. Aitorrek ordezkatzeko du Ismaelek betetzen ez duen guztia, eta horregatik gorroto du bere lehengusua sutsuki Ismaelek, haren aurrean (borrokarako) guztiz ezgai sentitzen delako. Aitaren txakurra-ekin identifikatzeko du bere burua Ismaelek: ehizarako balio ez zuelako (16. or.) aitak sakrifikatuko duen animaliarekin.

Gatazkaren idazketari buruzko gogoeta metanarratiboa da, finean, Karmele Jaiok, eleberri honetan aurkezten diguna: Ismaelek ezin dio idazketa horri eutsi beti egon delako gatazkatik urrun eta ez duelako bertatik bertara ezagutzen gatazkak eragindako mina (63. or.); hala, ez du uste gai denik ezagutzen ez duen zerbaiti buruz idazteko: indarkeria armatuari buruz, zehazki (17. or.). Orobat, ez du ezagutzen nobelaren jorratzen den bigarren indarkeria ere: genero-indarkeria. Horregatik ez da gai bere eleberriaren hasieran kontatu nahi duen emakume baten bortxaketa kontatzeko,

egiantzekotasunik ez du idazten ahalegintzen den ezerk, emazteak esaten dion bezala, «zuei [gizonezkoei] zailagoa egiten zaizue[lako] emakume baten azalean sartzea» (57. or.). Jasonek, ordea, erraz lortzen du bere eleberria hasten duen bortxaketa kontatzea. Are gehiago, Jasonek baieztatzen du emakume orok irudika lezakeela nola bortxatzen duten, eta bortxaketaren beldurrak, emakumeen artean belaunaldiz belaunaldi transmititu denak, berekin ekarri duela emakumeek neurriak hartzea eta beren burua defendatzea. Emakumeen gorputza baldin bada patriarkatua eraikitzen den lurraldea (Rich, 2006), emakumearen gorputz bortxatuaren lurraldean eraikitzen du Jaiok bere nobelaren unibertsoa, eta horren bidez salatzen du hainbat mende iraun duen zapalkuntza matxista; horretan, gainera, ahots berri bat aldarrikatzen du beretzat, ahots ahaldundu bat, zeinak narratibaren lehen pertsona erabiltzen duen beldurrik gabe, autoritatez.

Argi dago indarkeria politikoa eta genero-indarkeria eskuz esku doazela *Aitaren etxean* eta, hala, emakumeek heteropatriarkatuaren aldetik jasotzen duten menderakuntza eta azpiratzea salatzen dituela. Nobela honetan luze eta zabal agertzen dira beldurra eta mina, eta Sara Ahmeden afektuen teoritik interpretatuko bagenu, emoziook politikoki izan lezaketen funtzioaren berri izango genuke. Horretarako, kritikari feminista britaniarrak ulertzen dituen moduan ulertuko ditugu emozioak, hau da, «not as interior psychological states, but as social and cultural practices» (Ahmed, 2004, 9. or.). Mina eta beldurra dira Ahmeden 2004ko liburu ezagunean aztertzen diren sei emozioetatik bi, eta egileak esaten duen modura, emakumezkoek pairatu eta salaturako min eta beldurrek *gu* kolektibo feministaren sorkuntza ahalbidetzen dute: «Experiences of pain may compel the movement towards feminism, as a politics which moves against social and physical hurt. [...] Crucially, responding to pain depends on speaking about pain, and such speech acts are the condition for the formation of a “we”, made up of different stories of pain» (Ahmed, 2004, 174. or.).

Aitaren etxea eleberrian ikusiko dugunez, familiako giroan sortzen dira nagusiki beldur eta min horiek, zorigaitzo-artxiboa ere baden familiaren baitan, non heteronormatibitateak bere menderakuntza gauzatzen baitu zoriontasunaren promesaren pean (Ahmed, 2010).

Esanenezake Jaiok bere eleberrian aipatzen duen etxea krisian dagoela: krisi hori, bada, etxean bizi ziren emakumeen gaixotasunak edo ahalduntzeak eragin du. Etxe hori eta, ondorioz, aberri hori, ez dute iraunarazi nahi bertan bizi diren emakumeek, ez behintzat ordura arte nagusitu den genero-politikaren barruan. Berdin generorake Euskadi Saria irabazi zuen Arantxa Urretabizkaiaren *Azken etxea* (2022) eleberriaz. Bertan, etxea ez da jada aitarena, emakume zahar ahaldundu batena baizik. Aberriaren aldeko borroka irudikatzen duen gatazka («aitaren etxea defendatuko dut»), bigarren plano batera pasa da eta feminismoak azken hamarkadetan jomugan duen beste gatazka garrantzitsu batekin ordezkatu du Urretabizkaiak: bere zahartzaroaz erabaki eta gozatu nahi duen emakume ahaldunduaren etxearekin. Ondoko lerroetan ikusiko dugunez, berrikuntza formal eta tematiko ugari dakar eleberriak, eta gatazka armatua azaltzen bada ere, ez da istorioko gai zentrala, nahiz eta zuzenean eragiten dion tramari.

Alderdi formalari dagokionez, nobela urrundu egiten da autorearen aurreko lanen ezaugarrietatik: *modus* autobiografikotik ihes eginda, autoritatez mintzo den hirugarren pertsonako narratzailea baliatzen du, tonu errealista eta urrunean, fokalizazioaren etengabeko mugimenduekin jolastuz. Eleberriko protagonistak –«Ilegorria» deitzen diote, ezizenez–, bere azken etxea erosi nahi du Hendaian, pinu garaiz inguratua, bertako lorategiak osatzen duen *locus amoenusean* bere azken urteak bizitzeko. Bi identitate ditu, bi mozorroren bidez ezkututzen dituenak: batetik, emakume dotore eta boteretu bat, 70 urteren bueltakoa, ilegorria eta baliabide ekonomikoen jabea, Mme. Segurette deitzen dutena (Urretabizkaia, 2022, 13. or., 39. or., etab.); eta, bestalde, emakume enigmatiko bat, txandala eta txanoa soinean txakurra ateratzen duena, eta Asun Ansa Aldazabal izena duena (21. or.). Emakumearen auzokidea polizia ohi bat da, erretiroa hartutakoa, eta etengabe zelatzen du bere ustezko auzokideen etxea, baina ez daki pertsona bat eta bakarra direla egiaz.

Azken etxeak thrillerren ezaugarriak ditu, eta, pixkana-pixkana, emakumearen inguruko misterioa argituko dugu: iragan klandestino ezkertiar eta abertzalea izan zuen Parisen, eta hortik ihes egin zuen bere kidearekin batera –Karlos, Modigliani-ren margoen faltsutzaile bat–; hori dena ezkutatzeko, lagun anarkisten sare baten laguntza jaso zuen: haiek eman zioten pasaporte berri bat, gaur egun baliatzen duen Mme. Segurette izenarekin. Baina, egiaz, Urretabizkaia-ren eleberriak zahartzaroaren gaia jartzen digu erdigunean, lehenago ere *Hiru mariak* (2010) nobelan egin zuen bezala: zahartzaroa ez iragandakoaren begirada nostalgikoan bizitzeko, etorkizuneko erronka eta egitasmoekin gozatzeko baizik. Eleberriko epigrafean aipatzen den autoreak, Rita Levi-Montalcini (1909-2012), esaten zuen moduan: «En el juego de la vida el as es la capacidad de utilizar las propias actividades mentales y psíquicas, sobre todo en la fase senil» (Levi-Montalcini, 1999, 165. or.). Zahartzaroa ez da, ez *Hiru mariak* eleberriko protagonistentzat, ez eta *Azken etxeako*arentzat ere, gainbehera-garai bat; ez da ilusioak galtzen diren sasoi bat, ez eta garai bat ere non feminitatea eta erakargarritasuna desagertzen diren, Simone de Beauvoirren liburu sonatuak zioen eran (1978).

Asunek ez dio men egiten presio sozialari eta «Act Your Age» (Laz, 1998) erako aginduei, zeinak saiatzen baitira emakumeen zahartzaroko jokamoldeak arautzen. Asunek bere burua berrasmutzen du, eta gizarteak adineko emakumeei ezartzen dizkien mugen aurrean, Brownek zioen eran, horiek gainditzeko behar adina identitate sortzen ditu. «The older women must, in effect, redesign herself in her own vision –a vision that is neither phallogocentric nor ageist» (Browne, 1998, 219. or.). Mendebaldean emakumeen menderakuntzaren kode kulturala osatzen duten elementu nagusietatik urrun (amodio erromantikoa, familia, besteen zaintza) (Esteban, 2011), Asunek bere identitatea faltsutzen du eta delituak gauzatzen ditu zahartzaroa etxe berri bateko erosotasunean igarotzeko, kontenplaziozko bizitzaz gozatuz eta lorategian gogoko dituen landareak (mimosak, hortentsiak, wiseriak...) hazten ikusiz. «Errotze[aren]» (44. or.) ideia da behin eta berriro eleberri honetan errepikatzen dena eta dela zahartzaroan emakume honek erakusten duen kemenagatik, dela lorategiak duen garrantziagatik, Urretabizkaia miesten duen obra batera hurbiltzen gaitu *Azken etxeak*, Vita Sackville-Westen *All Passion Spent* (1931) eleberri gogoangarrira. Idazle britaniarraren eleberriko protagonistak,

Lady Slanek, bere bizitzaren kontrola izan nahi du 88 urterekin alarguntzen denean eta Urretabizkaiaren eleberriko protagonistaren antzera, naturaz inguratutako etxetxo batean kontenplaziozko bizitzaz gozatu:

Lorategira biltzen du arreta. Ondo asko daki bizitzak ez diola epe luzeko lorategia lantzeko denborarik emango, naturari ez zaiola axola lorezainak presa duen ala ez. [...] Garaiz konpontzen baditu konpondu behar dituenak, datorren urtearen hasieran ikusiko du mimosa loretan urte hasieran. Ez du ahalegin handia egin behar irudikatzeke galerian dagoela kulunkaulki batean jarria, mantatxo bat belaun gainean, txakurra hurbil, ilargia noiz atera zain, azkenean inolako kezkarik gabe, ez iraganetik ez etorkizunetik (Urretabizkaia, 2022, 34. or.).

Bestalde, eleberrian «iragana lurperatzeko» desira (24. or.) azpimarratzen da, eta iragan horrek, euskal gatazka armatua ere ukitzen du, ezbairik gabe. Izan ere, erosi duen pinuen etxean hilotz bat aurkituko du protagonistak, gerora jakiten dugunez, ETAn ibilitako emakumezko adinkide bat, autopsiaren arabera, bihotzekoak jota hil dena (81. or.). Zelatariaren ahotan entzuten ditugu gertakari honek eragindako harridura, militante ohiek betiko babesa ez dutelako. Argi hitz egiten da terrorismoaz, eta Hegoaldetik ekarritako arazotzat jotzen du polizia ohi frantses honek:

Iraganean, ordea, terrorismoa beti iruditu zaio hegoaldetik inportatutako arazoa, bertako euskaldunak apenas ukitu dituenak. Gogoan du txikitik gurasoekin batera ezagututako folklorea, Frantziaren osotasuna inolaz ere kolokan jartzen ez zuena. Kantuak, dantzak, festak, are ikurriña. Sinpleegiak ur sakonetan murgiltzeko.

Hegoaldetik ihes eginda etorritakoek aldatu zuten egoera. Baina gaur zelatari lanetara mugatua dagoen jerdarmeari ez zitzaion apenas arazo horri aurre egiteko lana suertatu. [...]. Azkenean, ospe gehiena terrorismoaren kontra jardun dutenengana joan da, ez droga trafikatzailen kontra borrokan aritu direnengana. [...] Gorpua jatorri horretakoa bazen, berandu hil da, hobe gaztetan hil izan balitz, pentsatzen du jendarmeak (Urretabizkaia, 2022, 82.-83. or.).

Ondorioz, McCrone eta Jefferyk plazaratzen dituzten ideiek ikuspegi argigarria eskaintzen dute ulertzeko nola funtzionatzen duten emakumeen identitateak eta genero-harremanak nazionalismoaren (eta haren eraldaketa ideologikoen) barruan. Emakumeek ez dute soilik etxeko eta familiako zereginen ardura; baizik eta, hainbat testuingurutan, borroka nazionalista eta nazio eraikuntzako prozesuetan esanguraz parte hartu dute, aitortu gabeko subjektu politiko gisa. Testuinguru horretan, euskal emakume idazleek, beren literatur lanen bidez, rol horien berrinterpretazio kritikoa proposatzen dute, eta horren bidez nazioaren iruditeria tradizionalaren deseraikuntza eta berreraikuntza sustatzen dute.

Diskurtso sinboliko eta identitario horien genealogian kokatu behar da Mari jainkosa mitologikoaren figuraren erreinterpretazio akademikoa, Joxemiel Barandiaranek (1972) lehen aldiz euskal mitologiaren ikerketan sartu zuena, Ama Lurrarekin edo Amalurrekin (Lurramarekin) parekatuz. Barandiaranek jainkosa honen irudia

«emetasuna, lurtasuna, amatasuna eta osotasunaren» sinbolo gisa interpretatu zuen, bizitzaren eta heriotzaren ziklo naturalekin loturiko irudi sakratutzat hartuta (Renteria-Uriarte, 2022). Mari, beraz, euskal mitologiaren esparruan figura konplexua da, geruza anitzeko sinbologiaz jositakoa, eta lotura estua agertzen du bai naturaren eta komunitatearen irudikapenekin, bai amaren figurazio sinbolikoarekin. Zentzu horretan, Mariren irudiak bat egiten du McCronek (1998) nazionalismoen testuinguruan azpimarratu duen egituraketa diskurtsiboarekin; hau da, nazioaren irudikapen ideologikoetan emakumeek maiz jainkosen eta emakume ereduaren irudikapenak hartzen dituztela eta irudi horien bidez emakumeari rol esentzial eta transzendentalak esleitzen zaizkiola. Mari jainkosaren irudikapenek, hortaz, emakumearen eta naturaren arteko harreman sakratua islatzeaz gain, euskal gizartearen oinarri esentzialista eta patriarkalen erreproduktzio diskurtsiboan ere parte hartzen dute, emakumea nazioaren zerbitzura jarritako subjektu sakrifikatu eta funtzional gisa irudikatuz. Horrela, euskal mitologiaren sinbologiaz baliatuz, nazionalismoaren diskurtsioek emakumearen rol sozial eta politikoaren inguruko iruditeria jakin bat egituratu eta finkatzeko ahalmen errepikakorra erakusten dute, eta Mariren figura, hain zuzen, horren adibide paradigmatikoa bihurtzen da:

These myths concerned the Mother goddess and the Earth, which were present in the origin of a prehistoric Basque religion. This goes along with the representation of the strong Basque woman, connected to the idea that women endure through time, like caryatids who sustain the social structure, whose base is firmly set in the soil and who are one with the earth itself. The representation has two cultural pillars common to the Basque Country: *ama lurra* –Mother Earth– and *etxea*, the house as a physical home and as a metaphor for the people (Bullen & Díez Mintegui, 2010, 114. or.).

Joxemiel Barandiaran (1972) eta gisako antropologoen ikerkuntzatik eratorritako arketipo kultural eta metaforek indarrean iraun zuten euskal herri-iruditerian XX. mendearen azken aldera arte, goraipuz nabarmendurik euskal emakumearen garrantzi eta berezitasuna, eta mendetako kultura batekin loturik haren izaera, atxikiriko genero-ezaugarriekin bat egina. Zentzu batean, *emakume* ideiak bere baitan biltzen zuen sinbolikoki euskaldunen balio tradizional eta lehen-lehendanoak: nahimen gogorrarekin batera, lanaren ebanjelioa, barruratzea, espiritualitatea, tradizioaren transmisioa, sendotasuna eta goranahirik gabeko apaltasuna.

Genero- eta etnia-berezitasunen mititikazioari hor batu zitzaizkion halako joran nostalgikoa natibismo matxinatzaile eta lehen-lehendano baten aldera, horiek gertatu ziren euskal nazionalismo goiztiarraren ethosaren osagai ideologiko nagusiak. Euskal emakumea ezaugarritzen bide zuenaren irudikapen esentzialistak eraikitzeke garaian, matriarkatuaren nozio sozialki durduzagarria hautatu zuten interpretazio sinboliko eta diskurtsiboek iraganeko euskal berezitasunaren elementu nagusitzat. Hala, euskal emakume (esentziaz ez bada, bai graduz bederen) berezi baten ideia –Ama Birjinaren figuraren pertsonifikaturiko katolikotasun-lorraz nabarmenez– nazioaren beraren berezitasunaren irudia bilakatu zen (Zulaika, 1988, 273. or.):

In the weekly chronicles from Itziar, written before the outbreak of the war in 1936, a constant feature is the use of *ama* (mother) in the new nationalist rhetoric. By a process of visual-conceptual concretization, the *ama* root image was extended to other domains. Basque nationalism in Itziar insisted upon love for the *Ama Aberria* (Mother Country). The language, *Euskera*, the native country, *aberria*, and the land, *lurra*, the political name for the country, *Euzkadi*, the church, *eleiza*, and the Virgin, *Birjina*, are all constantly preceded by *ama*⁵.

Euskal mitologiaren baitan, emakumeen irudiek –bereziki Mari jainkosak eta Ama Lurrak (Amalur)– eginkizun giltzarria izan dute euskal nazionalismoaren erresistentzia diskurtsoen egituratzean, sinbologia kolektiboaren barruan erreferente ideologiko eta identitario gisa funtzionatuz. Mitologia- eta kultur transmisioaren arteko gurutzagunean, emakumeak euskal hizkuntza eta kulturaren transmisore nagusitzat irudikatu izan dira, beren irudikapen sinbolikoek gizartearen oinarri ideologikoetan eta antzinako sinesmenetan errota duten garrantziaren adierazle gisa. Ildo horretan, euskal nazionalismoaren iruditegian, Mari jainkosa sinbolo zentral bihurtu da, herriaren iragana, oraina eta etorkizuna elkarrekin lotzen dituen figura sakratu eta emankor gisa (Zulaika, 1988). Are gehiago, emakumeek bizitako gatazka soziopolitikoaren eta ahal-duntze prozesuen testuinguruan, Mari jainkosaren figurazio mitologikoak diskurtso nazionalista hegemonikoaren barruan izan duen presentzia esanguratsua nabarmena da, eta horren bitartez, emakumea komunitatearen eta naturaren arteko harreman sakratuaren isla izateaz gain (Gimbutas, 1991; Mazkieran, 2020), euskal gizartearen egitura esentzialistaren ekoizpen sinbolikoaren parte ere bada.

Leinu- eta familia-lotura estuen bizipen zorrotz batek lagundu zuen iraganarekiko jarraipena sentiarazten. Belaunaldi arteko transmisio hori, kontakizunen bitartez bideratua, ipuin eta kanten iraupenean bermaturik zegoen, eta ahozko kontakaren bidez helarazten zieten ondare hori belaunaldi gazteagoei zaharrek eta amek⁶.

Mari, sinbolo mitikoa eta euskal kulturaren ikur, euskal nazionalismoaren ikuspuntutik iragan, orain eta etorkizunaren arteko lotura indartsua eskaintzen duen figura da (Renteria-Uriarte, 2022). Baina, emakumeen gatazkak eta ahal-duntze prozesuak ez dira soilik mitologian edo euskal nazionalismoaren ikuspegiaren barruan ulertzen, baizik eta emakumeek patriarkatuaren eta nazionalismoaren aldaerak auzitan jartzen dituzten heinean, gatazka sozial eta politikoak lehen lerroa ekartzen dituzte. Euskal gatazkaren testuinguruan, tradizionalki estatuaren eta herriaren artekoa izan den gatazka patriarkalaren egitura sozio-politikoek emakumeek betetzen dituzten bigarren mailako rolak finkatu dituzte, gehienetan gizonak rol hegemonikoetan kokatuz:

5 Zulaikaren (1988) Itziar (Gipuzkoa) garaiko Euskal Herri tradizionalaren eta haren iruditegi hegemonikoaren sinekdoketzat har daiteke.

6 Ama-semeen arteko transmisio kultural (eta politiko) horren alde ilunak ere izan ditu fikzio iturri euskal literaturak, Saizarbitoriaren *Hamaika pausoko* Lasa psikiatrak aipatzen duen «ama irentzailea» (Saizarbitoria, 1995, 33. or.) besteak beste. Berdin, ikus Gabilondo (2020, 325. or.) euskal literaturako «ama faliko» kontzeptuaz.

Hala ere, ezinbestekoa da kontuan hartzea «euskal gatazka» deiturikoa ez dela bakarrik estatuaren eta herriaren arteko gatazka, baizik eta gatazka patriarkala, gizonen artekoa eta, beraz, hegemonikoak diren gatazka guztien parte bat. Gizonak, beste gatazka politiko guztietan bezala, subjektu politiko nagusiak dira. Horregatik, politizazio prozesu baten bidez, gatazka ez bezala kontsideratutako auzi eta harreman boteretsuak gatazka politiko bihurtu behar dira, zeren eta estatuarekin dugun gatazka, gizonekin dugun gatazka bezain politikoa da (Goikoetxea apud Villagran Arrastoa, 2025, 63. or.).

Euskal emakume garaikideek, beraz, ez bakarrik euskal gatazkaren arloko borroka politikoak, baizik eta sistema patriarkalaren eta kapitalista-industrialaren aurkako borroka ere azpimarratu dituzte. Horren bidez, emakumeek pribatua politikoa bilakatu dute, feminismoaren ahalduntze prozesuaren parte izanik. Ahalduntze-prozesu horren bidez, emakumeek patriarkatuaren aurkako borroka politikoa bultzatzen jarraitu dute, eta, aldi berean, Euskal Herrian emakumeen arteko borroka sozialean ere parte hartu dute. Emakumeen irudikapen mitologikoei, Mari bezalako jainkosen irudiak, orain ez dira soilik borroka kolektiboaren sinboloak, emakumeen gatazka politikoak irudikatzen aukera bihurtu dira. Horrela, Mari, euskal folklorea sinbolo mitikoa den figura, emakumeen gorputza, ugalketa eta sormena aztertzen erabili zuen Amaia Lasak, emakumeen irudi mitologikoen ahalduntzea eta feminismoaren borroka politikoaren adierazgarri:

Egun batean Mari Sorginari
 suzko emetasuna biztu zitzaion
 bero beroa,
 oso indartsua.
 Haurtzaroan gauza gaizto bat bezala
 erabili zuen;
 haiek zikina zela zioten
 eta betiko lotarazi zuen,
 zenik ere ez jakiteko.
 Mari Sorginaren emetasunak
 urte luzeak lozorroan zeramazkien,
 gorputzak mogimendu gabeko aide triste
 bat dantzatzen
 zuen,
 hoztasun urdinean.
 Gau batean jolas batean sartu zen,
 eta aho batek bere gorputza laztandu zuen,
 iluntasunaren itzalean.
 Mari Sorginaren emetasuna lozorroan
 zegoen
 esnatzera doa;
 beltza gorri bihurtu zen,
 eta jolasteko jostailuak,
 ez ziren aurrerantzean zikinak izan.

(Lasa, 1971, 26. or.)

Laburbilduz, emakumeen irudi mitologikoak euskal nazionalismoan eta kulturaren transmisioan funtsezko papera izan dute, eta horiek, aurrerago, emakumeen ahal-duntze-prozesuaren eta borroka sozial eta politikoen sinboloak bihurtu dira. Amaia Lasaren poman, Mari Sorginaren emetasunak irudikatzen dira, eta horien bilakaera poetikoki eta sinbolikoki aztertzen da. Haurtzaroan, emetasuna «gaizto» eta «zikina» bezala errepresentatzen da, emakumeen gorputzen eta ugalketa ahalmenen gainean gizarteak duen jarrera negatiboaren metafora gisa. Hala ere, testuan agertzen den transformazio prozesuak emakumeen sormenerako potentziala berreskuratzea adierazten du, eta gizartearen ikuspegiak aldaketa baten mende daudela iradokitzen. Testuak aldaketa bat planteatzen du: «Gau batean jolas batean sartu zen» esaldiarekin, Mari Sorginaren emetasunaren irudiak transformazioa jasotzen du, eta honek emakumeen sormenerako ahalmenaren berritzea adierazten du. Iluntasunean gertatzen den, «aho batek bere gorputza laztandu» izatea, sormenerako potentziala berriro bizitzara ekartzen du, emakumeek beren gorputzaren jabetza berreskuratuz. Horrela, emakumeen gorputzaren eta sormenerako ahalmenaren irudia eraldatzen da: lehenik, «beltza» eta «zikina» zena, orain «gorri bihurtzen» da, bizitzaren eta indarraren sinboloa bilakatuz.

Mariren ama-irudi samurraren rola azpian itxura ilunago, indartsuago, askeago edo munstrotsuago bat ageri da. Hain zuzen ere, euskal idazle modernoek gero eta gehiago aztertu dute dualtasun hori, euskal ama izugarrien leinuko lehen agerpenetat ere irudikaturik Mari (Díez Mintegui, 1999; Renteria-Uriarte, 2022). Egiazki:

Norbanakoen ikuspegitik, kultura akademikoan zein herrikoian ikuspegi hedatuena eta sendoena zein den nabarmena izanik ere, mitoak artelan ireki gisa ulertzeak onuragarria ematen du. Horrela, nork berarentzat irakurketa desberdinak aukeran izango ditu, bizitzako garai eta hazkunde pertsonal desberdinetarako. [...] Horregatik, alderdi asko zundatu behar dira mito sakon eta zabal baten iradokizunak agortzeko. Marik hamaika aurpegi izan du orain arte, eta aurpegi baitarakoi anitzean denak bildu eta kokatzen dira, baina ibilbidea luzea da denak ezagutzea eta bere giltzadura ulertzea. Agerpenetatik oso labur ikusirik, egungo kultura herrikoian emakume gaztearen itxura du Marik, emea eta ama, baina sormenean aritzen eta 'haritzen, ehuntzen' den atso jakintsuenaren aurpegi gisa ikus dezakegu, eta horren azpian gainerakoak ditugu: naturaren formak, lurrarena, energiena, hutsarena. Mariren aurpegiak bilatuz bidea eginik, gure baitako sakonetara egiten dugu bidea ere (Renteria-Uriarte, 2022, 63.-64. or.).

Mari aldi berean amatzat eta munstro indartsutzat irudikatzeko horrek, osotasunean erakusten duen anibalentzia dela eta, biziki piztu du arreta hala ikastunen nola idazleen artean. Ekofeminismoaren eta ahalduentzearen ikono izaten jarraitzen badu ere (Redondo, 2021), eta ospea beretua duen arren aurre egin bide diela eta indoeuropar inbasioen, kristautasunaren, industrializazioaren eta globalizazioaren erasoek, era berean betetzen du Marik leku itzal beltzago bat euskal mitologiaren barruan, sunsitzaille eta kaos-eragile ere gerta daitekeen aldetik. Bikoiztasun horrek ekarri du «ama munstro» gisa ezaugarritzea Mari, aldi berean gozo-emaile eta izu-eragile, naturaren eta giza emozioen indar aldaberak nolabait islaturik horrenbestez. Bere aldarte igargaitzak ematen dio Mariri, bere eskupeko dituelarik ekaitzak zein sumendien erupzioak,

munstro-itxura hori. Hori dela-eta jotzen da ezen, ama-irudi babesle izatea gorabehera, orobat dela gauza kalte eragiteko men egiten ez dion orori. Herio forma hartzen du Ione Gorostazuren (2012, 35. or.) poemetariko batean: «Batzuetan berarekin oheratzen gara / heriok muxu ematen digu / gure gainean jartzen da / gu gozo zapaltzeko / gure barnean husten da / baina bera izaten jarraitzen du / guk nahi edo ez».

Azken aldian Mari errebeldeztat –edo «ama munstro»-tzat– interpretatu dutenen artean, eragin nabarmena izan du amatasunaren eta lurraren arteko asoziazio sinbolikoak. Irakurketa horretan, Mari lurrarekin duen lotura metafora bihurtzen da: mundu naturala bortxatua edo gaizki tratatua denean agertzen diren indar suntsitzailen irudi, alegia. Interpretazio hori bat dator ikuspegi ekofeminista batzuekin, zeinetan uztar beretik doazen fenomenotzat jotzen baitira emakumeen esplotazioa eta naturarena. Mari, hala, erresistentziaren sinbolo bilakatzen da, baina agerian delarik haren sumina hein berean dela ohartarazpen nolabaitekoa eta beraren boterearen oroigarri. Mariaren irudikapen mitikoak, bizitza eta heriotza kontrolatzen dituen ama deitatzat, gizateriaren eta ingurumenaren arteko harreman anibalentea ispatzen du, non oreka labain batean gertatzen baita aldiro gauzak haztearen eta suntsitzearen artean⁷.

Leire Bilbaoren (2011, 60. or.) «Etxeko dragoia» poemak anibalentzia horretan jartzen du arreta. Ama-figura modu bizian aztertzen du Bilbaok: neskame ere badena, izaki dinamiko, botereitsu eta ia mitikotzat aurkeztuz; «gatzeluan» agintea ezarri eta, indarkeriaz, agintea mantentzeko gai den «etxeko jainkosa eta zaindaria». *Dragoia* da ama, botere espiritual gorena. Lurreko eta zeruko botereak bat egiten dute Amaren baitan; animalia mitiko menderaezina da –tradizionalki espazio sakratuen babesarekin, indarrarekin, ugalkortasunarekin eta suntsipenarekin lotzen den sinbolo bihurria–: zerbitzari fin eta lege betearazle da aldi berean, bakezale eta oldar, bere leinuko kumeen zaindaria eta arrotzekiko misantropoa. Olerkiak amaren rola goratzen duen arren, modu sotilean kritikatzeko du horren baitan dagoen isolamendua eta sakrifizioa, eta sakrifizio horrek sorrarazten duen bortizkeria. «Ama beti dago hor / Ama beti dago hemen» bezalako esaldiek amaren presentzia mitikoa –nonahikoa eta etenik gabea– iradokitzen dute, baina baita bere erantzukizunetatik ihes egiteko askatasun falta ere. Errima libreak, barne egitura zainduak eta errepikapenak mantra bihurtzen dute Bilbaoren olerkia, eta, sinbolikoki, erritualizatu egiten ditu amarengandik espero diren iraunkortasun eta jarraitutasuna: haren boterea; baina, berdin, amari eskatzen zaion lan etengabe eta aitortu gabea:

Amak dena garbitzen du
jasoa zaindua ordenatua behar da etxea
trapuak ateratzen zaizkio Amari
eskuetatik besoetatik omoplatoetatik
hegan egiten du
dragoi zaindaria batek bezala bere gatzeluan

⁷ Marija Gimbutasek (1921-1994), lituaniar arkeologo eta feminista (polemikoak), idatzita utzi zuen Mari antzinako Europan zabaldua zegoen jainkosa kultuaren azken aztarna bizia dela.

Amak keinu batekin
eltzeak jartzen ditu sutan
behi okela egosten du
hegalak zabaltzen ditu kumeok batzeko

Amak dena dauka prest
Ama beti dago prest
Amak dena egiten du ondoen
hautsa astintzen du edonoiz
sua ateratzen da Amaren ahotik
orro egiten du bakea agindu behar denean

Amak dena garbitzen du
jasoa zaindua ordenatua behar da etxea
Ama beti dago hor
Ama beti dago hemen

Amak ez du etxean arrotzik nahi
Amak ez du zomorrerik inurririk puntu beltzik nahi

Amak sua eragin dezake
ahoarekin begiekin esku biekin

egun batean Amak
Aita garbitu
eta atsedeen unerik hartu gabe
arrautza zaharra erruten
eseriko da.

(Bilbao, 2011, 60. or.)

Poemaren konplexutasuna «aita garbitu» esaldiaren esanahi bikoitzak areagotzen du. Ama patriarkatuaren egiturak desegiteko gai den pertsonaia gisa kokatzen du ahots poetikoak. Ekintza hau emakumeei historikoki esleitutako mendeko rolaren aurkako matxinada zabalago baten sinbolotzat har daiteke, amaren boterea bere etxeko bete-beharretara mugatu beharrean, familia-hierarkia tradizionala eraldatzeko edo desegiteko ere hedatzen dela iradokiz.

Aldiz, ekintza erradikal horren ondoren, poemak amaren «arrautza zaharra erruten» esapideak erakusten duen irudiak bere sakrifizioaren izaera ziklikoa eta berari ezarritako eskarmentu etengabeak azpimarratzen ditu. «Aita hiltzea» den bezalako ekintza baten ondoren ere, bere sorkuntza- eta zaintza-rolera itzultzen da berehala ama, gizarte-eskaerak bere horretan jarraitzen duela iradokiz. «Ama dragoia»-ren gorazarreak emakumezkoen antzinako munstrokeriaren (Mari) nolabaiteko onarpenera dakar, «ama dragoia»k beregan islatzen duen emetasun/natura binomioak irrazionaltasuna iradokitzen baitu. Finean, emakumearen domestikazioak munstro berriak sortu ditu.

Euskal Alderdi Jeltzalearen konfesionalismo katoliko eta kontserbadurismo sozial nabarmena, 1894ko haren sorreratik, eskutik zetorren nonahi ere bertute femeninoa-ren erretorika folkloriko horrekin, begirune sozial eta sexuala eta zuhurtzia zirelarik mami. Emakumeak maila apalagokotzat jotzen ziren gizonen aldean sozialki, baina funtsezkotzat hala arrazaren nola kulturaren garbitasunari iraunarazteko, leinuaren eta haurren hazkuntzaren bitartez (Arrieta, 2022, 81. or.). Eusteko egitura edo erakunde autoktono arautuen faltan, etxekotasuna eta amatasuna –«Ama (Ama-aberria), bere seme kuttunen odoletik elikatzen dena, erlijioa, bizitza eta heriotza, sakrifizioa» (Aldekoa, 2015, 136. or.)– gailentzen ziren gune sakratutzat non euskal emakume nazionalistek esku har baitzezaketzen transmisio etniko, linguistiko kulturala bermatzeko ahaleaginean (Llona, 2010 eta 2016). Hamiltonen ikuspegia ere antzekoa da:

When explaining its resilience in the decades following the Civil War, scholars of Basque nationalism have tended to portray the family as a kind of haven from Francoist repression and social and economic upheaval. In other words, it is portrayed as an institution relatively protected from wider social and political conflict, with the home as a privileged space for the protection of national identity and the reproduction of nationalism itself. Implicit in this is the assumption that women were instrumental as mothers and housekeepers in preserving and transmitting Basque culture and language inside the home (Hamilton, 2007, 32. or.).

Beraz, artikulua hasieran aipaturiko Mari Luz Estebanen poema-liburuak, amaren heriotza ekarririk hizpidera, burujabetze pertsonalaren sentimendua baino askoz harago doan zerbait iradokitzen du; amaren sinboloan bildurik datoz hainbat dimensio kultural, politiko eta erlijioso euskal literaturaren testuinguruan:

Euskal emakume idazleak ez dira amatasunaren edo nazioaren ahotsak. Haien narratibetan, ahots indibidual eta pertsonal bat gailentzen da, eta haien helburua ez da euskal *socium* nazionalaren gorputz politikoa ordezkatzeko edo legitimatzeko. Ondorioz, emakumeek beren hutsunea desiraren bitartez egituratzeko bide berriak urratzeari ekin zioten, beren (barne-)erbesteko esparru pertsonal eta indibidualetatik abiatuta (Gabilondo, 2020, 329. or.).

Burujabetze-aireak dakartzan gertaera horrek, alabaina, badirudi betetzen duela Xalbadorren (1976) bertsoko profezia hura zeinean Urepeleko olerkariak iragartzen baitzuen nola hilko zen «ama ona» (aberria) «seme-alaba munstro» batzuek halakutua. Horra metafora horretan azpimarratua nolako konplexua eta sakona den amatasunaren irudikapena egungo euskal literaturan, non esanguraz zamaturiko sinbolo bat bilakatzen baita amaren figura, gizabanakoaren maila gaingidurik baititu islatzen Euskal Herriaren identitate kolektibo eta historia kulturalaren oinarri-oinarrizko alderdi batzuk:

Hil hobi huntan noizbat norbait badabila,
zure izaitearen herrestoen bila,
lurpetik entzun du deiadar bipila:
hemen dago ama bat bere haurrek hila!

(Aire, 1976, 208. or.)

Amaren heriotza ikaragarriak berekin dakar «kontakizun errealista-nazionalistaren heriotza» (Gabilondo, 2020, 325. or.). Euskal emakumeari egotzitako bertuteak (zaintza, sentsibiltatea, zuzentasuna, gozotasuna) euskal jendalde osoarentzat (haurrak) eredu ditu Urepeleko bertsolariak. Sinbolo dira, beraz, «ama ereduzkoa» eta berau hil duten piztiak ere.

4. HIL DA AMA! GORA AMA!

Egungo euskal literaturan amatasuna nonahi agertzeak, Olaziregik (2021) ohartarazten duen gisan, nabarmen erakusten du nolako munta iraunkorra duen horrek euskal gizarte modernoko bizipen eta borroka feministekin harreman estuan doan gai funtsezkotzat. XX. mendearen amaiera aldean euskal tropo nazionala zatika deseginenez joateak berekin ekarri zuen euskal literaturan hainbat metafora amatasunarekin loturiko anputazio, mutilazio eta munstrotasunei zegozkienak, eta «atseginik nehoiz gozatzen ez duten gorputz mutilatuz, gutxietsiz, menstuz eta mutuz» bete ziren euskal literaturako liburuen orrialdeak (Borda, 2013, 45. or.).

Maite Esnal Gonzalezen (2014) «Amaren musupolka» ipuin laburrean, protagonistak Goyaren koadro espantuzko bat ikusten du bere laurogei urteko amaren gorputz zahar, deformatu, eta gaixoari begira dagoela: «sorgin bat», «irudi groteskoa», «biologia abailduaren paisaia» (2014, 105.-106. or.). Eta horren harira,

Prolapso vaginal dio sendagilearen txostenak, eta sendatzeko zer egin behar duen zehaztu du: garbitu ur epelez egunean bi aldiz, xukatu paparezko zapiez eta ondoren Protipol sei tanta bota. Azkureak izanez gero suero fisiologikoaz garbitu. Sendagilearen diagnosiak eginkizuna serio hartzera bultzatu du Maria L., nahiz eta, egoera serioa ez ezik, groteskoa ere iruditzen zaion. Baliteke errealtate desitxuratua ikustearen ikustez gehiegikeria batean erortzea orain, baina Frida Kaloren [sic] pintura gogoan, bere jaiotza irudikatzeraino iritsi da (Esnal Gonzalez, 2014, 106. or.).

Leire Bilbaoren (2011) *Scanner*⁸ poema-liburuko «Autopsia» aleak bere baitan biltzen du hainbat euskal emakume idazle, bertsolari eta feministaren artean zabaldurik dagoen sentimena, ohartzen direlarik aktiboki hartu dutela parte amatasunarekin loturiko metaforak aldatuz joateko ahaleginean. Bilbaoren poema horrek aurkakotasun bat iradokitzen du rol tradizionalekiko eta emakumeei beharturiko itxarokizunekiko, eta horrenbestez sinbolizatzen heredaturiko rol horiei eusteko ukoa. Idazlea bere burua eta egia aurkitzeko bidaia batean abiatzen da, bere bizitzan zehar nabigatuz bere hazkuntzaren eraginak ulertu beharrez. Aurkari nabarmen baten aurkako borroka aurreikusten badu ere, ez du topatzen inolako suntsipen-tresnarik, horrek duelarik agerian jartzen zapalkuntza patriarkalaren nonahikotasuna. Halako une intimo eta gogobarea

8 Ikus antzekotasuna izenburu horren eta Lasarteren *Ultrasoundsen* artean.

sentiarazten du kontakizunak ahots poetikoak hurbiletik begiratzen dienean zapalkuntza-egiturei. Horrez gainera, burua agertzeaz dago hor munstrotasuna, protagonistak aurre egin beharreko indar hertsagarri eta izu laborrizko gisa. Azken batean, horra hor islaturik patriarkatuak beharturiko rol barneratuetatik askatu eta identitate beregain bat sendesteko borroka, murrizpen tradizioetatik libre, horrenbestez balia daitekeelarik poema bidaia feministaren metafora bortiztatzat.

Ez naiz ama hiltzera etorri
arrastoei segika atera naiz.
Ez dut topatu espero nuen piztia
arma homizida.
Lurrean zurbil
pultsua hartu diot
no, no, no, no, no
ez naiz ni izan.

Ez naiz ama hiltzera etorri
bere bila atera naiz.
Aiztoa zorrotz
alga eta ezkatez estalita
denbora darama hotz.
Inork ez du gorpua altxatu nahi?

Ez naiz ama hiltzera etorri
ez dut azala trukatu
delitu tipifikatuen beldur naiz.
Desioak arriskatu ditut
don't think twice
kristalak jan
espero ez nuen piztia topatu.

Ez naiz ama hiltzera etorri
bidea desegin dut.
Leihotik bere hilotza begietsi
etxeko ate guztiak itxi
hilda dagoela oihukatu
baina ez naiz ni izan.

(Bilbao, 2011, 33. or.)

5. ORTODOXIAREN BIDUTZIAK

Egungo euskal emakume idazleek amatasunaren berrikusketa kritiko horren sorburutzat, nabarmentzekoak dira zenbait eraldakuntza sozio-historiko, politiko eta kultural, pixkanaka azpia janez joan direnak euskal nazionalismoaren ortodoxiari (Gabilondo, 2020), hark sortua zelarik euskal amaren irudi idealizatua. Joseba Gabilondok

aurrerago darama kontua: euskal emakume idazleak, idazle moduan iraungo bazuten, behartuta egon dira «nazionalismoaren erbestera» bihurtzera:

Emakumeek proiektu nazionalistaren barruan aintzat hartuak izateko, beharrezkoa zuten posizio ez-subjektibo bat onartzea; zehazki, agentzia sozialik gabeko ama ugalkor eta, beraz, naturalarena. Baina, halakorik onartu ez, eta beharra ikusi zuten posizio eta desira ez-nazionalista ez-komun bat –hots, desira indibiduala– lantzeko. Ondorioz, emakumeek euskal kulturatik eta nazionalismotik erbestera behar izan zuten, alegia, erbesteko subjektu bilatu behar izan zuten. (Gabilondo, 2020, 324. or.).

Oso antzeko kontzeptualizazioa darabilte Pérez Isasik eta Sampedrok (2021, 12. or.):

El “exilio materno” describe metafóricamente la marginación que estas escritoras enfrentan, especialmente cuando resisten conformarse con los roles nacionalistas esperados. En lugar de representar o legitimar la ideología nacionalista, muchas de estas escritoras adoptan una voz narrativa personal e individual, con la intención de trascender las limitaciones impuestas por las expectativas nacionalistas. Esta elección refleja su resistencia a ser confinadas a roles que apoyen o nutran la causa nacionalista, afirmando en su lugar su independencia literaria a través de la exploración de experiencias e identidades personales.

Testuinguru horretan, literaturaren esparruak rol erabakigarria jokatu du amatasunari buruzko ikuspegi-aldaketan, eta horrenbestez eragin euskal identitate nazionalistari bere osotasunean⁹. Hala, Estebanen poema-liburua argitaratu eta handik hurrengo urtean, Gema Lasarte ikastunak (2014) ingelesez argitaratu zen antologia batean bildu zituen euskal literatura emakume idazle gailen batzuen narrazioak; istorio horiek amatasunaren alderdi berri askotarikoak ikertzen dituzte, aurre eginik genero-arau tradizionalei eta auzitan jarriarik euskal esparruari bereizgarri zaizkion genero-erlazioak: «Antologia honek mundu ikuspegi berri bat proposatzen du, emakumeen protagonismoa aintzat hartuz eta ama izatea oinarritzko ardatz gisa aztertuz. Era berean, begirada intimoak eta estilo eta tonu anitzak erabiliz, aniztasun literarioa eskaintzen du»¹⁰ (Lasarte, 2014, 7. or.). Bilduma osatzen duten kontakizun laburren egileak honako hauek dira: Aurelia Arkotxa, Uxue Apaolaza, Maite Gonzalez Esnal, Eider Rodriguez, Miren Agur Meabe, Ana Urkiza, Arantxa Iturbe, Jasone Osoro, Garazi Kamio, Ixiar Rozas, Arantxa Urretabizkaia, Begoña Bilbao, Irati Elorrieta, Uxue Alberdi, Karmele Jaio, Irati Jimenez eta Katixa Agirre.

⁹ Amatasunaren instituzioa berraztertzen duten emakume idazleen eklosioaren aurrekari gisa, aipatzekoak dira Arantxa Urretabizkaia, Laura Mintegi eta Amaia Lasa poeta. 2011n argitaratutako artikuluan batean, Gema Lasarte Leonet irakasleak (2011) 1970 eta 2010 urteen artean euskal emakume idazleek idatzitako hogeita hamar eleberri izan zituen aztergai, argi nagusitzen direlarik amatasunarekin eta emakumeen gorputzarekin zerikusia duten gaiak. Lasarteren arabera, berretsia gertatzen da hor Lucien Goldammen homologiaren teoria eta horrek literaturan duen isla. Horrez gainera, abandonamenduaren gaia nabarmentzen da, aztertutako lanen % 40tan ageri-agerikoa, berdin ikertzen direlarik hala amen abandonamendua nola haurrena. Orobat ohartzekoa da aitatasun-mota berrien eta emakumearen eraldaketaren arteko konexioa. Hitz batean, aldaketa bat nabari da amatasunaren irudikapenean azken hamarkadetan zehar, azpian gertatuz doazen gizarte-erlaketak islaturik eta oinarri eta bultzada emanik pertsonaia literarioa eta errealitate soziala elkarrekiko harreman dialektikoan daudelako ideari.

¹⁰ Itzulpena gurea da.

Antologia horretako kontakizun-sortan, hainbat modutara irudikatuak datoz, este-reotipo tradizioaletatik harago, alegiazko amak, horrenbestez aurre eginik egungo euskal gizartean amatasunari atxikitzen zaizkion rol eta ustekizun sozial, kultural eta erlijiosoei. Istorio horiek, auzitan jarririk euskal nazionalismoan amak daukan leku gailen eta sakralizatua, ez gaitu bultzatzen bakarrik kritikoki berraztertzeraz zertan den amatasuna euskal gizartean, baizik eta orobat dakar zer hausnartua ugari euskal identitateaz beraz eta hark genero-narrazioekin dukeen erlazioaz. Bestetik, amatasunari buruzko istorio-bilduma horren izenburuak –*Ultrasounds*– gogora dakartza amagintzaren alderdi hala mediko nola emozionalak, horrek bihurtzen duelarik izenburu hori ama-bizipenaren konplexutasun eta sakontasunaren sinbolo indartsu eta iradokitzaile.

Uxue Alberdi idazle elgoibartarrak antzeko metafora erabiltzen du bere *Ekografia* ipuin laburrean. Alberdik metafora esanguratsuaren bidez lotzen ditu amatasuna, literatura eta globalizazioak kultura txikiekiko erabili ohi duen gurasokeriazko tonua, eta bide batez salatzen kondeszendenziaz betetako begirada horrek nolako eragina duen, zuzen-zuenean, legitimazio globalaren bila dabilen emakume euskal idazlearengan:

Batzuetan hala aurkezten digute gure literatura ere. Ekografia egiten diote aditu uni-bertsalek, bata zuriz jantzitako medikuek aldarri egiten dute aldian behin: «ba omen da». Eta sari potoloren batekin aurkezten digute gure literaturatxoa, eta esaten digute «begira, hemen bi hankatxoak. Hemen bi besoak. Entzuten bihotz taupadak?». Eta guk, guraso-berriek bezala, elkarri begiratzen diogu irribarre inozoz, bagarelako harro, nire antza du ala zure antza du. [...] Gure literaturari ere adituak, amabitxiak eta plazenta artifizialak azaltzen zaizkio noiznahi, eta ematen dizkiote biberioiak eta haur-txekeak. Aita-amak ezjakinak omen gara: gure esnea ez omen da nahikoa literaturatxoa elikatzeke, inkubagailu arrotzetan sartu behar omen dira nini txikiak munduko hiritar zintzo bilaka daitezen (Alberdi, 2011, 9.-10. or.).

Metafora horien ildotik barrentzen dira istoriook amatasunaren egungo desfioetan eta egungo euskal gizartean bilakatuz doazen genero-rolen gorabeheretan, hala arakaturik nolako konexio emozionalak eta eragin sakonak dituen amatasunak bizitzaren dimentsio askotarikoetan.

Uxue Apaolaza Larrearen *The Shopping Cart* istorioan (2014), emakume bat ageri zaigu supermerkatuan erosketa egiten. Kontakizunean harilkatuz doaz haren pentsamendu eta emozioak dendan zehar dabilelarik. Erosketaren ekintza arrunta leiho bat bihurtzen da haren bizitza bistaratzeko, hainbat xehetasun erakutsiz haren familia, harreman eta barne-borrokez. Alderai dabilzkio pentsamenduak emakumeari bere egitekoen jardunean, jeansak estuegi dauzkalako deserosotasunetik hasi eta senarrak halako giltzatakia oparitu diolako gogaitzeraino. Erosketa-zerrendaren bitartez, eza-gutzero ematen zaigu, haren familiaren dieta-aukera eta osasun-ardurak ez ezik, emakumearen unadura eta zaputaldiak. Erakustokien artean hara-hona dabilelarik, aldika pasatzen zaizkio burutik oroitzapen, ohar eta umorealdi iheskorak. Hartutako erabakiei so egin, praktikoak zein bulkadazkoak izan, eta erantzukizunen pisuekin borrokan dihardu. Azkenean, tupustean alde egiten du supermerkatutik, atzean utzirik organo han jasotako produktuekin. Bat-batean abiatu da, azalpenik gabe, hor uzten duelarik

irakurlea hausnarrean haren portaeraz eta haren barne-munduaren konplexutasunaz. Lasarteren istorio-bildumako emakume protagonistek badirudi ezen, beren garapen eta ongizateari aihar zaizkion kultura batetik aldendurik, nahi dutela barrendu arau eta konbentzio tradizionalei axut egiten dieten desafioz eta aukeraz beteriko mundu batean, patriarkatuak ezarritako mugak hautsiz.

Hitz batean, egungo euskal literaturak amatasunaren bilakabidea agerrarazteko moduak ez du bakarrik aldaketa sakona erakusten egungo euskal gizartean, baizik eta era berean du aldaketa zabalago eta konplexuagoa seinalatzen euskal identitatea ulertzeko eran eta horrek genero-dinamikekiko ikuspegi garaikidearekiko erlazioan. Buruen buru, aipatu beharra dago ezen Lasarteren istorio-bildumak, zuzentasun politikorik eta kode moralik gabeko alegiazko amak aurkezturik, bistaratzen duela nola doan agertuz «munstrotasun» mota berri bat, aurre egiten diena egungo euskal gizarteko amatasunaren ikusmolde tradizional eta sakralizatuei. Larramendik *bidutzi* hitza eman zion euskarari *munstro* erdarazkoaren ordain garbitzat. Iradokizun are garbiagoa dakar hitzak hemen hizpide dugun gaiari dagokionez: «(zegokion) bidea utzi (duena)» dugu kasuan kasuko munstroa.

6. IDAZLEA, MUNSTRO HORI

Monsters: a Fan's Dilemma saiakeran, Claire Dedererrek (2023) hizpide hartzen du nolako auzi korapilatsua den banantzea artea eta haren sortzailea, eta bereziki heltzen dio moralki gaitzesgarriak izan diren portaerak izan dituzten artisten kasuari. «Munstro» femeninoei dagokienez, Dedererrek aztergai hartzen du ea emakumeen munstrotasuna gizonezkoena ez bezala ageri den. Bere buruari galdetzen dio ea idazle izateko grina duten emakume guztiak diren azken batean munstrotzat hartzen, ea gizarteak halakotzat hartzen dituen, eta ea emakume idazleok erdi gordean bilatzen duten muturreko askapen modu gisa baliatzea aberrazio hori (Dederer, 2023, 174. or.).

Ikergai du nolako itxarokizunak dituen jarriak gizarteak emakumeen gainean, batez ere aldi berean artista eta ama direnen kasuan, eta nola sar daitezkeen bi rol horiek elkarrekiko gatazkan. Dedererrek iradokitzen du rol tradizionalei aurre egiten edo portaera «munstrokarak» ageri dituzten emakumeak gogorrago epaitzen direla sarri beren homologo maskulinoak baino. Neurri-bitasun horrek nabarmen islatzen du kultura-isuri bat, zeinaren arabera artista maskulinoen arau-hausteak gainetik pasatzen edo desenkusatzten baitira maiz haien jeinua dela eta, eta artista femeninoei, berriz, epaitze zorrotzago bat jasan beharra baitagokie. Bere buruari galdetzen dio ea artista batek ezaugarri mustrokarak ageri behar dituen arte bikaina sortzeko, eta ea gizarteak emakume artistei buruz duen ikuspegia zigortzaileagoa den berez.

Dedererren (2023, 175. or.) arabera, emakume munstroararen bekatuak hertsiki lotuta daude amatasunarekin, amatasun arduragabearekin zehazki. Gizonezkoen krimena bortxaketarekin loturik dago; emakumeen krimena, berriz, zaintza- eta hazkuntza-faltan datza (Ruddick, 2009). Haurrak bertan behera uztea da, ikuspegi horretan, emakume batek egin dezakeen krimenik makurrena. Pentsamolde horrek

nabarmenarazten du nola amatasunari tradizioz dagozkion itxarokizunak haustea munstrotasuntzat hartzen den emakumeen aldetik, gordin erakusten duelarik horrek nolako lotura sakona egiten duen gizarteak identitate femeninoaren eta ama-erantzukizunen artean. Dedererrentzat, Doris Lessing, Sylvia Plath, Anne Sexton eta gisako idazleek amatasunarekin uztarturiko munstrotasun hori erakusten dute, haien lan eta bizitza pertsonaletan islaturik baitator nolako tentsioak eta gatazkak pairatu behar izan zituzten beren sortzaile-identitatearen eta ama gisa gainetik ezarriak zituzten itxarokizunen artean.

Euskal literaturarekiko loturak nabarmenak iruditzen zaizkigu. Adibide bakar bat aipatzearren Doris Lessingen (1962) *The Golden Notebook* eleberriak, Anna Wulf protagonistaren bizitzaren bitartez aztertzen ditu amatasunaren erronkak: nola aurpegi ematen dien protagonistak ama gisa ezarritako gizarte-itxaropenei eta autonomia eta sormen-errealiterako nahiei. Lessingen egitura berritzaileak aurre egiten dio narratiba tradizionalari, nortasunaren konplexutasunei, mundu zatikatu batean betetasuna bilatzeari eta amatasunaren eta autorrealizazioaren arteko oreka delikatuari buruzko iruzkin sakona eskainiz. Zentzu horretan, *The Golden Notebook* eta Arantxa Urretabizkairen (1998) *Koaderno gorriaren* arteko loturak agerikoak dira, nahiz eta euskal idazleak ETArek borroka armatuaren testuinguruan jarri amatasunari buruzko gogoetak.

Finean, Dederer bat bide dator Richekin (2018, 12. or.), honela esaten duenean: «Now, to be maternally with small children all day in the old way, to be with a man in the old way of marriage, requires a holding-back, a putting aside of that imaginative activity, and demands instead a kind of conservatism». Katixa Agirreren *Amek ez dute* (2018) eleberriaren bigarren kapitulua, antzera, Susan Rubin Suleiman idazle feministaren esaldiarekin hasten da: «Amek ez dute idazten, idatzita daude» (2018, 27. or.). «Erabakia» izenburu duen kapituluak narratzaile eta protagonistaren, Euskadi Saria irabazi berri duen idazle baten, amatasun berriak sortutako paradoxa aztertzen du, eta aurrerago «ama txarra vs idazle ona» (2018, 176. or.) disoziazioa aurkezten du, narrazio osoan zehar lantzen den gaia iradokiz:

Hiru hilabete hiru ordu jarraian lo egin gabe igaro ondoren, hasieran bi egunean behin eta gero astero eta gero hamabostero umea pisu kontroletara eramanez ostean, umearen gorotz/gonbito/muki/eztul ororen erregistro estua eramanez ondok, ama identitateak beste identitate guztiak zurruputzen zituen, aintzinako ni horiek guztiek ahanztura absolutuenera kondenatuta. Idazlea ni? (Agirre, 2018, 33. or.).

Santiago Pérez Isasik eta Aiora Sampedrok (2021, 11. or.) eleberriari buruz esandakoak egoki laburbiltzen du Katixa Agirreren *Amek ez dute* aurretik aipatu dugun Dedererren tesiarekin:

Esta escisión entre ambas madres, entre ambas narrativas (la del asesinato, y la de su investigación), apuntan a dos modelos diferentes (uno más extremo, naturalmente) de “malas madres”. Por una parte, el caso prácticamente inimaginable de la madre infanticida, un tabú que parece ir contra los instintos humanos y animales más básicos; por otra, la narradora representa aquello que en alemán se designa con el

término derogatorio de Rabenmutter (mujer cuervo): aquella mujer que privilegia su vida profesional por encima del cuidado de los hijos, o que al menos se resiste a perder su identidad como mujer o como persona. La madre infanticida ejerce así un efecto de fascinación, atracción y rechazo sobre la narradora [...].

Judith Butlerrek (2004, 35. or.) proposatutako «identitatearen konformazioa» kontzeptuak gizartearen eta hizkuntzaren arauak gainditzeko borroka agerian jartzen du, emakumeek amatasunaren eta sormenaren arteko tentsioan eraikitzen duten identitatearen inguruan. Butlerrek adierazten duenez, identitateak ez dira naturalak, baizik eta gizartean eta hizkuntzan sartzen diren performatibitatearen emaitza. Zentzu horretan, Agirrek emakumeen amatasunaren eta sormenaren artean sortzen den tentsioaren inguruan planteatzen dituenak, identitatearen etengabeko eraikuntza- eta deseraikuntza-prozesuak erakusten ditu.

Butlerren proposamena, generoaren eta identitatearen esentzialismoaren aurkako kritikarekin batera, esentzialismoaren deseraikuntzaren ikuspegitik ulertzen da. Horrela, identitateak ez dira gizartearen oinarritzko egiturak edo elementu finkoak, baizik eta aldakorak, gizartearen botere harremanetan kokatutako adierazpenak.

Deseraikuntza hori paraleloki uler daiteke euskal nazionalismoaren esparruan ere. Tradizionalki, euskal nazionalismoak esentzialismoaren logika erabili izan du, identitate nazionala eta kulturala etnikotasunaren, hizkuntzaren eta kulturaren arrazoi naturaletan oinarrituta. Euskal emakumearen iruditeria, eta amatasunaren metafora, aldagai indartsu. Azken hamarkadetan, euskal nazionalismoaren diskurtsoan ere esentzialismoaren deseraikuntza nabari ageri da. Euskal nazionalismoaren testuinguruan, identitateak ez dira jadanik oinarri naturaletan finkatutako egiturak, baizik eta etengabe behin eta berriz definitzen eta egituratzen diren fenomeno sozialak eta kulturalak. Horrek aukera eman du, bestalde, euskal identitatearen eta nazioaren eraikuntzan inklusio eta aniztasunaren ikuspegiak sustatzeko.

Horrela, Butlerren teoriaren testuinguruan emakumeen identitatearen eraikuntza eta euskal nazionalismoaren identitatearen bilakaera paralelotzat har daitezke, bi kasuetan ere esentzialismoaren deseraikuntzaren prozesu bat gertatzen baita: emakumeek, bereziki, identitatearen inguruko borroka politikoak eta sozialak bultzatuz, eta euskal nazionalismoak, identitate nazionalaren inguruan egindako berrikusketa eta birdefinizioaren bidez, esentzialismoaren eta finkatutako egituren deseraikuntza sustatuz, eta, horren ondorioz, identitatea eta kultura fenomeno aldakor eta egonkor ez diren prozesu bihurtu dira.

7. ONDORIOA: HUSTASUNA ZELATAN

Poetika feministen muinean, pertsonala politikoa den ideia dago. Katixa Agirren eleberriak Dedererren, Richen, Suleimanen eta Butlerren teoriak elkarrizketan jartzen ditu, emakumeen identitatearen eta amatasun munstrokeriaren inguruan dagoen tentsioa eta iruditeria aztertuz, gizartearen ikuspegi alternatiboekin bat eginez.

Funtsean, Retolazak (2009, 254. or.) azpimarratzen duen moduan: «kanpo-diskurtsoen (sozialak eta politikoak) eta barne-diskurtsoen (psikologiko eta sentsorialen) arteko zentzutenkak gobernatzen ditu sinboloak eta irudiak, bi munduen arteko muga zurrunik posible ez dela adieraziz, identitateak bi dimentsio horien tenkan garatzen direla ohartaraziz».

Paradigmatikoa da Miren Agur Meaberen *Azalaren kodea* (2000) poema-liburua, zeinak askotan barreiatuta erakusten baititu «piztiak, munstroak eta mamuak, bere (poetaren) beldur, kezka eta arriskuen ordezkari» (Retolaza, 2009, 253. or.). Hain zuzen, Meaberen (2000, 48. or.) «Munstroa» poemak beste ikuspuntu batetik heltzen dio kontuari, emakumeak (ni poetikoak berak) bere etxea eta bere pertsona inguratzen sumatzen du «izaki malapartatu» zalantza-eragilea, «etorkizun» izenpean idazleaz gutziz jabetu eta hura «hustasun» betera errenditzera iritsita.

Munstro horrek ba ei daki gure helbidea.
 Alabaina, oraindino ez da etorri geratzeko.
 Sarritan sentitzen dut txilioka, gure etxetik ez urrun.
 Beste kontu batzuekin denbora-pasa dabilela,
 errezel osteetan jarrita egoten naiz ni zain
Optimism perfumearen hiruzpalau tantaz
 iduna igurtzita.
 Tarteka, paper-boligrafoak hartzen ditut;
 tarteka, lanbrozko otzarak txirikordatzten ditut.
 Munstroa luzamendutan dabil, gerturatu, ez gerturatu.
 Izaki malapartatu horrek etorkizun du izena.
 Nik hustasun deritzot.

Sinbolo eta mitoei uko egitea aho biko ezpata izan daiteke, kontuan hartu beharreko hainbat arrisku dakartzana; izan ere: «sinbolismoari kontra egiten dion Errealak, perturbazio bezala agertzen zaio subjektuari» (Zulaika, 2024, 166. or.) Meabek «hustasun» baten bidez aurkezten duen etorkizunaren «munstroa» da egungo egoera postnazionalista (Gabilondo, 2020; Martin, 2016) interpretatzeko metafora posibleetako bat. Baina ni poetikoa

inola ere ez da munstro edo pizti hauen aurrean koldartuko eta elkarriketari eutsiko dio. Are gehiago, munstro horien eta subjektuaren arteko muga lausoa izango da askotan eta askotan, ohartaraziz munstro horiek ere barne-munstroak, barne-piztiak, barne-mamuak direla, eta guk geuk utzi diegula geure barruan eroso bizitzen, egoten, garatzen (Retolaza, 2009, 253. or.).

Horrela, sinboloen eta mitoen bazterketak ez ezik, haien absentziak sortzen duen hutsune esanguratsuak ere, gogoeta existentzial eta estetiko sakon baterako atak zabal ditzake. Ere mu horretan, ni poetikoaren diskurtsoak ez du soilik erresistentzia modura jarduten, baizik eta subjektibotasunaren eta errealaren arteko tentsio produktiboan kokatzen da, hizkuntza poetikoa hausnarketa epistemiko eta etiko bihurtuz. Testu-guru postnazionalista honetan, hortaz, barne-munstroen aitortzak ez du helburu haiek

neutralizatzea, baizik eta haien presentziaren bidez subjektu garaikidearen konplexutasuna argitzea eta, azken batean, hauskortasunetik abiatutako harreman-modu berriak proposatzea.

Artikulu honek aztergai izan du nola azken hamarkadetako euskal emakume idazleek alienazio-iturritzat jotzera iritsi diren nazionalismoaren «ama ereduzko»-aren mitoaren bizipena. Aldaketa hain da sakona, non euskal kultura tradizionalen funtsezkoa izan den arketipoak –«ama ereduzko»-ak– lekua utzi baitio kontrako arketipo bati: gorago aipaturiko *mum fatale* (Rodriguez, 2019, 24. or.) edo «ama munstro»-ari. Hainbat narrazio eta poema aztertutik, ondorioztatzen da literaturaren esparruak rol erabakigarria jokatu duela amatasunari buruzko ikuspegi-aldaketa zabalean, horrenbestez sakon eraginez euskal identitate nazionalistaren eraldaketan. Antzeko ardura adierazten du Itxaro Bordak (2013, 47. or.) ere:

Hizkuntza halaber hilotz bat da. Euskara ama hizkuntza dela errepikatzen da. Txapeldun bilakatu zen saioaren bukaeran Maialen Lujanbiok ukigarriki kantatzen zuen mintzairaren transmisioan baina bere ahoan ez zitekeen bakarrik elea noski eragiten zuten emakumeen haria: amama, ama, alaba, ahizpa... Hizkuntzaren hilotza emazteen bizkar-esku utzi eta gizonezkoak mediku forenseak bailiran altxatzen zaizkigu, hala nola Koldo Izagirre, 2010ean Susan plazaratu zuen Autopsiarako Frogak saiakerak collage interesgarriarekin. Ustel urrinarekiko herio iragarriaren kronika eskaintzen zigun. Puntu honetan galdera zera liteke: nola idatzi, nola bizi, nola iraun aditz hilotzu bat ezpainen? Noiz zilegituko zaio euskarari izaera animatu maneran zutitzeo eskubidea? Intimitate larrutua berraurkitzea komeni al zaigu, *gu* handios leher-tzailearen atzean dauden *ni* ugariei bidea irekiz?

Gizarte batentzat funtsezkoa bada ere bere kontakizun historikoak kritikoki aztertea eta zehaztugabeak edo baztertzailak izan daitezkeen mitoak desafiatzea, badira mito horiek desegiteari lotutako arriskuak, batez ere kontzientzia kolektiboan sakonki txertatuta daudenean. Honela adierazten du Joseba Zulaikak (2024, 166. or.):

Erakunde, sinbolo eta praktika sozialen inguruan eraikitzen da eguneroko errealtatea. Erreala, aldiz, gizartearen eraikuntza eta mundu sinbolikoaren tentsio etengabea dagoena da, «errealitateak» erakutsi eta aipatu ezin duena hain zuzen. Gauza bat da «sinbolikoa» dena: hizkuntza, legea, sinismenak [sic], erakunde sozialak. Hutsaren, traumaren eta antagonismoaren esparrua da Erreala, legearen eta hitzaren eremuetan kabitzen ez dena. Bi esparru desberdin horien artean dauden arrakala sakonek ordena sinbolikoari berari (sinismenei [sic], legeari) eragiten diote.

Hortaz, «ama ereduzko»-aren mitoaren desegiteak eta haren ordez «ama munstro» edo *mum fatale* bezalako arketipo kontrajarrien agerpenak, euskal emakumezkoen literaturan izandako diskurtso-aldaketaren isla baino gehiago dira: identitate kolektiboaren beraren berridazketa sakon eta erradikalaren lekukoak dira. Euskararen eta euskal nazioaren inguruko sinbolo hegemonikoen auzitan jartzeak, bereziki amatasunaren eta hizkuntzaren uztardura afektiboaren deseraikuntzak, subjektibitatearen eta gizartearen arteko lotura berriak proposatzen ditu, non emakumezkoen gorputza eta ahotsa ez

diren jada transmisioaren eta sakrifizioaren euskarri isilduak, baizik eta diskurtsoaren egile aktibo eta subertsiboak. Halako berrirakurketak, hala ere, ezin dira inpunitatez burutu, kontzientzia kolektiboan sustraitutako mitoek funtzio kohesionatzaile garrantzitsua baitute. Izan ere, mito nazionalen deuseztapenak identitatearen, oroimenaren eta kohesio sozialaren ardatzak higatu ditzake, eta subjektuen arteko zubiak zartatuz, komunitatearen osotasuna arriskuan jarri. Horregatik, ezinbestekoa da aitortzea mitoek –eta, bereziki, haien dekonstrukzioak– ez dutela soilik iraganarekiko kontu-kontzientzia historikoa eskatzen, baizik eta orainaren eta etorkizunaren gaineko ardura etikoa ere bai. Galdera da, beraz: zer gertatzen da mito horiek suntsitzean sortzen den hutsune sinbolikoarekin? Eta nola bizi hutsune hori, hustasun moduan agertzen denean? Bali-teke hutsune hori bera izatea gure garaiko munstro handiena –hizkuntzaren hilotza, identitatearen krisia, eta kontakizun partekatuen galera–, eta baliteke ere munstro horri aurre egitea geure burua berrasmatzeko derrigorrezko pasabidea izatea. Literatura, zentzu horretan, ez da soilik narrazio estetikoaren gunea, baizik eta erresistentziarako eta berrasnakuntzarako espazio politiko eta sinbolikoa, non poetak iragartzen duen «hustasuna»-ren aurrean, hitzak eta irudiak bihurtzen diren subjektu kolektiboaren berreraikuntza posiblearen lehen aztarnak.

8. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Agirre, K. (2018). *Amek ez dute*. Elkar.
- Aire, F. “Xalbador”. (1976). *Odolaren mintzoa*. Auspoa Liburutegia.
- Alberdi, U. (2011). Ekografia. In M.J. Olaziregi (arg.), *At!* (9.-10. or.). Etxepare Euskal Institutua.
- Aldekoa, I. (2015). *68ko belaunaldia: politika, kultura eta beste mamu batzuk*. Utriusque Vasconiae.
- Ariznabarreta, L. (2022). On Eider Rodriguez’s fiction: gender, anger, and (Basque) politics. *Symposium: a Quarterly Journal in Modern Literatures*, 76(2), 61-75. <https://doi.org/10.1080/00397709.2022.2064630>
- Arrieta, L. (2022). The Basque heroine Libe and the nationalist press (1895-1936). *Gender & History*, 34(1), 77-97. <https://doi.org/10.1111/1468-0424.12534>
- Apaolaza, U. (2014). The shopping cart. In G. Lasarte (arg.), *Ultrasounds: Basque women writers on motherhood* (33.-35. or.). University of Nevada.
- Barandiaran, J.M. (1972). *Obras completas: diccionario ilustrado de mitología vasca*. La Gran Enciclopedia Vasca.
- Bilbao, L. (2011). *Scanner*. Susa.
- Bilbao, L. (2020). *Etxeko urak*. Susa.
- Borda, I. (2013). Intimitatea zartagailu. 452°F. *Literaturaren Teoria eta Literatura Konparatua Aldizkaria*, 9, 42-55.
- Bullen, M. & Díez Mintegui, C. (2010). Matriarchy versus equality: from Mari to feminist demands. In M.L. Esteban & M. Amurrio (arg.), *Feminist challenges in the social sciences: gender studies in the Basque Country* (113.-124. or.). University of Nevada; UPV/EHU.
- Butler, J. (2004). *Lenguaje, poder e identidad*. Síntesis.
- Dederer, C. (2023). *Monsters: a fan’s dilemma*. Knopff.

- Díez Mintegui, C. (1999). Mari, un mito para la resistencia feminista. *Ankulegi*, 3, 63-72.
- Esnaola Gonzalez, M. (2014). Amaren musupolka. *Hegats*, 5, 103-107.
- Esteban, M.L. (2013). *Amaren heriotzak libreago egin ninduen*. Pamiela.
- Esteban, M.L. (2019). *Andrezaharraren manifestua*. Pamiela.
- Fermon, N. (1997). *Domesticating passions: Rousseau, woman and the nation*. Wesleyan University.
- Gabilondo, J. (2020). *Babel aurretik: Euskal literaturaren historia bat*. Txalaparta.
- Gimbutas, M. (1991). *The civilization of the goddess: the world of old Europe*. Harper.
- Gorostazu, J. (2012). *Des egiten*. Elkar.
- Hall, S. (1996). Ethnicity: identity and difference. In G. Eley & R.G. Suny (arg.), *Becoming national* (339.-351. or.). Oxford University Press.
- Hamilton, C. (2007). *Women and ETA: the gender politics of radical Basque nationalism*. Manchester University Press.
- Izagirre, K. (2001). Sarrera. In A. Lasa, XX. mendeko poesia kaierak (7.-8. or.). Susa.
- Jeffery, P. (1998). Agency, activism and agendas. In P. Jeffery & A. Basu (arg.), *Appropriating gender: women's activism and politicized religion in South Asia* (221.-244. or.). Routledge.
- LaCapra, D. (2006). Experience and identity. In L. Alcoff, M. Hames-García, S. Mohanty & P. Moya (arg.), *Identity politics reconsidered* (228.-245. or.). Palgrave Macmillan.
- Lasa, A. & Lasa, M. (1971). *Poema bilduma*. Herri Gogoa.
- Lasarte, G. (2011). La maternidad en el imaginario de las escritoras vascas. *Feminismos*, 18, 203-223. <https://doi.org/10.14198/fem.2011.18.11>
- Lasarte, G. (2014). *Ultrasounds: Basque women writers on motherhood*. Center for Basque Studies.
- Lessing, D. (1962). *The golden notebook*. Simon & Schuster.
- Llona, M. (2016). The healing effect of discourses: body, emotions, and gender subjectivity in Basque nationalism. In R. Benmayor, M.E. Cardenal & P. Dominguez (arg.), *Memory, subjectivities, and representation* (77.-93. or.). Palgrave Macmillan.
- Llona, M. (2010). Patriotic mothers of Basque nationalism: women's action during the Spanish Second Republic in the Basque Country. In M.L. Esteban & M. Amurrio (arg.), *Feminist challenges in the social sciences: gender studies in the Basque Country* (85.-99. or.). University of Nevada; UPV/EHU.
- Martín, A. (2016). Vulnerability and the literary imagination in the Basque context. In C. Dominguez, A.A. González & E. Sapega (arg.), *A comparative history of literatures in the Iberian Peninsula*, Vol. II (64.-73. or.). John Benjamins.
- Mazkarian, Y. (zuz.). (2020). *Anderea* [Filma]. Mazkarian, Y.
- McCrone, D. (1998). *The sociology of nationalism*. Routledge.
- Meabe, M.A. (2000). *Azalaren kodea*. Susa.
- Olaziregi, M.J. (2021). Beyond the motherland: memory and emotion in contemporary Basque women's fiction. In L. Ariznabarreta & N. Lete (arg.), *Memory and emotion: (Basque) women's stories: constructing meaning from memory* (263.-293. or.). University of Nevada.

- Pérez Isasi, S. & Sampedro, A. (2021). Sobre la recepción de *Las madres no* de Katixa Agirre. *Rassegna Iberistica*, 44(115), 179-194. <https://doi.org/10.30687/Ri/2037-6588/2021/16/011>
- Redondo, M. (2021, urtarrilak 24). Tras Mari, la gran dama vasca. *Noticias de Navarra*.
- Renteria-Uriarte, X. (2022). Mariren hamaika aurpegiak... Eta (ia) guztiak biltzen dituen. *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, 40, 49-68.
- Rich, A. (2018). *Culture, politics, and the art of poetry: essential essays*. Norton.
- Rodriguez, E. (2019). *Idazleen gorputzak*. Susa.
- Ruddick, S. (2009). On maternal thinking. *Women's Studies Quarterly*, 37(3/4), 305-308.
- Saizarbitoria, R. (1995). *Hamaika pauso*. Erein.
- Strine, M. (1989). The politics of asking women's questions: voice and value in the poetry of Adrienne Rich. *Text and Performance Quarterly*, 9(1), 24-41. <https://doi.org/10.1080/10462938909365910>
- Urretabizkaia, A. (1998). *Koaderno gorria*. Erein.
- Villagran Arrastoa, A. (2021a). La muerte de mi madre me hizo más libre: lectura de los discursos matrofóbicos en la poesía vasca contemporánea escrita por mujeres. In C. Duraccio (arg.), *Escritoras y fronteras geosimbólicas* (435.-456. or.). Dykinson.
- Villagran Arrastoa, A. (2021b). No woman's land. Gatazkaren (h)egietan barna: euskal emakume olerkarien gatazka-guneen irakurketa. In I. Ordeñana & I. Retolaza (arg.), *Indarkeriak dantzatzera behartzen gaituzte: gatazka armatuaren irakurketa feministak* (231.-268. or.). UEU.
- Villagran Arrastoa, A. (2025). *Poetika feministak Afektuaren Ikasketen argitan: euskal poesia garaikidearen irakurketa proposamen bat (1971-2020)* [Argitaratu gabeko doktore-tesia]. UPV/EHU.
- Yuval-Davis, N. (1997). *Gender and nation*. Routledge.
- Zulaika, J. (1988). *Basque violence: metaphor and sacrament*. University of Nevada.
- Zulaika, J. (2024). *Aberriaren inpaseak*. Alberdania.

Alabatasunetik idazten: aitak eta gatazkak egungo emakume idazleen nobelagintzan

Escribir como hija: padres y conflictos en escritoras vascas contemporáneas

Writing from daughterhood: Fathers and conflicts in contemporary Basque women writers

K. Josu Bijuesca
Deustuko Unibertsitatea
josu.bijuesca@deusto.es
<https://orcid.org/0000-0002-6300-4573>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv139.6>

Jasotze data: 2025/03/27. Behin behineko onartze data: 2025/06/07. Behin betiko onartze data: 2025/06/10.



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

LABURPENA

Artikulu honen helburua da aztertzea egungo bost nobelatako protagonistek nola bizi dituzten patriarkatutik etor dakeen biolentzia eta borroka armatuaren inguruan sorturiko biolentzia, aitarekin duten harremana irudikatzeko moduaren arabera gatazken memoria egitean. Horretarako bi dira erabili diren erreferentziatzko ildo teorikoak: gatazken memoriari buruzko hausnarketa kritikoa eta kritika feministak aita-alaben arteko harremanaz egiten duen irakurketa.

Gako hitzak: alabak; aitak; gatazkak; memoriak; emakume idazleak.

RESUMEN

El objetivo del artículo consiste en analizar cómo las protagonistas de cinco novelas vascas contemporáneas experimentan las violencias ejercidas por el patriarcado y por la lucha armada mediante el modo en que representan la relación con su padre al recordar los conflictos. Para ello se ha recurrido a dos líneas teóricas de referencia: la reflexión crítica sobre la memoria de los conflictos y la lectura que ofrece la crítica feminista sobre la relación entre padre e hija.

Palabras clave: hijas; padres; conflictos; memorias; escritoras.

ABSTRACT

This article explores how the protagonists of five contemporary Basque novels articulate their experiences of two (interrelated) forms of violence: the structural violence of patriarchy and the historical violence of armed conflict. Central to this inquiry is the narrative construction of the father-daughter relationship, which functions as a lens for recalling and reconstructing personal and collective memory. The analysis draws on two intersecting theoretical frameworks: feminist literary criticism –particularly its readings of father-daughter dynamics– and critical approaches to memory of political and social conflict.

Keywords: daughters; fathers; conflicts; memories; women writers.

1. SARRERA. 2. AITAK ETA GATAZKEN MEMORIAK (MARKO TEORIKO GISA). 2.1. Aitaren metafora eta benetako aita. 2.2. Gatazka(k) eta memoria(k). 3. AITA ETA GATAZKAREN MEMORIA (POST)BIOLENTZAREN ALDIKO EUSKAL EMAKUMEEN NOBELAGINTZAN. 3.1. *Kristalezko begi bat*. 3.2. *Atertu arte itxaron*. 3.3. *Jenisjoplin*. 3.4. *Aitaren etxea*. 3.5. *Eraikuntzarako materiala*. 4. ONDORIOAK. 5. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

Artikulu honen asmoa da azken hamarkada luzean euskal emakume idazleek idatzitako nobela-sorta bat aztertzea. Nobela horiek auzi berari jarri diote arreta, biolentzien memoriaren auziari hain zuzen ere, ustez postbiolentziakoa den une honetan. Nobela horietan guztietan bi harreman-motaren arteko gainezarpina bizi duen subjektu femenino bat dago istorioaren gunean, eta subjektu hori bi-biek sor dezaketen biolentzia pairatzeko egoeran dago. Alde batetik, ETaren su-etenaren aldi inguruko eta lehenagoko erakunde sozio-politikoekiko harreman estuago edo urrunagokoa ageri da. Beste batetik, familiarekiko harremanek berebiziko garrantzia erakusten dute, harreman horietan subjektu femeninoak aldi berean posizio ugari beterik ere (guraso batzuen alaba, bere haurren ama edota norbaiten bikotekide, besteak beste), denetan alabarena nabarmentzen delako, eta bereziki figura maskulino baten alaba biologikoaren posizioa edo ezkontzaren bitarteko alabarena (erraina, alegia).

Artikuluaren helburua da aztertzea nobela horietako protagonistek nola esperimentatzen dituzten aipaturiko bi harreman-mota horiek, zenbateraino sentitzen duten subjektuek biolentzia-egoera gutxi-asko iraunkorretara menderatzen dituztela eta nola intersektatzen duten elkarren artean bi botere-sare horiek. Helburuaren zerbitzura izan daitezkeen marko teorikorik egokienak bi dira nagusiki: postbiolentziaren aldiko memoriari buruzko hausnarketa kritikoa eta feminismoak aita-alaben arteko harremanaz egiten duen irakurketa. Adierazitako planteamendu horrek zehaztasun metodologikoa hartzen du analisi literarioaren bitartez, batez ere protagonistek beste pertsonaiekin eratutako harremanen analisiaren bitartez.

Azterketa objektutzat hartutako nobelen corpora honako hauek osatzen dute, adierazitako bi harreman horien arteko gainezarpenera modu agerikoan lantzen dutelakoan: Miren Agur Meaberena *Kristalezko begi bat* (2013), Katixa Agirreren *Atertu arte itxaron* (2015), Uxue Alberdiren *Jenisjoplin* (2017), Karmele Jaioren *Aitaren etxea* (2019) eta Eider Rodriguezen *Eraikuntzarako materiala* (2021)¹.

2. AITAK ETA GATAZKEN MEMORIAK (MARKO TEORIKO GISA)

2.1. Aitaren metafora eta benetako aita

Katixa Agirre izan ezik, hemen aipaturiko idazle guztiak lekuko izan zituen Eider Rodriguezek (2019) emakume idazle garaikideez osaturiko azterketa-saiakeran, *Idazleen gorputzak: egiletasuna ezbaian literaturaren joko zelaian* izenekoan, eta horiekin batera ibilbide luzeagoko Arantxa Urretabizkaia eta Laura Mintegi, hemen aztertuko ez direnak. Uxue Alberdiri eskainitako atalean idazle honek adierazten du «bere pertsonaia gehienak ama baino alaba direla» eta konturatzen dela «amatasunetik baino alabatasunetik idatzi duela» (Rodriguez, 2019, 90. or.). Bere *Jenisjoplin* nobelarentzat ez ezik, Alberdiren oharra aproposa da, gutxi-asko, artikulua honetan landuriko eleberrri guztientzat, denetan protagonistaren ertzetako bat alaba izatea delako, eta sarritan ezaugarri garrantzitsuenetarikoa. Aitaren figura patriarkatuaren iruditzat jo izan dela eta, ikuspegi horrek aukera ezin hobea eskaintzen die idazle hauei patriarkatuaz hausnartzeko, baina aldi berean aita errealean barnean miatzeko ere bai.

Aitaren figuraz osaturiko saio multzoaren sarreran Silvia Turbetek (1997, 9. or.) hiru ardatz teoriko identifikatzen ditu testuinguru sozio-historiko askotarikotan aitatasuna eraikitzen duten diskurtso eta praktikak eratzeke: (1) eraikuntza kulturala den aldetik, aitatasunak jite historikoa du; (2) ez dago aitatasuna ulertzerik amatasunarekiko artikulazioan ez bada, gurasotasun-sistemaren baitan soilik duelako zentzua; (3) aitatasunaren eta gurasotasunaren irudikapenak, osteraz, ez dira ulergarriak kulturaren unibertso sinbolikoan txertatu ezik, kultura horren parte direlako.

Emakumeen zapalkuntza iturri den heinean, berebiziko arreta eskaini diote patriarkatuari hala feminismoak orokorrean nola teoria literario feministak. Azken eremu horren arabera ere, patriarkatua ez da indar monolitiko hutsa, baizik eta alaba, ama eta aita kokatzen dituen prozesu psikologikoa (Kowaleski-Wallace, 1997, 210. or.), hots, gurasotasun eta familia-sistema batean eragiten duen indarra. Hortaz, espero daitekeenaren barruan dago azken hamarkada luzeko euskal nobela horietan ere aita-alaben inguruan ama eta beste senitarteko batzuk agertzea. Eta alaba diren protagonista

1 Irati Goikoetxearen *Herriak ez du barkatuko* (2021) nobelak zenbait ezaugarri partekatzen du aipaturikoeekin, batez ere memoriari dagokionez. Hala ere, alabaren aitarekiko harremanaz den bezainbatean, eleberrri honetan protagonistaren harremana ez da ezartzen zuzenean aitarekin, baizik eta aitaren ausentziak utzitako hutsunearen bitartez, ETAK hil duenez gero. Harreman-mota horrek nobela hau besteetatik bereizten du eta azterketarako tresna teoriko berariazkoak eskatzen ditu, azterketa honetan erabili ez direnak. Horregatik ez dago hemen aztertuturikoen artean. Goikoetxearen nobela dela eta, ikus Olaziregiren artikulua, zenbaki berezi honetan bertan.

horiek beste posizio batzuk ere hartuko dituzte familia-sisteman, euren bizitza-ibilbidean noizbait bikotekide edo emazte izanik, bai eta ama ere. Posizio-aniztasun eta harreman-sare hori guztia begietatik galdu beharrekoa ez bada ere, hemen alaba protagonista aitarekiko harremana izango da induskatzeko eremu nagusia.

XX. mende amaierako feminismoan aita abstrakzio gisa irudikatzeko joera antze-man da Yaegerren (1989) iritzian. Ikuspegi horrek aita kontzientziaren indar ikusezinaren ordezkari egiten du, bai eta gizartea bera arautzen duen legalitate diskurtsibo eta hertsagarrienaren ordezkari ere. Ikuspegi horren aurrean Yaegerrek proposamen pare bat dakar. Lehenik eta behin, somatofobiak (gorputzaren mamitasun eta aldagarritasunari zaion beldurak) karakterizatzen duen bezala emakumeen gorputzekiko gatazka, asomia edo gorputz gabezia litzateke aita deskribatzeko eta gogoan hartzeko modu ohikoena. Eta ondoren, narratibak banatzeko modu nagusiak, feminismoan ohi-koak direnak, gainditu beharra, hots, diskurtso patriarkalari eta lortu gabeko desireri buruzko narratiba edipalizatuak alde batetik eta intimitateari edo ez-diferentziatzeari buruzko narratiba preedipikoak bestetik, banaketa horrek gorago aipaturiko somatofobia eta asomia bere horretan uzteko baino ez dutelako balio. Horren aurrean, feminismo kritiko berreraikitzaile baten egitasmo nagusienetako bat aitari gorputza esleitzea litzateke, aita izaki somatiko gisa berreraikitzea, bulardun gorputz gisa (Yaeger, 1989, 9. or.). Aitatasunaz diharduten zenbait lan poetiko dituelarik aztergai, denak gizon idazleek idatzitakoak, eta bereziki Coleridgeren «Christabel» poemaren harira, lan literario horietan irudikaturiko aiten antsietate eta desira ikusezinak agerian uzteko aldarria egiten du Yaegerrek. Horri esker feminismo kritikoa aita berrirudikatzen hasi da halako moldez, non ikusgarri, zaurgarri eta haragizko egin duen. Bide horretatik jarraitu beharra legoke aitaren figura berreraikitzen, harik eta asomia egoera irauli eta ondorio guztiekin gorputzuriko aitaren irudikapen berria agertu arte: «we must continue to reconstruct this father as a contactable, masterable, libidinal body, as a being who can be anatomized, fragmented, shattered or cherished as someone who no longer operates from an abstract and transcendental realm» (Yaeger, 1989, 19. or.).

Patriarkatuak alabari esleituriko posizioa deserosoa edo ezegonkorra izan daiteke. Kowaleski-Wallacen (1997, 210. or.) arabera, historiako une batzuetan gorputz amatiarraren debaluazio kulturalak eragin du noizbait alaba aitaren aldera lerratzea, bai eta aita horrek irudikaturiko posizio politikora, eta horren ondorioz emakumeak patriarkatuarekin identifikatzea gertatu da. Bestalde, Mukherjee (1997) erakutsi du psikoa-nalista feministek (hala objektu harremanen arabera koek nola lacaniarrek) berebiziko garrantzia eskaini diotela ama-alaben arteko harremanari, aldi preedipikoa lehenetsi dutela emakumeen diferentzia moldatzen duelakoan, eta alabaren amarekiko lotura sakonean aurkitzen dutela emakumeek beren burua zentzu erlazionalean ulertzea. Hor-tik letorke, Mukherjeeren ustez, XIX. mendeko nobeletan ama pertsonaiak bazter-tzea, alaba heroiak eraginkor izan zitezen bilbean, eta 1970az geroztiko nobelagintzan, ordea, aitak desagertzea «female plots» direlakoan (Hirsch, 1989) mesedetan, hots, ama-alaben arteko harremana irudikatzeko. Hala ere, alabaren amarekiko lotura hori anibalentziak eta ezinegonak jotakoa izan liteke, amak alaba ordena sinbolikoan sar-tzen duelako bere burua alteritate gisa proiektatuz eta alteritate horrekiko elkarriket-tan mamitzen delako alabaren nortasuna (Mukherjee, 1997, 144. or.).

Ama-alaben arteko harremana beti erraza ez bada, are arazotsuagoa izan daiteke aita-alaben artekoa. Emakume ororen aitarekiko harremana patriarkatuaren zama nozitzeko hasiera unea bada ere, Kowaleski-Wallacek eta Yaegerrek (1989, xiii. or.) tentuz jokatu beharra aurkitzen dute, analisi mugatuegia delakoan patriarkatuak alabari dakarkion hertsadura guztiaren erantzukizuna aita bakunaren bizkar gainean jartzea. Kritikari horien ustez okerra litzateke aita hori patriarkatuaren metaforatzat hartzea eta bera egitea alabaren larrialdiaren errudun. Izan ere, jarrera horrek erabat ahazten du dominazio maskulinoaren mekanismoak konplexuak direla, aitarik gabe ere alaba patriarkatuaren eraginpean dagoela, aita bakuna kenduz gero patriarkatuaren eragina desagertu egingo balitz bezala. Aitaren metafora nozio indartsua bihurtu da teoria lacaniarrari esker. Teoria horrek aitaren rolari izaera sinboliko berezia aitortzen dio subjektibitatearen garapenean, gizakia subjektu bihurtzen duelako aitaren lehen debekuak, intzestuen kontrakoak. Debeku horrek gizakiari eskainiko dio gizartearen debeku eta arau guztietarako sarbidea, hizkuntzarako eta hizkuntzaren bitartez eratutako ordena sinbolikorako sarbidea alegia, eta horrela aitaren lehen debekuak gizabanakoa subjektu egiten du, subjektu horren desira erreprimitzeraz eta inkontziente bihurtzera behartzearekin batera, kastrazio sinbolikoaren eraginez (Geronimo, 1997; Lacan, 2013, 531.-532. or.).

Aita-alaben arteko harremanaren kritika feministan aita, edonolako gizabanakoa izanik ere, opresio patriarkalaren ordezkariatzat hartzeko joera dagoela uste du Kowaleski-Wallacek. Kritikari horren iritzian, ordea, feminismo kritikoaren egitasmoa da aita horren egia agerian uztea haren gizatasuna erakutsirik, hutseginkor eta erreal bihurturik, hau da, metaforizazio-prozesuan lausoturikoa bere zehaztasunera ekarrita, horrek guztiak aita metaforiko ahalguztidunaren irudiari arrakalak begi bistan utziko dizkiolakoan. Aita metaforikoki irakurtzearen ondorioak ikusita, Kowaleski-Wallace- ren (1989, 297.-298. or., 310. or.) proposamena da aita hori sinekdoke gisa ere ulertzea, hots, patriarkatuaren prozesu osoaren irudikapen partzial gisa. Azken batean, aitaren irakurketari sinekdokea gehitzen bazaio, berez etorriko da aitortzea mundu akastun batean bizi garen subjektu akastunak garela eta aita bera ere subjektu horien artekoa dela, berak ere bere kastrazio sinbolikoa erakusten duten zaurien aztarnak dituela, zeinek guztiahal aitatiarraren mitoa gezurtatzen baitute (Kowaleski-Wallace, 1989, 308.-309. or.).

Patriarkatua globalizazioaren aroan zertan den aztertu du Beatrix Campbellek (2013). Honen arabera, munduko erakunde finantzarioen lehentasun neoliberal eta kontrairaultzaileak suntsitzen ari dira XX. amaieratik zetorren berdintasun-paradigma. Berdintasun-aukera aldarrikatzen badute ere, praktikan bultzatzen dutena egitan da modernizazio atzerakoia, zeinak lan-banaketa patriarkalari eta maskulinitate eta feminitate tradizionalei aurrerabidea ematen dien, itxuraldaturik bada ere. Horren guztia- ren ondorioa berezkoa litzateke: «A neoliberal neo-patriarchy has emerged as the new articulation of male domination» (Campbell, 2013). Hari horri tiraka Kirsten Campbell (2018) patriarkatu berri horren ezaugarriak zehazten saiatu da. Horretarako Carole Patemanek garaturiko sexu-kontratuaren nozioan ezartzen du oinarrietako bat. Patemanen arabera patriarkatuak aspaldi utzi dio aitatiarra izateari. Gizarte zibil modernoan ez du egituratzen ahaidetasunak edota aitaren botereak. Modernitatean emakumeak

gizonei subordinatuta daude gizon diren heinean eta gizonek euren arteko anaiartea osatzen duten heinean. Gizonei aitortzen zaien ezkontza-eskubidea sexu-kontratuaren iturburuan legoke. Hortaz, jatorrizko sexu-kontratua aitaren porrot politikoaren ondoren gertatu da eta anaiarteko patriarkatu modernoaren sortzailea da (Pateman, 1988, 12. or.).

Kirsten Campbellen esanetan, feminismoaren laugarren olatuak gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun sozial, ekonomiko eta politikoen jarraipena identifikatu du gizarte ordena garaikidean, bere dominazio- eta botere-formetan oraindik ere maskulinoa den ordena honetan. Maskulinitatearen anaiarteko forma hauek honako praktketan gelditzen dira agerian: online sexismo egunerokoa, emakumeen irudi sexualen trukearen bitarteko loturan eta gizarte nagusitasunaren asertzioan gizonei erronkak jartzen zaizkienean, besteak beste. Maskulinitate hegemonikoaren forma honek subjektu bat ekoizten du bere burua ahalguztidun eta maisutasunezkoztat duena. Horrela subjektu maskulinoak subjektu femenino kastratuaren fantasia behar du bere gabezia errefusatzeko eta oldarkeriarainoko beldurra dio bere posizio sozial eta subjektiboaren aurrean erronkarik jartzen duen orori (Campbell, 2018, 19.-20. or.).

Itxura batean, globalizazioaren aldiko emakumeen lehen posizioa berdintasunezkoa litzateke sexu-kontratu berrian. Posizio hori, ordea, promesa bat baino ez da, ahalduz ekonomiko eta politikoa promesa, batez ere hezkuntzaren eta enpleguaren alor publikoetan gertatuko omen dena. Promesa hori subjektu maskulinoen anaiarteko lokarri modernoak ekoitziriko berdintasunaren diskurtsoan oinarritzen da. Baina feminismoaren laugarren olatuaren arabera berdintasunaren ilusioa sortzen duen diskurtsoa baino ez litzateke izango. Benetan eskaintzen duena, oster, subjektu maskulinoa bezalakoa izateko eskubidea da, emakumeak behartzen baititu gizarte-kontratuan sartzerako subjektu maskulino gisa ala subjektu horien alteritate gisa, ordena sozio-sinboliko hori bera termino maskulinoaren inguruan egituratzen baita. Hortaz ezina da feminitate arrakastatsu baten posizioa lortzea, ezinezko fantasia bat delako (Campbell, 2018, 22.-26. or.). Azken batean, patriarkatu anaiartekoan oinarrituriko ordena sinbolikoak ekoizten duen Emakumea ez dator bat benetako emakumeekin. Zentzu horretan, feminismoak kontestaziorako tokia aurkitzen du hor, bai eta diskurtso feminista berriak sortzeko aukera ere, Campbellen ustez. Diskurtso feminista berri horiek subjektu hitzaren posizioan jartzen dituzte emakumeak, zeinek nahieran irudikatzen dituzten feminitateen plazer eta miserien errealitatea, subjektu maskulinoaren fantasia ez bezalakoa (Campbell, 2018, 28. or.).

Corpusa osatzen duten lan literarioetan, subjektu hitzun femeninoek sorturikoak direnez gero, errealitate horietako batzuk irudikatzen dira, non emakumeek gatazka egoerak bizi dituzten patriarkatuaren forma ezberdinekin, aitaren figurari atxikitako patriarkatu tradizionalagoarekin nahiz patriarkatu moderno anaiartekoarekin. Baina aldi berean patriarkatu horiekiko harreman askotarikoak dituzten aitak edota anaia eta bikotekideak ere irudikatzeko aukera baliatuko dute. Nobela horietan ageri diren emakume-alabek euren plazer eta miserien errealitatea erakusteko eskubidea aitortuko diete euren buruei, subjektu maskulinoaren fantasiatik urrun.

2.2. Gatazka(k) eta memoria(k)

Gatazka politikoari edota borroka armatuari buruzko aztertzaileak aspaldi ohartu ziren gatazka hori beste gatazka batzuekin batera gertaturik ere, beste horiek ikusezin bihurtzeko gai zela eta aldi berean horri buruzko literatura memoriaren eraikuntza-prozesuaren osagai garrantzitsuen artean dagoela. Atera zenetik honako urteetan erreferentziazkoa bilakaturiko *Maldetan sagarrak* liburuaren sarreran Ibon Egañak *gatazka* hitza zenbaitentzat eufemismo hutsa zela nabarmendu zuen, bai eta hitz horri atxikitako esanahi eta erabilera askotarikoa ere (Egaña, 2006, 8. or.). Liburu horretako parte-hartzaileen arteko Itxaro Bordak borroka armatuaren jite epikoa azpimarratzearekin batera, totalitarioa eta matxista ere bazela salatu zuen eta emakume idazleek «epikotasunik gabeko egunerokotasuna ekarri zute[la] irakurleen begietara» aldarrikatu zuen (2006, 21.-24. or.), berak ere «poesia eta epikotasunik gabe» irudikatu zuen bezala borroka armatua bere lanetako batean. Bordaren orduko azken ondorioa da «[l]iteraturaren jokoa mirail eta aldi berean memoria-leku geratzea ze[la]» (2006, 32.-33. or.). Harrezkero hazi baino ez da egin gatazkei eskainitako arreta, bai eta gatazka horiek memoriaren eraikuntzari egin diezaioketen ekarpenaren kontzientzia.

Borroka armatua bertan behera utzi zenetik zenbait urte igaro direnean, gatazkaren eta memoriaren arteko harremana hain da garrantzitsua egungo euskal kulturarentzat ezen *Jakin* aldizkariak «Gatazkaren memoria, memoriaren gatazka» hautatu duen gaitzat azken zenbakietako baten sail nagusirako, noiz eta «[e]uskal gatazkaren inguruko lehia diskurtsiboak errepresentazio krisi batera eraman gaitu[enean]» (Velte, 2024, 112. or.). Horrako ibilbidean ugari eta askotarikoak izan dira mugarriak. Hemen artikuluen helburuetarako garrantzitsuenak izan daitezkeenak ekartzeko ahalegina egingo da, jakinik gaiari buruzko bibliografia hemen aipaturikoa baino askoz zabala goa dela. Horien artekoa dugu Zuriñe Rodríguez eta Oihana Etxebarrietaren *Borroka armatua eta kartzelak*. Borroka armatuan parte hartzeagatiko kartzelaren esperientzia bizi izan duten emakumeen testigantzak bildu eta aztertzearekin batera, ikertzaile horiek kartzelatik kanpoko beste kartzela edo kaiola moduko batzuk identifikatu dituzte emakumeen bizitzetan, eta ez soilik borroka armatuak iraun duen bitartean, baizik gerora ere. Bestelako kartzela/kaiola horien artean leudeke familia eta herria. Gizartearen oinarritzko unitate den familia dela eta, emakumeen esplotaziorako gune pribilegiatutzat dute, bai eta indarkeriazko mekanismo ugariren bilgunetzat, hala nola ama izatea, baldintzarik gabeko zaintza, edo etxeko lanak doan egitea, besteak beste (Rodríguez & Etxebarrieta, 2016, 32. or., non Jule Goikoetxearen ideiak laburtzen diren). Familia, azken batean, egitura sozialen errealitatea ezkutatu egiten duen erakundea baino ez litzateke izango, sexuaren bidezko lan banaketa eta zaintza- eta erreproduktzio-zereginak emakumei egoztera bideratua (Rodríguez & Etxebarrieta, 2016, 85. or., non Observatori del Sistema Penal i els Drets Humans erakundearen argitalpen bateko aipua jasotzen den). Familiarekin batera, herria ere kaiola da zenbait emakume abertzale eta feministarentzat, hor eskaintzen zaizkien aukerak eta etorkizuna errepresibotzat dituztelakoan «feminitate normatiboaren erreproduktzio fidela eta bakarra» direlako. Hortaz, borroka armatua amaierara heldu dela ikusita eta hortik etorri behar lukeen bakean pentsatuta, honako galderak egiten dituzte, aski era erretorikoan: «gatazkaren amaiera eta konponbidea dira bakea? Noren bakea?», jakinik ustezko

bake egoera bizi duten gizarteetan ere «ertzetan kokatzen ditugu[la] emakumeok pairatzen ditugun indarkeriak» (Rodríguez & Etxebarrieta, 2016, 34. or.). Izan ere, gurea bezalako gizarte patriarkaletan feminismoaren ikuspegitik

bakea utopia androzentrikoa besterik ez da izango, existitzen ez den hori, edo, behintzat, emakumeentzat ez dagoen hori. Zergatik? Sistema patriarkalean emakumeen kontrako indarkeria arau delako, hau da, egoera normala, egoera baketsua. Indarkeria pairatzea eta bakean bizitzea ez da inolaz ere bateraezina izango patriarkatuan. Beraz, gatazka armatuaren bukaerak edo Euskal Herriko bakeak eta normalizazioak ez dute, inondik inora ere, emakumeen bakea ekarriko. Hiltzen [hildakoak izaten] jarraituko dugu emakume hutsa izateagatik, indarkeria politikoa, alegia, patriarkala jasaten jarraituko dugulako (Rodríguez & Etxebarrieta, 2016, 41. or.).

Ikerketa-mugarri honetatik bildu beharreko azken ideia zaurgarritasunari dagokiona da. Egileen esanetan, espazio armatuetan zaurgarritasunaren kontzientzia handiagoa dago bake egoeran bizi diren gizarteetan baino, nahiz eta bizitza guztiei eskaintzen zaien balioa ez izan berbera sexu diferentziak zeharkaturiko gizarte patriarkaletan, hain gutxi gatazka armatua bizi duten horietan, non generoen arteko ezberdintasuna are gehiago polarizatzen den (Rodríguez & Etxebarrieta, 2016, 22.-28. or.).

Zaurgarritasunaren nozioari dagokionez, borroka armatuaren aldeko alderdian jardun diren emakumeen egoeraren aztertzaile Rodríguez eta Etxebarrietak bat egiten dute ETAre jardun armatuaren biktimei arreta nagusia jarri dien azterlanarekin, zeinak hurrengo mugarri gogoangarria ezarri duen gatazkaren memoriari eskainitako azterketen artean. Cristina Ortiz Ceberiori eta Pilar Rodríguez zor zaien liburuan, *Ellas cuentan* (2020), emakumeen ikuspegitik eraikitako memoriak ardazten du lan literarioen eta filmen analisia. Aztertzaile horien arabera, gatazkaz idatzi duten emakume idazleen literaturak irakurleari gogoeta eginarazten dio biolentziak zaurgarritasunerako baldintza berariazkoa bihurtzen duela generoa eta baldintza hori erabateko biolentzia-eszenatoki batean pairatzen dela, non eta indarkeriak harreman mota guztiak zeharkatzen dituen (Ortiz Ceberio & Rodríguez, 2020, 192. or.). Zaurgarritasunaren nozio horretarako aztertzaile guztiek dute erreferente bera, Judith Butler pentsalaria. Butlerrek gerra egoeretakoko adierazia borroka armatua bizi duten eremuetara ekartzeko modukoa da:

la guerra pretende negar de manera imperiosa e irrefutable el hecho de que todos nosotros estamos sometidos unos a otros, de que somos vulnerables a la destrucción por los demás, y de que estamos necesitados de protección mediante acuerdos multilaterales y globales basados en el reconocimiento de una precariedad compartida. [...] puede ser más cierto que el sujeto que yo soy está ligado al sujeto que no soy, que cada uno de nosotros tiene el poder de destruir y de ser destruido y que todos estamos ligados los unos a los otros por este poder y esta precariedad. En este sentido, todos somos unas vidas precarias (Butler, 2010, 70.-71. or.).

Aipuko pasartea biltzen duen liburua *Borroka armatua eta kartzelak* azterlanean erabilitakoa da. Baina aipu horrek berak ondo laburbiltzen du *Ellas cuentan* ikerketa lanaren egileek erabilitakoaren mamia ere (Butler, 2006). Hona gogora ekartzeko

arrazoi nagusia da gure corpuseko egileen artean ere ideia hori bera ageri dela, bai eta genero ikuspegi batekin agertu ere. Bestalde, Ortiz Ceberio eta Rodriguezen liburuak ere ez du begietatik galtzen gatazkari buruzko memoriaren eraikuntzan literaturak duen garrantzia. Pertsonaiak edota narratzaileak bere heldutasunetik haurtzaroari eta nerabezaroari begiratzen dionez, gatazk(ar)en memoriaren berreskuratze ariketa egiten ari dela ulertzen dute liburuaren egileek, eta aldi berean *bildungsroman* nobela-generoaz kritika feministak egin duen erabilera berariazkoa oroitu dute, pertsonaiaren bilakaeran iragana gogoratzeak duen eraginagatik (137.-140. or. eta 157.-159. or.). Indarkerien memoriaren berreskuratze ahalegin horretan txertatzen dute Marianne Hirschek garaturiko *postmemoria* delakoaren nozioa ere, hots, norberaren memoriaren parte izatera heldu diren bizipen traumatikoen aztarna, ez norberak zuzenean bizi izan dituelako bizipen horiek, baizik eta aurreko belaunalditik jaso dituelako (127.-128. or.).

Azken aurreko mugarría Ibai Atutxak eta Iratxe Retolazak prestaturiko liburuak ezarri du, *Indarkeriak dantzatzera behartzen gaituzte: gatazka armatuaren irakurketa feministak* (2021), zeina hein batean goragoko *Borroka armatua eta kartzelak* ikerketaren jarraipena den. Tituluak berak iragarri bezala, edizioaren arduradunek sarreran ere «gatazka armatuaren irakurketa feminista» aldarrikatzen dute liburuiko ikerlan guztien ardatz, diziplina arteko elkarrizketan bada ere: batzuek soziologiatik eta gehienek borroka armatuaren hasieratik hona gatazkaz garaturiko literaturaren kritikatik. Liburuaren asmoa «gogoeta-leku berriak» eta «gomuta-leku bizigarriagoak» sortzea izanik (gatazkari buruzko hausnarketaren eta memoriaren arteko uztartzea, alegia), gatazkaren beraren nozioa galdekatzea dute lehentasun:

Irakurketa feministek biderkatu egiten dituzte gatazka armatuari buruzko galderak, eta horiek dira gatazkaren ikuspegia zabaltzera eraman gaituztenak. Zer adiera eman diogun gatazkari; aldi berean zenbat gatazka bizi izan ditugun gurean; nola gurutzatzen den gatazka armatua beste gatazkekin; zer gatazka kokatu den erdigunean eta zeintzuk, berriz, bazterrean; zer genero-logika eraiki diren gatazka armatua fikzionalizatu duten literatur testuetan; eta beste hainbeste itaun (Atutxa & Retolaza, 2021, 7. or.).

Liburuaren biltzaile eta editoreen kezka nagusien artean honakoa dago: gatazka armatuari buruzko euskal literaturaren eta kritika literarioaren arteko desadostasuna. Alde batetik, 1960ko hamarkadatik honako euskal literaturak genero literario ugariaren bitartez heldu dio gatazka armatuaren gaiari eta gai horri buruzko ikuspegi, leku eta begiradak ere askotarikoak izan dira. Baina bestetik ugaritasun horrek ez du tokirik izan kritika literarioan, editoreen ustez, ikuspegi literario-politiko bakarra nagusitu delako diskurtso kritiko horretan. Beste kokapen literario eta ideologiko bat dutenek euren ikuspegi kritikoa garatu behar dutelakoan, ikerketa-bilduma honek hutsune hori beteko luke (8. or.). Izan ere, diskurtso kritiko hegemonikoari aurkitu dioten arazoan artean legoke «gatazka armatua hizpide duten obra literarioei funtzio hau esleitu nahi izan zaiela: elkarbizitza gunen bilakatzea, normaltasuna bilatzea, gatazka bera kritikoki galdekatu gabe» (18. or.). Bilduma honetako ikerketa multzo batek, ordea, maskulinitatetik eraikitako gatazka armatuaren ikuspegia aztertu

du, bai eta «maskulinitatetik transmitituriko eta erroturiko gatazkaren desirak eta genero-desplazamenduak azaleratu» ere, azken batean lan literario batzuetan oraindik identifikagarriak direlako «maskulinitate berrien betiko zapalkuntza-mekanismo zaharrak, baita maskulinitate iraultzaileenek ere errepikatzen dituztenak». Beste ikerketa-multzo batean kritika feministaren bitartez «gatazka armatuaren itzalean gelditu diren beste gatazkak mahai gainean» jarri dira (19. or.). Eider Rodriguez idazle eta ikertzaileak bilduma honi egindako ekarpenean dioen bezala, «iruditzen zaigu gatazkari buruzko euskal eleberrigintza bestelako diskurtso bat ehuntzen ari dela, zeinaren bidez apurka-apurka ari baitira azaltzen gatazkaren poliedrikotasuna eta konplexutasuna, hainbat instantzia mediatikok eta politikok maiz inposatu nahi duten kontaktuzun bakarraren gainetik» (2021a, 206. or.).

Gatazkaren poliedrikotasunaz den bezain batean, Rodriguezen ikuspuntua hurbil dago azken mugarrin ageri den beste nozio batetik. Azken mugari hori (azkena orain arte, gaiari buruzko jarraipena ziurtzat jo daitekeelako) 2024ko *Jakin* aldizkariaren zenbakietako baten sail monografikoa da, gorago aipaturiko «Gatazkaren memoria, memoriaren gatazka». Gatazkaren eta memoriaren arteko harremana saileko kolaboratzaile guztien ardatz partekatua izanik, Maider Galardiren artikuluak gaiari heltzen dio Eider Rodriguezen kapituluak utzitako hari muturretik:

Dagoeneko jakina eta eztabaidatua da kontakizun bakarra egotea ezinezkoa dela gaur-gaurkoz, eta agian interesgarria ere ez da inoiz izango. Horren aurrean, kontaktuzun poliedrikoa aldarrikatu dute gatazkaren ondorioak lantzen dituzten hainbat eragilek, eta, ideia hori hartuta, konstelazioetara egin nahi nuke jauzi. Poliedroak objektu beraren aurpegi ezberdinak aurkezten baititu, baina euskal gatazka unibertso bat da, aldeak bainoago askotariko bizipenak dituena, elkarren artean konektatuta egon badaitezke ere. [...] historiaren ehunduran txatal desberdinak josteak beste perspektiba bat ematen du, indarkeriak, gatazkak eta parte hartzeak ez ezik, subjektibitate diferenteak ere bistaritzen dituena, eta gatazka askoz ere modu konplexuagoan aztertzen duena (2024, 103. or.).

Gatazkaren eta memoriaren uztardurarako Iñaki Sagardoik memoria egitearen eta helburu horrekin garatutako anamnesia-prozesuaren garrantzia azpimarratzen du, hau da, ahanztura edo amnesia-arriskuaren kontra «memoria egiteko erabiltzen diren oroitzapen dispositibo, ezagutza, produktu, praktika, diskurtso, instituzio edo tresna multzoa biltzen duena» (34 or.) eta, beraz, botere ezberdinen araberakoa. Prozesu horretarako hiru dira bereizten dituen teknologia-mota azpimarragarrienak: (1) erri-tualak (gizartearen aurrean egindako sekuentzia sinboliko performatiboak); (2) narratiboak; (3) urbanoak (monumentu, memoria-toki, kale-izendegi eta halakoetan gauzatzen direnak). Literatura ere memoria egiteko baliabide horien artekoa denez gero, teknologia narratiboen sailean jarri beharrekoa da. Teknologia narratiboak besteak bezain garrantzitsuak dira memoriaren eraikuntzan, izan ere «teknologia narratiboen erabilera hainbat mailatako narratibak (mikronarratiba biografikoak edota makronarratiba korporatiboak) legitimotzat aurkezteko lehian koka daiteke» (35. or.). Sagardoiren azalpenean bi motatako narratibak desberdintzen dira: «alde batetik, kontakizun edo errelatu autobiografikoak eta kolektiboak, nahitaez narrazio forma izango

luketenak; eta, bestetik, errealitatearen eta fikzioaren arteko mugan jaiotzen diren fikziozko artefaktuak (nobelak, pelikula dokumentalak, telebista serieak, ipuinak, fikziozko filmak...)» (35.-36. or.).

Hasieratik aipatu izan den arren literaturaren garrantzia memoriaren eraikuntzan, orain are argiago ageri da garrantzia hori, lotura zuzena duelako diskurtso narratibo-literarioaren subjektuen legitimazioarekin. Hortaz, gure corpora osatzen duten nobeletatik gatazkaren memoriari egiten zaion ekarpena gogoangarria da, bere buruari hitza hartzeko legitimitatea aitortzen dion subjektu berri baten diskurtsoa denez gero, subjektu bihurturiko alabaren diskurtsoa hain zuzen ere. Gatazkaren poliedrikotasunari aurpegi berriak agertu zaizkio, gatazken konstelazioan subjektu berrien ahotsak azaldu dira, alaben ahotsak hain zuzen ere, eta esateko dutenari arreta jartzea eskatzen ari dira.

3. AITA ETA GATAZKAREN MEMORIA (POST)BIOLENTZIAREN ALDIKO EUSKAL EMAKUMEEN NOBELAGINTZAN

Corpuseko nobela guztietako protagonistak zenbait biolentziaren eraginpean bizi dira. Biolentzia-mota nabarmenen artean gatazkaren ondoriozkoak eta patriarkatuak eragindakoak daude, nahiz eta bestelakorik ere ageri den. Bi indarkeria horien arteko harremana eta, inoiz edo behin, gainezarpena protagonistek nola bizi duten irudikatu nahi izan dute idazleek euren nobeletan. Arestian azalduriko ildo teorikoetan oinarriturik, nobela bakoitzean arakatuko da nola gauzatzen den biolentzia horien uztartzea pertsonaia protagonisten bizi esperientziak baldintzatzen dituen heinean. Ordena kronologikoan aztertuko diren nobeletan hiru irizpide nagusi erabiliko dira azterketa bideratzeko: aita-alaben arteko harremana nola irudikatzen den alabaren ikuspegitik; gatazkei buruzko memoria-ariketaren nolakotasuna; eta Arestiren *Harri eta herri* liburuko «Nire aitaren etxea» poema ospetsuarekiko harreman intertestualik suma daitekeen, hemen arakaturiko bi ildoen erreferente paradigmaticoa bihurtu delakoan, hau da, aita eta gatazka².

3.1. *Kristalezko begi bat*

Autofikzioaren eta autobiografiaren arteko erdibidean, narratzaile-protagonistak «aitorpen biografiko egiazkoa bezain iruzurtia» deritzon «autoimitazio» honetan (Meabe, 2013, 157. or.), Meibi/Mitxu protagonista horren bizitzako une jakin batean gurutzatzen dira postbiolentzia aldiaren hasiera eta aitarengandik datorkeon nolabaiteko hertsapena, noiz eta gainbehera emozional baten egoeran dagoenean, berriki maitalearekin zeukan harremana («abentura bat») bertan behera utzi duelako (11.-12. or.).

2 Ugari dira Karmele Jaioaren *Aitaren etxea* dela eta nobela horretan Arestiren poemarekin aurkituriko harreman intertestualak aipatzen dituzten azterketak, hemen zerrendatuko ez direnak. Horren ordez corpora osatzen duten nobela guztietan arakatuko da harreman hori, idazleek partekatzen duten erreferentzia komun eta froga-harri gisakoa delakoan. Arestiren poesiak feminismotik jasotako trataera dela eta, ikus berriki Iñigo Astizek *Berria* egunkarian Bilboko poetari eskainitako artikulua (Astiz, 2025).

Bizitzako heldutasun sasoi betean egonik, ibilbide horretan gertaturiko galeren kontakizun gisa aurkezten du narratzaileak bere diskurtsoa. Horretarako ezinbestekoa du memoria-ariketa bat egitea, memorian dagoena behintzat galduko ez dela iradozik bezala: «[b]errogeita zortzi urte ditut, eta jendemodu gehienak bezala, hainbat galerari egin behar izan diot aurre. Horregatik ekin diot testu hau idazteari. Uste dut lehen pertsonan emateak eragotzi egingo diola denborari nire memoria guztiz jatea» (12. or.). Memorian gordetakoa beste osagai askorekin txirikordatuta eskaintzen da azken idazkian, hala nola oftalmologiari eta okularistikari buruzko zehaztasunekin, emakume historiko aipagarrien berriekin eta batez ere emakume idazleen bizitza-zer-tzeladekin, edota irakurketa ugaritatik bilduriko aipuekin. Osagai horiek guztiak hausnarketa metaliterarioekin tartekatzen dira, ez nolanahi autokontzientzia literario garatua erakusten duen narratzailea baita diskurtsoaren iturburua. Azken emaitza Landetako Vieux Boucaun dago sinatuta, «2011ko irailaren 9tik azaroaren 22ra bitartean» (159. or.), epe horretan protagonistak bere bizitzako une aipagarrienak gogora ekarririk eta sentipen nahiz gogoetez inguratuta horniturik.

Vieux Boucaun egoteko arrazoia idazteko toki egoki baten beharra bada ere, protagonistak tarteka Bizkaira egiten du bidaia bat, bertan baitu ohiko bizilekua. Bidaia horietako bat aitaren osasun-egoerak eragindakoa da. Bi etxeren arteko kontrasteaz adierazi da aitaren egoerari buruzko berriaren jasotzea: Landetako «[n]ire etxe parera» iristean ikusi ditu dei galduak, «aitaren etxetikoak» horietako zenbait, harik eta osabaren deia jaso duen arte. Ezinbestekoa da Gabriel Arestiren *Harri eta herri* liburuko «Nire aitaren etxea» poemaren oihartzuna entzutea, corpusa osatzen duten beste nobela batzuetan ere gertatu bezala. Osabak egindako deiaren jitea, aitaren etxearen eremutik egindakoa izanik, guztiz patriarkaltzat bizi du narratzaileak, emakumea izateagatik dagozkion genero aginduak behar bezala betetzen ez dituela aurpegira botatzen baitzaio: «[e]rrietaka hasi zait. Behar nautenean eskuar ez egoteagatik egin dit agiraka. Bere senetik irtenda dago. Ez du ulertzen zertan nagoen halako bolada luzean kanpoan, areago semea utzita. Eta eurak, neure zaharrak» (113. or.). Osabaren deiaren bitartez jakin du aita alarguna Galdakaoko ospitalean duela kalean erortzean hartutako kaskarrekoaren ondorioz, bai eta bakarrik dagoela ere, osaba gai ez delakoan aitaren zaintzaz arduratzeko.

Goizaldeko ordu bietan ospitalera helduko da bidaia luze baten ondoren. Landetatik Bizkairako bidean zehar izango du borroka armatuaren amaieraren berri: «[i]rratia entzuten etorri naiz. Albiste handia gaur, urriaren 20an: ETAk behin betiko utzi du borroka armatua» (114. or.). Meibi/Mitxurentzat, oster, bestelakoa da egoera, post-biolentziaren aldiarekin hain zuzen ere hasten delako berarentzat familiak eta herriak emakumeentzat ekar lezakeen hertsapena, marko teorikoari eskainitako atalean azaldu bezala (Rodriguez & Etxebarrieta, 2016), zaintza zereginen ardura hartzea berari dagokiolarakoan, gogoz kontra bada ere: «[h]eldu da Dena Egiten Dakiena, ez dakit nork esan zuen bezala. Hogeita lau orduko erizain, idazkari, gidari eta sukaldari.» (114. or.). Zainketa-lanek talka egiten dute idazteko behar duen askatasun nahiarekin: «[a]ita zaindu bitartean ohar batzuk egin dizkiet orrioi. Ezin gehiago aurreratu. Kandinsky dixit: 'Artista ez da libre bizitzan; soilik artean'. Kar-kar-kar» (119. or.). Ospitaletik etxera joatean ere egoera ez da hobetzen, aitak eta osabak familiakoa ez den inor ez

dutelako nahi inguruan; hortaz, protagonistak ezin du inoren laguntza jaso, eta hortik aitarekin liskarrak izatea: «[e]ztabaidan aritu gara, zaharrek ez dutelako nahi etxera zaintzalerik ekarri. Aita sumindu egiten da gomendioren bat ematen diodan bakoitzean. Zorroztarria eta labana lakoak gara bata bestearantz» (119. or.). Alaba idazleak opresio patriarkalaren irudia ikusten du aitarengan honek erakutsitako jarrera menderatzaileagatik:

[...] pozez ñir-ñir egiten diote begiek, eskuetan espraia edo erratza ikusten nauenean, bere zerbitzura emana (bera seguru sentiarazten). Ezin dut hori jasan. Gauza bat egiten bukatu orduko eskatzen dit hurrengo. Neure senetik ateratzen nau beti nagusi izan behar horrek: hiltzen den egunean ere, katabutetik aginduko digu berogailua amatatzeko edo atea giltzez ixteko (Meabe, 2013, 120. or.).

Baina aitaren irudi hori ez da irudi osoa, oster, ezpada sinekdokea edo patriarkatuaren irudikapen partziala (Kowaleski-Wallace, 1989, 1997). Botere-irudi horrekin batera aitaren ezaugarri ere bada zahartzaroak ekarritako ahultasuna, gorputz narriatuaren bidez adierazia, bai eta beldurren bitartez ere, aita inperfektua izatearen erakusgarria eta aitaren figurari sarritan egotzitako asomiatik urrun (Yaeger, 1989). Idazle gisako narratzaileak ez du horri buruzko xehetasunik aurrezten: «[a]tzera eragiten didate begirada lerdotuek, geldotasunak, eta zentzutasunaren eta axolagabekeriaren arteko espazio zehazgabe horretan bertan goxo egiteko ageri duen erraztasunak [...]. Erneguaren mende bizi da bera ere: zahartzaroa erresignazioa da [...]. Neuk ere badakit autonomia ezaren beldur dela, eta heriotzaren beldur» (Meabe, 2013, 120.-121. or.). Hortaz aitarengandiko hertsapenak erresistentzia aurkitzen du bai gabezien nabarmentzean eta bai «ahoa berritu» zaiolako sentsazioa ematen dion erantzunen batean ere: «[e]z naiz izango zure ongizatearen prezioa, entzun duzu? Ni ez» (121. or.). Azkenean, aitarekiko haserrealdia suspertzaile gertatu zaio: aurrerantzean etxeko zaharrak zainduko dituen zaintzaile profesional bat kontratatuko du, mutil bat oraingoan.

Inoren ongizatearen prezioa (familia beste guztiaren aurretik jartzearena) amaren osasuna izan zela argi du pertsonaiak. Horrexegatik gurasoen etxean dagoenean amarena izandako txandala erosotasunagatik janzen badu ere, bere ama bihurtzeko arriskua begi bistakoa egiten zaio, bai eta horren kontrako amorrua sortzen ere, emakumeen alienazioaren irudi garbia delako: «[k]alterako izaten da, amaren antza hartzen diodalako neure buruari, eta haserretu egiten naiz, erabat ikaratzen nauelako alaba izanik neure ama bihurtzeko arriskuak, aita eta osaba zaintzeko penitentzia hartuta (aitita-amumen gaixotasun kroniko astunak jagoteko esfortzuan galdu zuen amak osasuna, sakrifizioaren xederan)» (120. or.). Ordena sinboliko patriarkalean txertatua egonik, ama ordena horren emaitza da, bai eta zabaltzailea ere. Gurasoen etxean ama hila «beste» da, mamu gisa agiri zaionean: «[i]gogailuan sartu naizenerako, bestearen erregua iritsi zait: ‘Zaindu aita, egizu nigatik’. Isilka erantzun diot: ‘Bai horixe, zeugatik, ama. Norengatik bestela?’. Kontzientziaren eztena ekina da» (121.-122. or.). Kontzientzia gisa bizi da nortasunaren dimentsio superegotikoaren agerpena, etxekoandre eta tradizioako ama euskaldunaren eredua, beti etxekoen beharrak asetzeari emana (del Valle et al., 1985, 223. or.). Amaren agerpen hori ez da besterik Virginia Woolfen (2014) hitzaldi ospetsuan azalduriko etxeko aingerua baino,

bere borondatearen arabera jokatu nahi zuen emakumeak eta batez ere emakume idazleak hil beharra zeukana, aingeruak emakumea hil baino lehen. Meibi/Mitxuren amarekiko harremana estua da, ama da «inoiz utzi ez nauena», berari eskainitako atal osoaren izenburuak dioten bezala. Harekin batera «etxeko emakumeak» miresmenez gorde ditu memorian: ama, amuma, tia, amabitxi. Baina miresmenak ez du kritikarako gaitasuna kamusten: «etxeko emakumeei leporatzeko dudak kargu grabe bakarra, hauxe: ‘ez’ esaten irakatsi ez izana. Egin kontu, bitaminekin batera, amaren esneak *betibai* lorearen haziak erein zizkidala mihian. Hazi horiek gerora ematen duten lorea espartzuzkoa da, aho-mamia lauskitzen dizuna errotik moztu nahi duzun bakoitzean» (133. or.). Hortaz, amarekiko eta beste figura amatiarrekiko harremana anibalentea da Meaberen nobelan ere, gorago ikusi bezala, amarekiko lotura estua izanik ere, amak alaba ordena sinboliko patriarkalaren parte izatera bultzatzen duelako ordena horretan ama bera den beste gisa (Mukherjee, 1997). Meaberen lan honetan, gatazka delakoaren amaiera beste gatazka batzuen agerpen unea da, alaba den aldetik familiako figura aitatiarrekin sorturiko gatazkarena, amaren memoriak berak ere indartu duena anibalentziak markatuta dagoelako.

3.2. *Atertu arte itxaron*

Katixa Agirreren nobela autoz egindako bidaia baten kontakizunaren inguruan ardaizten da. Bidaia-irakurketa Ulia eta Gustavo senar-emazteak dira. Ezkondu eta lasterrera bizitoki duten Madrileko hiritik abiatu eta Euskal Herria zeharkatzeko asmoa dute. Ulia gasteiztarak Ávilako semea den senarrari bere jaioterria erakutsi nahi dio, eta senarra ere Euskal Herria ezagutzeko irrikaz dago, noiz eta ETak borroka armatua behin betiko uzteko asmoa duela iragarria duenean eta bereziki 2011ko urriaren 20an. Urte horretako udan egindako bidaia berri emaile Ulia bera da, ordurako Euskal Herriatik eta senarrarengandik aldendua dena bidaia berak eta aldi horretako gertakariak bikotearen bizitzara ekarritako arazoengatik. Hala ere, Ulia narratzaileak etxean gelditutako Gustavo senarra egiten du bere kontakizunaren hartzaile-narratario, aurrean balu bezala kontatzen baitio gogora datorkion guztia.

Postmodernismoaren aldiko narratzaile tipikoek egin ohi dutenez, Uliak ere autokontzientzia literario nabarmena erakusten du, bere diskurtsoa nahieran moldatuta. Hortaz, hasieratik bertatik narratzaile-protagonistak *road novel* delakoarekin eta horren aurrekari diren bidaia literarioekin lotzen du bere kontakizuna ere, baina aldi berean modu parodikoan aipatzen ditu generoaren ezaugarri eta erreferentziazko lan ezaugarriak (Agirre, 2015, 9. or. eta 135. or.), postmodernitatearen garaian ezinbestekoa delakoan genero horrek sortzen duen higadura sententzia. Nobela hau sailkatzeko proposamenen artean *bildungsroman* delakoaren elaborazio feminista gaurkotua dago, zeinaren arabera emakumezko subjektuak bere garapenaren berri eman dezakeen (Ortiz Ceberio & Rodríguez, 2020). Izan ere, bidaia-nobelaren egitura aitzakia ezin hobea da protagonistak bere iraganari aurre egiteko, Euskal Herrira egindako bidaia behartu egiten baitu memoria berreskuratzera, sekretu ondo gordeak ezagutzera eta gezurrak argitzera. Prozesu horren guztiaren bitartez Uliak bere bizitza osoa era ezberdinetako biolentziek moldatua izan delako kontzientzia garatuko du. Eta horien artean aitak toki nabarmena duelako kontzientzia ere bai.

Nobelan zehar gogora ekarritako gertaera biolento historikoak ez dira gutxi. Uliaren gurasoek 1976ko martxoaren 3an ezagutu zuten elkar, Gasteizko San Frantzisko elizan bildutakoen artekoak izanik estatuaren aparatu errepresiboek eraso egin zutenean. Uliak eta Gustavok Madrilen izan zuten elkarren berri 2004ko martxoaren 3an, atentatu yihadistaren egunean, eta euren arteko harremanari hasiera eman zioten egun batzuen ondoren egindako manifestazioan. Gertakizun odoltsu horiekin batera beste batzuk ere gogora ekarriak dira, hala Estatu Batuetako 2001eko irailaren 11ko atentatuak nola ETak buruturikoetatik zenbait. Azken horietako asko Sarah kazetariaren bitartez agertuko dira kontakizunean, ETaren biktimen egoeraz ikertzen ari den bitartean ahanzturaren kontrako borrokan: «inork ez du ezer gogoan, inork ez du ezer gogoratu nahi» (180. or.), su-etenaren ondorengo garai berriaz ikuspegi eszeptikoa erakutsita: «gaia ez da berria; berria, izatekotan, garaia da. Euskadiko herriak. Terrorearen amaiera. Normaltasuna. Lehenengo uda askea. Gauza horiek. Gauzak ez dira, ordea, sinetsi nahi diguten bezainbeste aldatu» (82. or.). Eta horrekin batera, Euskal Herriaren muga zeharkatu duten unetik aurrera Uliak tupust egiten du etengabe etakide izandako presoek buruzko aipamenekin, noiz komunikabideen bitartez, noiz tabernetako hormetara itsatsitako afixetan, noiz kaleko pintadetan. Preso horietako baten agerpenekin obsesionatuta egingo du Uliak bidaia, gizon hori aita biologikoa duela ohartu delako. Uliak ez du gizon horrekin harremanik izan amak beti pentsarazi diolako aita auto istripuz hil zela aspaldi. Gustavori egia azaltzeko aukerarik izan ez duenez, Uliak berak ere oraintsu izan duelako horren berri, beldur da bere aitari buruzko aipamen horietako batean Gustavo konturatu egingo dela nor duen benetako aitagarreba. Hortaz, postbiolentziaren unean ere iraganeko biolentzien mamuek Uliaren oraineko bizitza baldintzatzen dute.

Biolentzia horien artean bere gorputzak jasandako biolentzia matxista zuzena ere badago bortxaketa baten bitartez, ahaztu gabe duenez gero Asier izeneko koru-zuzendariak sexu eraso egin ziola hamasei urteko neskatila zenean, artean Gasteizen bizi zela. Izan ere, eraso hori da Uli Euskal Herritik ateratzera bultzatuko duen arrazoietako bat. Euskal Herrirako bidaian esperientzia horien guztien memoria egitea ezinbestekoa izango du protagonistak, nahiz eta denak egituratzen diren aitaren istorio aurkitu berriaren inguruan.

Pertsonaia protagonista eta narratzailearen bizitza osoa oinarritzko gezur batean ezarrita dago, aitari buruzko gezur fundazionalean, amak eta honen bikotekide berri Josebak asmatutako istorioan: Jose Maria Ortiz de Zarate (*Jota* goitzeneko etakide preso gose greban dagoena askatzen ez dutelako, kondena osoa beteta eta prostatako minbiziak jota egon arren) Uliak urte eta erdi inguru zuenean hil egin zela auto istripu batean, hain zuzen ere Jota atxilotu zuten une berean. Gezurraren asmoa Uli babestea izanik ere, denborak erakutsi du alferrikakoa izan dela, biolentziak giroaren parte direlako, geroak agerian utzi bezala. Azkenean, aitari buruzko egia estali izana kalterako izan da gehiago mesederako baino, egia mingarriak nola edo hala egun argirako bidea aurkitu baitu. Egiaren agerpenak alabaren ezinegona piztu eta ingurukoekiko harremanetan lurrikara sortu du, batez ere senarrarekiko harremanean, amarekikoan eta aurkitu berri duen aita horrekikoan.

Azken honi dagokionez galdetzekoa da ea zer harreman mota sor dezakeen alaba batek Jota bezalako aita batekin. Gustavoren aita autoritarioarekin kontrastean, Uliak aitaren absentsia eramangarria aldarrikatzen du Jotaren berri izan aurretiko aldian:

Zuretzat erraza izan da aita autoritario bat edukitzea. Niretzat aita absente bat edukitzea erraza izan den moduan.

Auto-istripu batean hil zen aita, ni jaio aurretik, baina ez dut inoiz haren falta sentitu. Nazkagarria naiz hori esateagatik? [...]

Beste batzuei zaila suertatzen zaie, pelikuletan askotan ikusten den trama beraren errepikamena: ikerketa zoroari ekiten diote aitarik gabeko seme eta alaba galdu horiek, beren geneen jatorria kuestionatzen dute bizitza osoan zehar, beren identitatea osagabetzat daukate eta pisua egiten zaie, beren egunerokotasunean eragin zitala edukitzeraino.

Niretzat erraza izan da aita absente bat edukitzea (Agirre, 2015, 141. or.).

Hala ere, gizonekin garatu dituen harreman afektiboen nolakotasunak gezurtatu egiten du hein batean aitaren absentsia hori eraginik gabekoa izan dela. Aitzitik, aitaren gabeziak nolabaiteko lotura izan lezake gizon horiekin garaturiko desirazko harreman-motarekin. Izan ere, doktoretza prozesuan zehar senarrak emandako babesaz diharduela, programa horretan barneratu izateko desira senarrarengandik bereganatu duela aitortzen du, bai eta senarrarengan figura aitatiar bat aurkitu izana ere: «[e]gia da, halaber, aita baten harrotasunaz begiratzen didazula doktoregoarekin aurrerapen bat komunikatzen dizudan bakoitzean, eta niri gustatzen zaidala zure harrotasunaren hartzailea izatea. Nik ere uste dut zuek egiten dudala [...]. Edipo konplexu bikoitza daukat, beraz» (116. or.). Azken esaldi horren txantxa asmoa gorabehera, edo txisteei aitortzen zaien gaitasunagatik erreprimitutakoa azaleratzeko hain zuzen ere, senarrak aitatik zerbait du Uliarentzat. Hala ere, senarraren gurasokeriarako joera ere salatzen du, «aitakeriatik oso gertu ibili ziren aholkuz» bonbardatu zuelako behiala (118. or.). Lehenago ere antzerako harremana bilatu zuen Asier koru zuzendariarekin, autoritate-figura gisa ikusten zuenean gurasoen baliokide egitean: «ez nintzen autoritate-figura batekin maitemintzen zen lehenengo nerabea izango» (104. or.). Asier hori izango da, ordea, Uliak jasango duen eraso matxista oldarkorrenaren eragilea, neskato maitemindu eta xaloaren ahultasuna baliatuko baitu bortxaketa egiteko.

Alabaren portaera guztiz aldatuko da aitari buruzko egiaz jabetzen den unetik aurrera. Mari Luz ama eta batez ere orduko bikotekide Joseba biziki saiatu ziren arren Uliak «[j]atorrizko bekaturik gabe sorturiko umea izan zedin» aita istripuz hil zela asmatzean (195. or.), gezurak lekarkeen abantaila alferrikakoa bihurtzen da amak egia aitortzen dionean alabari. Sarah kazetariak egia aurkitu eta bere egunkari digitalean argitara dezakeelako aukerak izu jasanezina ernarazten du Uliarengan, bere burua komunikabideetan ikusarazteko modukoa: «[s]eguru titular bat ere baduela atonduta jadanik. Ezer galdetu aurretik. Aitaren errua. Alabaren karga. Nire aitaren errua leporatuko dut» (186. or.). Arestiren bertso-lerro ospetsuaren pastichea izateaz gain, azken

esaldiak ageriko egiten du aita egindakoaren errutasunaz zamatua dagoela alaba, alaba bera ere ez dela aitaren bekatutik garbi geldituko noren alaba den argitaratu dadinean. Izan ere, aita atentatu odoltsu baten eragile izateagatik urte luzeak eman ditu espetxeratuta, Sarahren artikuluko batek sentsazionalismo nabarmenez adierazi bezala. Horrelako aita batek emozio bateraezinak sortzen ditu alabarengan: aita hori ezagutzera bultzatzen du eta, aldi berean, aldendu egiten du berarengandik. Euskal Herrirako bidaia hasi aurretik saio bat ere egin du aitari bisita egiteko Granadako espetxean baina hiriraino joanda ere, ez da gai izan espetxera iristeko. Aitarik gabe ere ordena sinbolikora horren ondo egokitu den alabak (euskalduna izanik arazorik gabe bizi da estatuaren hiriburuan eta Elizaren arabera ezkontza ere oztoporik gabe onartu du, ama feministaren iritzia kontra) zailtasun gaindiezina erakusten du noizbait ordena sinboliko horren suntsitzaile izatea erabaki zuen aita agertu berria onartzeko. Espetxealdiak, minbiziak eta gose-grebak mailaturiko Jotak askatasuna lor dezakelako berria zabaltzen denean –berri eskandalagarria iritzi publikoa moldatzeko gaitasuna duten komunikabide handien arabera– Uliak zapuztuta ikusten du aitari buruzko egia senarrari esateko duen irrika. Berriak sortu duen zalaparta izu iturria da: «denek ezagutzen zuten orain NIRE AITAREN izena» (182. or.). Alabaren burutazio hori bi geruza ezberdin eta bateraezinez osaturik dago. Alde batetik «Aitararen izena» oinarritzko adierazlea da teoria lacaniarrean, subjektuari identitatea ematen diona, bai eta ordena sinbolikoan tokia eskaini ere behin-behineko arauetatik hasita, hala intzestuen kontrakoa nola gizakiak hiltzea debekatzen duena (Lacan, 2013). Beste alde batetik, Arestiren bertso-lerro ospetsuaren birmoldaketa ere bada, bigarren oihartzuna nobela honetan, baina gorago aipatutako hura ez bezalakoa. Gabilondoren proposamenean oinarrituta, Atutxak eta Retolazak (2021, 15. or.) azpimarratu dute Arestiren poema ospetsua nazio-alegoriaren eremura ekarri izan dela eta irakurketa alegoriko ugariren arabera irakurtzeko joera nabarmena jasan duela, ETaren jardunarekin lotzeraino zenbaiten aldetik. Horixe litzateke Uliaren aitari dagokiona ere. Baina hitz-jokoetan bateragarri izan arren, Uliaren esapideak txirikordatu dituen bi illoak, errealitatean bateraezinak dira. Bat-batean etakide ohi gisa agertu den aita ezin da izan aldi berean ordena sinbolikoaren metafora aitatiarra. Hain gutxi aitaren gorpuztasun makala horren xeheki deskribatu ondoren, asomiaren arabera autoritatearen gauzatetik hain urrun, marko teorikoan azaldu bezala (Kowaleski-Wallace & Yaeger, 1989). Ez da harritzekoa, hortaz, ordena sinbolikoan nolabaiteko egokitzapena lortu duen subjektu femenino alabatiarrak traba gaindiezinak edukitzea ordena horren aita suntsitzailearekiko harreman «normala» eraikitze orduan. Uliak nahiago du erbestera eta aita izugarri horrengandik urrun egon.

3.3. *Jenisjoplin*

Uxue Alberdiren nobela honetan, Nagore Vargas da protagonista eta bere bizitzaren berriemailea. Berri-emate horretarako nahitaezkoa da memoria ariketa egitea, bai berak bizi izandakoarena eta bai ingurukoei entzunikoarena. Oroimen horiekin nahasita agertuko dira Euskal Herriko azken mende erdi inguruko egoera soziopolitikoari buruzko berriak, Nagoreren aitona-amonak Andaluziako herri batetik Lasaldera etorri ziren unetik aurrerakoak eta batez ere XX. mendearen laurogeiko hamarkadatik hona-koak. Testuinguru horretan ezinbestekoa da euskal gatazka agertzea, ETaren zenbait

atentatu tarteko direla (Bilboko Guggenheimen kontrako saioan hildako ertzaina edo Miguel Angel Blancoren bahiketa eta erailketa, besteak beste), izan ere «[b]orroka armatuak ia haizeak bezain natural zeharkaturiko haurtzaroak eta nerabezaroak izan ziren gureak. Xalotasuna eta biolentzia ez ziren bereizten ahal» protagonistaren memorian (177. or.). Baina horrekin batera beste biolentzia batzuen aipamena ere ez da saihesten: langile-klasearen kontrakoa, etorkinek bizi behar izandakoa, heroina menpekotasunagatik eta hiesagatik jasandakoa, bai eta biolentzia matxista ere. Biolentzia-mota horiek guztiek zeharkaturiko giroan hazi eta bizi da Nagore eta horietako asko dira bere kontakizunaren osagaiak. Gainera Ipar eta Hegoalde globalaren arteko egoerak kontrastean jarrita agertuko dira Nagorek Bordelera eta Venezuelako Petarera egindako bidaien bitartez.

Nobela honetan ere borroka armatuaren amaierak mugarrira ezarriko du Nagore Vargas protagonistaren bizitzan une horren aurreko eta ondorengo aldien artean. Komunikabide konbentzionalek Segiko irratitzat zuten hartan lan egiteari utzita eta amaren lurrindegian laguntzen ari den tarte batez iritsi da Nagoreren bizitzara borroka armatuaren amaieraren berria, une horretako jardueraren eta berriaren beraren arteko kontraste bizian, kontraesanean ere, Nagoreren bizitzako une askotan gertatu ohi denez:

2011ko urriaren 20ko arratsaldeko 19:00etan bezero bat agurtu berri nuen aurpegiko masajea eman ostean. Hari musikalean sintonizatuta neukan irratiko albistegian ETAk jardun armatua behin betiko uztea erabaki zuela entzun nuen. Adierazpenak emakume ahotsa zeukan. Harritu egin ninduen, eta ez: armak uztearen ideia feminitateari lotua. Aitari deitzeko bulkada sentitu nuen lehenbizi, amari, Irantzuri, Lukari eta Karrari hots egitekoa, ondoren. Banan-banan baztertu nituen. Bakoitzarekin nituen esperientzia eta emozio konpartituak borroka armatua, nolabait, tarteko zela: ni-ETA-aita; ni-ETA-ama; ni-ETA-Irantzu... Hiruko bakoitzak mundu bat osatzen zuen. Gatazka politikoa bere pasio, min eta kontraesan guztiekin sartu zen gure intimitatearen muinean. [...] Bakoitzaren erreakzioak oihartzun desberdina sortuko zuen nire baitan, durduza originalaren kontra talka eginez edo harekin nahastuz, errelato kolektiboen ozeanora jaurtitako lehen harri-koskorren uhinen gisan (176.-177. or.).

Borroka armatuari buruzko esperientziaz, ikaragarri indartsua izanik ere berehala iraganean gelditu den esperientzia horretaz, protagonista ohartzen da zeinek bere ikuspegia duela eta denen artean eratuko dela «errelato kolektiboaren ozeano» deritzon hori, noiz elkarren arteko koherentziaz eta noiz elkarren arteko talkaz, gorago azalduko konstelazioaren irudi baliokidea erabilita (Galardi, 2024). Pertsonaiak berak argi du, bera Segiren eremukoa izanik ere, askotarikoak direla gatazkak eragindako bizipenak, baina denek bat egiten dutela sufrimenduaren esperientzian: «[s]ufrimenduaren kontzientzia zabala, luzea eta poliedrikoa zen. Identitateen berreraikuntzaren garaia hasi zen arratsaldeko 19:00etan» (Alberdi, 2017, 179. or.). Hortaz, kontzientzia horren araberako kontakizun poliedrikoa aurkitzeko prest legoke Nagore, kontakizun bakarraren ginetik (Rodriguez, 2021a). Corputa osatzen duten idazle guztiek bezala, Alberdi ere jakitun da bere literaturak ekarpen bat egiten diola memoriaren ehundura askotarikoari Nagore Vargasek eta inguruko pertsonaiek gatazkaz duten ikuspegiaren bitartez, bai eta ikuspegi horri legitimazioa eskaintzeko gaitasuna duela ere (Sagardoi, 2024).

Nagore ezustean harrapatu duen berriak sorturiko behin-behineko sentsazio multzo horretan badira zenbait xeheki arakatu beharrekoak, memoriaren gatazkari dagokionaz gain. Lehenik eta behin, borroka armatuaren adierazpena emakume ahotsaz egin izana dago, «armak uztearen ideia feminitateari lotua», gatazkari atxikitako epikotasun maskulinoaren aurrez aurre (Borda, 2006). Nagorek ez du begietatik galtzen indarkeria maskulinoa eta funtsean patriarkala egoera berriarekin agortu ez ezik, erraz egokitzeko gai dela: «[b]erehala hasi zen erreakzio-soka: ‘aspaldi zen beranduegi’ren bariazioak. Aurrez prestaturiko esaldiekin mintzo ziren beren buruaz seguruegi zeuden gizonezko ahotsak. Errendizio femeninoaren aldeko pultsio maskulinoak bete zituen uhinak. Bortxaren aurkako bortxak. Damu emeak, herra arrak» (180. or.). Egoera berrian oraindik ere ez da erraza heroiei uko egitea baina orain Irantzu lagun minak finalera heldutako bertsolariei aitortzen die rol hori. Amets atera zela txapeldun argitu ondoren, Irantzuk emango dio finalean gertatutakoaren berri ospitalean ingresatuta dagoen Nagoreri: «Maialenekin deskolokatu xamar egon nindunan: [...] aipatutako epika horretatik ihesi ez ote zebilen... [...]». Baina hori dun joera oro har, ezta? Ez bertsolarietan bakarrik. Interesgarria dun epikaren kulturarena: hamarkada batean ikuspegi belizista nola diluitu den» (250. or.). Bertsolaritzako heroi antiepiko berriak ez dira gizonak soilik, Amets Arzallusekin batera Maialen Lujanbio ere iradokia denez gero. Eta etenik gabe Irantzuk zaugarritasunaren aldi berria iragartzen dio nori eta sentipen hori gorputzean bizi duen Nagoreri hiesa diagnostikatu diotenetik: «ahultasunaren kultura defendatzen hasi ditun batzuk. Zaugarritasunaren aitortza defendatzen dituen, bai pertsonalki bai kolektiboki» (250. or.). Protagonistaren osasun ahulak postbiolentziaren egoerarekin bat egiten duenean azaleratzen dira nobelan Judith Butlerren gerrari buruzko hausnarketan oihartzunak (2006, 2010), euskal gatazkari buruzko azterketa feministek ere gogora ekarri dituztenak (Ortiz Ceberio & Rodriguez, 2020; Rodriguez & Etxebarrieta, 2016), besteak beste.

Nagoreren osasun-egoera ahularen erru osoa ez badu ere, Rafa Vargas aita badu nolabaiteko erantzukizuna horretan, alaba txikitatik bultzatu duelako desafioak hartzera, arriskuan bizitzera. Ziurrenik aita du Nagorek bere bizitzako pertsonarik eraginkorrena. Borroka armatuaren amaieraren berria irratiz entzutean aitari deitzea da lehen bulkada, goragoko aipu luzean ikusi bezala. Rafa proletario eta ezkertiarrek helduen portaerak irakatsi dizkio Nagoreri umetatik: helduen letra soltez idazten, helduen barrakak gozatzen herriko jaietan, ur sakonetara sartzen hondartzan, kaitik uretara jauzi egiten, Olentzero eta Erregeak ez direla existitzen eta orokorrean ilusio faltsuen kontra borrokatzen. Biolentzia-mota ugari jasan behar dituen testuinguruan hasitakoa izanik (pobrea izateagatik, etorkin familia batekoa izateagatik, heroina barra-barra dabilen auzo batean hasi izanagatik, edo emakumea izateagatik, agerikoenak soilik aipatzearen), arriskuari neurria hartzen ikasi du, aita horretara bultzatu duelako hein batean, eta arriskutik onik ateratzen, harik eta hiesaz kutsatu den arte: «Arriskuari dei egin diot, seguruago sentitzen nintzelako hark ni ezustean harrapatuta baino. Immunitate-sentsazio sendoa izan dut urteetan. Bizitzak, etorri, eta esan didan arte: oker zeunden, Nagore, ez zara immunea» (75. or.). Hortaz, euskal gatazkaren berri izan duenerako, bertan parte hartzeko predisposizioa garatua du. Baina aitarengandik jasotako borrokarako zaletasuna klase borrokaren eremukoa izan da gehiago abertzalea baino.

Bigarren ertz hori aita etorkinaren gabezia gisa izan da eraginkorra, eta beraz desiraren pizgarria. Musika-eskolan ikaskide euskaldunez inguratuta dagoela garatuko du bere diferentziaren kontzientzia, besteek maketotzat hartzen dutenean, nahiz eta ama euskalduna izan eta berak ere hizkuntza menderatu. Erronka horren aurrean Nagorek aurkitu duen irtenbidea da ezker abertzalearen ordena sinboliko kontrahegemonikoaren eskakizunetara egokitzea. Hortaz, aitaren desira da lehenik eta behin alaba subjektuak bere egiten duena, eta horren ondoren azkenik kutsadura ekarri dion beste gizonena. Irantzuk argiago ikusten du Nagoreren egia: «Ezin dun heure burua gizonen desiraren arabera neurtu» (179. or.). Irantzuren esaldiak oihartzun lacaniar ozenak ditu: «gizakiaren desira bestearen desira da» (Lacan, 2013).

Hiesaz kutsatu izanak ekarri dion gurutze-bide luzeari esker soilik lortuko du menpekotasun horretatik askatzea, borroka armatuaren amaiera aldiarekin bat gertatzen dena. Alabaren desioaren oinarrian aitaren itzala dago, nobelaren amaieratik hurbil Nagore ohartzen den bezala: «[e]rrudun sentitu nintzen. Aitaren eta bion artean osatu genuen mundu zentrokide-gatazkatsu-edipikotik kanpo utzi izan genuen beti [ama]» (279. or.). Titulutik bertatik hasi eta nobelan zehar behin eta berriz adierazi bezala, aita da Nagoreri *Jenisjoplin* goitizena jarri diona. Nagorek Janis Joplin kantaria bezalako emakume borrokalaria izan nahi du, beren nahiak lortzeko behar dena egiten duten horietakoa. Rafa aita da era horretako ereduak (Janis Joplin edota Amy Winehouse) Nagorerengan proiektatzen dituen. Baina eredu bera anibalentea da: oldarkorra eta hauskorra aldi berean, Nagore den bezala bere bizitzako aldi bakoitzean: oldarkorra su-etenaren eta hiesaren kutsatze aldira arte; hauskor eta zaugarria ondoren.

Hortaz, nobelaren lehen aldi horretan, Nagoreren desira aitaren desira da, hein handi batean, bai bizi estilo pertsonalean (eta bereziki, sexualean), bai jarrera politiko-sozial oldarkor eta oposizionalean. Uxue Alberdi idazleak berak era horretako interpretazio baten azalpenak eskaini ditu nobela honi buruzko elkarriketa batean:

[«U]no de los ejes es la relación entre la hija y su padre, bastante ambivalente, porque ese hombre es quien la lanza al mar de la vida y le pone el reto de alcanzar metas, cuando ella no se sabe manejar en ese medio. Su padre juega ese doble papel de quien pulsa el detonador de su vida y, cuando todo revienta y ella se va a ahogar, la recoge en brazos[»], añade.

[«]Mediante ese personaje masculino quería reflexionar un poco sobre la relación con el padre biológico, el patriarcado y la patria, tres palabras con el mismo origen, y de qué manera nos manejamos en esas lealtades e incomodidades que nos ha generado ser hijas de esta patria, de estos padres y en este sistema patriarcal[»].

Afirma que las hijas son muy leales a las luchas de sus padres, pero cuando ellas reivindicán, por ejemplo, el feminismo, esos padres y hermanos muchas veces no las acompañan. [«]Es uno de los temas literarios que me atraen. Es muy interesante la interpelación de Nagore Vargas hacia su padre y los lectores hombres, porque durante mucho tiempo hemos estado calladas[»] (Martínez, 2021).

Hiesa egonkortu eta borroka armatuaren amaieraren ondoren, Nagorek birjaiotze baten fantasia biziko du, aitaren eta nazioaren itzaletik aldendu eta ordena sinboliko berriaren eskakizunetara makurtu ondoren: medikuntza konbentzionalaren arau eta tratamenduei esker osasun-egoera hobetzea lortu du; Luka bikotekidearekin harreman monogamo egonkorra eraiki du, konbentzionala hori ere; eta Getaria herri xarmagarrian egun baketsu eta zoriontsuak bizi ditu. Identitate-berreraikitze honetan ordena sinboliko berriak globalizazioaren eta neoliberalismoaren zantzuak ditu. Ihesaz kutsatu izanak dakarkion abinentzia kastrazio gisa bizi du hasieran Nagorek. Baina sentipen horrek ordena sinboliko hegemonikoan sartzeko kastrazio sinbolikoaren funtzioa ere betetzen du. Berandu garatutako heldutasun horrek ez du desiratik askatzen, desiraren iturburua aldatu baino ez. Baina ordutik aurrera aitarekiko lokarri ezkututik aske-geago biziko den subjektua izango da. Nobela honen bitartez aitaren mugak, arrakalak eta alabarengan duen eraginaren argi-ilunak (Kowaleski-Wallace & Yaeger, 1989) erakusten dira, aita-alaben arteko harremana xeheki azalduz.

Ez dirudi Arestiren poema ospetsuaren oihartzunak nabarmentzea bilatu denik Alberdiren nobela baina saihestea ere ez. Gurasoak banandu ondoren alaba aitaren etxera itzuliko da zenbait momentutan, bereziki ospitalean azkenez ingesatu baino lehen, hau da, ordena sinbolikoa onartzeko gelditzen zaion azken urratsa egin baino lehen. Medikuntza konbentzionalak eskaintzeko dituen tratamenduei oniritziarik, aurreko ingresu aldietan ez bezala, osasuna berreskuratuta ospitaletik ateratzean ez da itzuliko berriro aitaren etxera baizik eta Irantzuren amonak Getarian duen etxera Lukas bikotekidearekin batera. Hortik aurrera alabak subjektu berri, konbentzionalago eta osasuntsuaren zantzuak erakusten ditu, hein batean aitaren itzalpetik berandu baina oraindik garaiz atera izanari esker.

3.4. *Aitaren etxea*

Karmele Jaioren nobela hiru narratzailearen ahotsek osatzen dute, zeinek bere ikuspegi eskaintzen diola txandaka osatzen duten kontakizunari. Narratzaile horietako bi Libe eta Ismael neba-arrebak dira eta hirugarrena Jasone, lehenaren lagun urkoa eta bigarrenaren emaztea izango dena. Narratzaileak pertsonaia protagonistak dira aldi berean. Beste biekin dituen harremanak bikoitzak izanik, Jasonek nolabaiteko ardatz posizioa betetzen du. Titulutik bertatik aipaturiko aita eta etxea Ismael eta Liberena dira. Hortaz, etxe horretako alaba Libe da, baina Jasonek ere badu alabatik zerbait, nahiz eta erraina izan, beste pertsonaia biekin duen lokarri estuaren bitartez berari ere badagozkiolako bere senar eta lagunaren gurasoen etxeko kontuak. Hortaz, Jasonek eta Libek etxe horretako aitarekin duten harremana da hemen arakatuko dena, sarritan ezinbestekoa izango bada ere Ismaelen bizipenak gogoan hartzea, hiruren arteko elkarreragina sendoa denez gero.

Istorioaren abiapuntua oraina da, borroka armatuaren ondorengo unea. ETaren adierazpenaren aipamenik ez dago hemen. Pertsonaiek, ordea, behin eta berriro dakarte gogora borroka armatua indarrean zegoen iragana, oraindik ere ahaztu gabea eta euren bizitzak baldintzatu zituenak. Izan ere, hirurek bat egiten dute giro gatazkatsuari emandako erantzunean, egoera latz hartan bilatutako babeslekuan, ihes

egitean alegia. Jasonek eta Imanolek ez bezala, Libek ezker abertzalearen aldeko iri-tzi eta konpromiso politiko sendoak ditu baina horien ondorioz atxilotu egingo dute eta handik aurrera alde egiteko beharra erneko zaio, Jasonek gogora dakarrenez (Jaio, 2019, 130. or.). Baina beste arrazoi sendo pare bat ere badu horretarako, gurasoen etxe barruan bizi duten egoerarekin estuki lotuak, Libek berak Ismaeli aitortu bezala: beroki bat erosteko amak aurreztutako dirua aitak hartu zuen eskopeta berri batean xahu-tzeko. Horrela gogoratzen du Libek amaren zailtasuna mina disimulatzeke: «[e]gun batean diruagatik eta berokiagatik galdetu nion, eta esan zidan aitaren dirua zela, berak irabazi zuela eta eskubidea zuela nahi zuen moduan erabiltzeko [...]. Uste dut egun horretan pentsatu nuela lehenengoz ihes egitea. Ezin nuen konplize izaten jarraitu. Eta bakarrik utzi nuen» (148. or.). Erabakia erru-sentimenduaren iturburu izan arren, beste arrazoi bat ere badu aitaren itzalpetik atera nahi izateko: emakumeenganako erakarpe-naren kontzientzia argia. Horren guztiaren ondorioz, Berlinen eraikiko du bizitza berria Kristinen ondoan. Liberen erabakiarekin lotzen du Jasonek bere ihesa giro bortitz eta beldurgarri hartan: «nire ihesaldiaren helmuga ez zen hiri bat, gizon bat baizik, Ismael. Lurralde seguru bat niretzat [...]. Amesgaizto haren erdian, leku seguru bat, gatazkare-kin zerikusirik ez zuena, nahiz eta bere arreba atxilotua izan [...]. Ismaelen beldurak segurtasuna eman zidan [...]. Lurralde askatzaile bat aurkitu nuen mutil haren alboan», nahiz eta denborarekin konturatuko den Ismaelen ondoan sortu duena «espazio itxi seguru bat baino ez» dela, beranduegi damutzeko «babesa eta segurtasuna garesti» saldu izanagatik (130.-132. or.). Azkenik, Ismaelek ere antzeko erabakia hartu izanaren ondorioa une horretan baino hobeto epe luzeagora agertuko da, idazle ezaguna izanik nobela berri bat idazteko orduan aurkitutako arazoetan, nobela horretarako «gatazka barrutik ikusita» kontatzeko konpromisoa hartu bai baina betetzeko oztopo gaindiezi-nak dituenean, bere buruari aitortu bezala:

Zuk ihes egin zenion beti mina eta arriskua eragin zezakeen guztiari. Zure arreba atxilotua izan bazen ere, zuk erakusleihu batetik bezala ikusi zenuen borroka. Beti leku seguru batetik. Gerretan hoteletik irten gabe kronikak idazten dituzten kazeta-rien antzera [...]. Agian hori da arazoa. Agian ezin da ezer idatzi benetako munduaz itxitasun eta txikitutasun horretatik. Mundutik kanpo egonda. Erakusleihotik. Hori izan daiteke azken urteotako lehortearen egiazko zergatia. Agian arrazoi zuen Vidartek zure azken nobelari egin zion kritika mingarri hartan: zure pertsonaiak estralurtarrak zirela idatzi zuen, ez non ez noiz konkretu batean bizi ez direnak. Zure nobelak errea-litatetik ihes egiteko modu bat besterik ez zirela kritikatu zuen [...]. Eta egiarekin kon-prometitu ezean, ez omen dago arterik (Jaio, 2019, 18. or.).

Arrazoi ezberdinengatik bada ere, hiru narratzaile-pertsonaiek ihesbidea bilatu dute egoera gatazkatsuaren aurrean. Borroka armatuaren inguruko gatazka dute agian bor-titzena, baina sexu-genero gatazka ere indarrez agertu da, bai eta gizarte gatazka ere, bereziki aitaren bitartez nabari dutena, honen lankideek deitutako grebari uko egin eta aita eskiroltzat salatuko dutelako. Heldutasunaren orainetik begiratuta, gatazka horietako batzuek baretu egin direla dirudi, borroka armatuari atxikitako gatazkak batez ere, hark utzitako mamuak oraindik inguruan dabilzan arren. Baina inoiz baino indartsuago nozitzen den gatazka sexu indarkeriak eragindakoa da. ETArek atenta-tuak eta amaiera adierazpenak azpimarratu beharrean, Jaioaren nobelako abiapuntuko

gertaera, beldur berrien pizlea eta iraganeko beste gatazka horien gogorarazlea Iruñean 2016ko sanferminetan gizon-talde batek neska gazte bati eragindako bortxaketa da. Hortaz, nobela honek bat egiten du postbiolentziaren aldia auzitan jartzen duen ikuspegiarekin beste biolentzia batzuen iraupena agerikoa denean eta batez ere emakumeen kontrakoa, marko teorikoari eskainitako atalean azaldu bezala. Jasone eta Imanolen bi alabak etxetik atera berriak direnean euren bizimoduak egitera, Iruñeko gertaera horrek alabengatik beldurra pizten die gurasoei eta horrekin batera iraganeko beldur guztien oroimena suspertzen die. Iruñeko gertaerarekin bat egingo du pertsonaien bizitzetan azaleraturiko egoera berri pare batek. Lehenik eta behin, Libe eta Ismaelen amak mukurra apurtu eta aitaren zaintza bertan behera uztean seme-alabak gurasoen etxera itzuliko direnez, etxe horrek haurtzaro eta gaztaroko bizipenak eta mamuak gogora ekarriko dizkie. Aldi berean, Jasonek Jauregi editorearen esku utzi du idazten aritu den nobela, idazteari berriro heldu izanaren emaitza, urte luzez baztertuta eduki duena etxeari eta etxekoen zaintzari lehentasuna eman dielako. Idazteari ekitea gatazetako beldur, amets eta zaletasunak gogora ekartzeko akuilu izan da kasu horretan ere. Pertsonaien oroitzapen horiek guztiak pertsonalak izanik ere, giroko gatazken eraginak kutsatuta daude. Hortaz, memoria pertsonala gatazken memoriatik bereizi ezina da. Horrela, narratzaile-pertsonaiek ekarpen ezinbestekoa egiten diote gorago aipaturiko gatazken memoriaren konstelazioari eta poliedrikotasunari.

Aitaren etxea nobelaren kasuan, titulutik bertatik luzatzen da gonbidapena Arestiren poemarekin harreman intertestualak ezartzeko. Atutxak eta Retolazak (2021) aipaturiko desplazamenduen eraginez, ordea, poemaren oihartzunak istorio honetan hartzen duen zentzua oso bestelakoa da. Etxea aldi berean da elementu literala eta irudia. Etxe horretako aita autoritarioa patriarkatu tradizionalaren gauzatzea da hein handi batean, debeku guztien iturburua, «aitaren izen/ezezko» lacaniarra (*nome/non du père*) (Lacan, 2013), ama izututa duena: «[e]z egin hau, aita haserretuko da eta; [...] Gertatzen zitzaizkizuen gaitz guztiak amaren errua zirela sentiarazten zizuen aita» (141. or.). Berlinetik itzultzean gurasoak zaintzera, Libe ohartuko da kalean arnastu zuen giro bizi eta erakargarriak eragotzi egin ziola ama espetxeratuta bizi zela etxe hartan ikustea: «[z]arata gehiegi zegoen zure buruan. Nola entzungo zenuen ba horrela amaren garrasia? Nola konturatu behar zinen ba ezin zenuela bakarrik utzi seigarren eskubiko kartzela hartan?» (142. or.). Libe amaren bizimoduaren egia azaltzen saiatzen da Ismaeli, lehenago Eibarren bizi zirenean amak ahizpa eta lagunak zeuzkala baina Gasteizera aldatu zirenetik bakarrik zegoela, aita ateratzeko baimenik eman ez ziolako, ez eta beste emakume batzuekin jostera biltzeko ere: «[e]makumeak isolatzea ahultzeko modu bat dela esan dizu ondoren, beti erabili dena, kalera irtetea debekatuz batzuetan edo txikitatik erakutsiz euren arteko harremanak gatazkatsuak izan behar dutela.» (149. or.). Lasterrera Ismaelek auzi horri buruz duen ikuspegia zeharo aldatuko bada ere, oraingoz guztiz normalizatua du patriarkatuak ezarritako bizilegea, horregatik jasanezina egiten zaio Libek eta Jasonek «erabiltzen duten hitzontzikeria hori: tratu txarrak, gerra, patriarkatua... Munduan gertatzen den txar guztia gizonek maltzurkeriaz antolatuta izan balute bezala» (147. or.). Baina Ismael bera ere patriarkatuaren eskakizunen eraginpean dago, hainbeste ezen bere maskulinitatea auzitan jarria ikusten zuen gatzetxotan, aita eredugarriagotzat aurkitzen zuen Aitor lehengusuaren parean, mutil ausarta eta ehiztari ona zelako. Eta aita erreala ere aita patriarkaletik

gero eta bereizgarriagoa bihurtzen da zahartzaroaren eraginez: «[e]z dakizu nola den posible pertsona beregan mamu bat eta beldurra duen ume bat ikustea [...]. Beldurra duen ume bat da, gizon gogorraren maskara pean» (149. or.). Aitaren eta etxearen artean harreman solidarioa dago. Patriarkatu tradizionala irudikatzen duen aita «suntsiezina zen», «eraikin indartsu bat zen». Oraingoa, oster, «[b]ertan behera jausten ari den eraikin handi bat» baino ez, «etxeko paretak bertan behera doaz». Horrela bai aitaren kemena eta bai berak irudikatzen duen patriarkatu tradizionala agortzeko bidean ageri dira eta prozesu horren aurrean Ismaelek «lurralde berri bat deskubritzen» ari den «esploratzaile» gisa irudikatzen du bere burua (150.-151. or.). Prozesuan aita errearen gorputzaren gainbehera deskribatzeko aukera ez dute galtzen narra-tzaileek, aita erreala botere patriarkaetik bereizteko harreman sinekdoke gisakoaren eskutik (Kowaleski-Wallace, 1989). Artean aitak hein batean gauzatu duen ordena sinboliko patriarkalak kalte handiak eragin ditu ez soilik familiako emakumeengan, baizik eta gizonengan ere bai: aitaren eta Ismaelen arteko harremana narriatzearekin batera, Aitor lehengusuaren bizitzarekin ere amaitu du ETako kide dela manipulatzeko ari den bonba batek eztanda egin dihonean. Ismaelen irudimenean amesgaiztoetan agertzen zaion kobazulo beretik datoz biolentzia-mota guztiak, jatorri berekoak dira emakumeek pairatzen dutena eta Aitor bezalako gazteak borroka armatura eta heriotzara erakartzen dituen, norberaren nahiz besteren heriotzara (158. or.).

Aitak irudikatutako patriarkatu tradizionalaz gain, patriarkatuaren bertsio modernoagoa ere ez da begietatik galtzen Jaioren nobelan, ez eta horren aurpegirik bortitzena ere. Hasieratik bertatik gogora ekarria da Iruñeko sanferminetako bortxaketa kolektiboa, gizon gazte osaturiko anaidia batek buruturikoa. Gertaera horren itzala kontakizun osoan zehar zabalduko da pertsonaia nagusien beldur edota erru sentimenduen katalizatzaile-funtzioaren bitartez. Baina patriarkatuaren bertsio moderno hori ere Jasonerengan eragin bortitza izateko zorian dago. Tarte luze bateko agorraldia gaingitu ondoren, Jasonek berriro horrenbeste maite duen idazteari heldu eta nobela bat amaitzea lortu du bortxaketa jasan duen emakume bati buruz, Ismaeli Iruñeko gertaeraren ondorioz emakume bortxatu bat amesgaiztoetan agertzen hasi zaion aldi berean. Nobela irakurtzean Libek sentitzen du Jasone «bere egia azaltzen ausartu dela» eta Jasoneren nobelak Libe hurbildu egin duela «gorputzaren mintzora» eta benetakotasunera. Gorputzetik atera zaion egia idatzi duen heinean, Cixous pentsalari feministaren aldarriak eskatu bezala jokatu du Jasonek, bere burua idatziz eta bere gorputza entzunaraziz (Cixous, 1995, 62. or.). Ildo horretatik Eider Rodriguezek proposatu du «gorputzaren luzapena den corpus» hori gorputzarekiko harremanean aztertu beharra (2019, 18. or.). Hortaz, ez da harritzekoa Jasonen bortxaketa bezala bizi izatea berak idatzitako nobela, bere gorputzaren luzapen edo emari den corpus idatzi hori, Jauregi editoreak Ismaelen izenean argitaratu nahi duela jakitean. Une batez Ismael eta Jauregi gizonen arteko anaidi patriarkal modernoaren arabera jokatzeke zorian izan dira, Kirsten Campellen (2018) goragoko azalpenean ageri bezala, eta horrela gertatuko zen azkenean Ismaelek dena argitzea erabaki ez balu. Jasoneren asmoa zen horrenbeste estimatzen dituen bi gizon horien errekonozimendua lortzea, Jasoneren desira zen bestea gauzatzen duten gizonen desira izatea, bere gaitasun literarioa aintzakotzat hartua izatea. Jauregirengandik ez du ezer lortu, editorearen botere-posiziotik orain arte lez Ismael babestea baino ez duelako bilatzen, anaiarteko

ordena sinboliko patriarkalak eskatu bezala. Baina hain zuzen ere horregatik Jauregik sortzen zion lilura hautsi egin da Jasoneren begien aurrean eta, alderantziz, berreskuratu egin du Ismaelenganako maitasuna, denborak eta euren arteko desadostasunek higatua zena, uko egin diolako bere pribilegio maskulinoari egiaren mesedetan, Jasoneren egiletza aitortzean. Ismaelek eskertuko luke Jasoneren nobela bere izenean argitaratua izatea, berak idatzi beharrekoa burutu ezinik ari delako, eta iruzur horretan Jauregiren erabateko konplizitatea izango luke. Baina, azkenean, ez du onartu iruzur egitea bera ere bere egia bilatu beharrean aurkitzen delako, bere gorputzaren eta bere minaren emaria izango den egia idatzia (ziurrenik Aitor lehengusuarekin izan duen harreman zailetik datorkiona), errealtateari ihes egiten ez dion bere lehen lan literarioa izan litekeena, benetakotasunez sortutako emaitza. Eta argitze prozesu horretan ezinbestekoa izan du Jasoneren nobela irakurtzea, hor ikusi ahal izan duelako emakume guztien mina, Jasoneren nobelako emakume bortxatuarena, amesgaiztoetan agertzen zaion beste emakume horrena, bere amarena, Liberena eta Jasonerena, hots, patriarkatuak emakume guztiei eragindako mina, bai eta gizonei ere, Ismael bera salbuespen ez dela. Horrela ulertu du azkenean zer esan nahi duten Jasonek eta Libek «hau gerra bat da» edo «gerra zahar hori» bezalakoak esaten dituztenean gatazkaren ondorengo gatazka zahar baina iraunkorra aipatzeko. Iruñeko gertaeraren memoriagatik dela, edo Jasoneren nobelagatik, edo bertan ageri diren emakumeek jasaten dituzten nola edo halako hertsadura bizipenengatik, Jaioeren lanak agerian uzten du ez dela bat ere hiperbolikoa gure aldiko gizarteari oraindik «bortxaketa-kultura» (Herman, 1984) moduko deskribapena esleitzea.

Liberentzat ere eraginkorra izan da gurasoen etxerako itzulera. Bere burua aitaren ispiluan ikusi ondoren, bere izaeraren alderdi autoritario eta zurrunenak identifikatzen hasi da, aita patriarkalean horren gorrotagarri egiten zaizkionen parekoak. Esperientzia horri esker ohartu da ama bakarrik utzi zuela Berlinera ihes egin zuenean bere ongizatea guztiaren aurretik jarrita eta Kristin bikotekidearekin ere zurrunegi jokatzen ari dela debekatu egiten diolako Euskal Herrira etortzea: «zuk beti ezezkoarekin erantzun diozu [Kristinen Euskal Herria ezagutzeko eskariari]. Zure aita bazina bezala» (198. or.). Gurasoen osasun-egoerak gauzak aldatzeko aukera berriak eskaintzen dizkiola ulertzen du, abagune egokia dela Kristinekin Euskal Herrira itzuli, honek nahi bezala, eta aldi berean amarengandik hurbil izateko, zaintza bezalako «istorio txiki» horretan egon litekeelako bere Obra Handia, Berlinen duen erantzukizunezko lanpostuan baino gehiago. Baina Libek ere Ismaelen konplizitateari esker soilik lortuko du asmo berri horiek betetzea. Ismaelek aitaren zaintzaren ardura hartzean patriarkatuak gizon izateagatik eskainitako pribilegioari uko egin dio berriro ere, eta horri esker Libek amaren isolamenduarekin amaitzeko aukera ikusiko du, aita behinola ezarritako bakartzearekin, eta ama-alaben arteko harremana sendotzeko abagunea. Horrela itxuraldatu eta hein batean deuseztatu egiten da patriarkatuaren lege zahar ikusezina, «gerriko imajinarioa» (96. or.), gurasoen zaintza soilik alaben bizkar gainean uzten duena eta Libe feministarentzat kontraesan eta amorru iturri dena. Hortaz, Libe eta Jasone narratzaile eta pertsonaien bitartez Jaiok formazio patriarkal ezberdinen eragina erakusteko tarte izan du eta horrekin batera gerra zaharrak atzean uzteko eta benetako berdintasuna lortzeko bidean gizonek egin dezaketenaz ere hausnartu du Ismaelen pertsonaia baliatuta.

3.5. *Eraikuntzarako materiala*

